

# INGURUMEN-ADIERAZPENA 2021



**2022ko iraila**

## 0. AURKIBIDEA

<b>0.</b>	<b>AURKIBIDEA .....</b>	<b>1</b>
<b>1.</b>	<b>VISESAREN AURKEZPENA .....</b>	<b>2</b>
1.1	- VISESAREN AURKEZPENA.....	2
1.2	- VISESAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK ETA KOKALEKUA.....	3
	BULEGO NAGUSIA. VITORIA-GASTEIZ, ARABA .....	3
1.3	- VISESAREN JARDUERAK .....	4
1.4	- ERAKUNDE- ETA KUDEAKETA-EGITURA .....	7
1.5	- EMAS ERREGISTROAREN IRISMENA.....	8
<b>2.</b>	<b>INGURUMENA KUDEATZEKO SISTEMA .....</b>	<b>9</b>
2.1	- INGURUMEN-POLITIKA .....	9
2.2	- INGURUMENA KUDEATZEKO SISTEMAREN DESKRIBAPENA .....	10
2.3	- INGURUMENA KUDEATZEKO ERAKUNDE-EGITURAREN DESKRIBAPENA .....	11
2.4	- BARNEKO ETA KANPOKO TESTUINGURUAREN AZTERKETA .....	11
2.5	- INTERESDUNAK ETA BEREN BETEKIZUNAK .....	11
2.6	- ARRISKUAK ETA AUKERAK. EKINTZAK .....	11
<b>3.</b>	<b>INGURUMEN-ALDERDIAK.....</b>	<b>12</b>
3.1	- INGURUMEN-ALDERDIAK IDENTIFIKATZEKO ETA EBALUATZEKO METODOLOGIA.....	12
3.2	- EBALUAZIOA: ALDERDI ESANGURATSUAK .....	14
<b>4.</b>	<b>2021EKO INGURUMEN-PROGRAMA.....</b>	<b>15</b>
<b>5.</b>	<b>VISESAREN INGURUMEN-PORTAERAREN DESKRIBAPENA.....</b>	<b>21</b>
5.1	- ENERGIA.....	22
5.2	- MATERIALAK .....	29
5.3	- URA .....	34
5.4	- HONDAKINAK .....	36
5.5	- LURZORUAREN ERABILERA BIODIBERTSITATEAREKIKO .....	45
5.6	- IGORPENAK .....	46
<b>6.</b>	<b>VISESAREN INGURUMEN-PORTAERARI BURUZKO BESTE ADIERAZLE BATZUK: INGURUMENA KUDEATZEKO JARDUNBIDE EGOKIAK BULEGO JASANGARRIAK IZATEKO.....</b>	<b>56</b>
<b>7.</b>	<b>PROIEKTUETAKO INGURUMEN-PORTAERA.....</b>	<b>60</b>
<b>8.</b>	<b>INGURUMEN-PORTAERA OBRETAN ETA SUSTAPEN BERRIETAN.....</b>	<b>62</b>
<b>9.</b>	<b>INGURUMENARI LOTURIKO LEGE-BETEKIZUNEN ETA BESTE BETEKIZUN BATZUEN BETETZE-MAILA.....</b>	<b>67</b>
<b>10.</b>	<b>2022KO INGURUMEN-HOBEKUNTZA .....</b>	<b>75</b>
<b>11.</b>	<b>ELKARRIZKETA IREKIA ALDERDI INTERESDUNEKIN .....</b>	<b>76</b>
<b>12.</b>	<b>INGURUMEN-ISTRIPUAK .....</b>	<b>79</b>
<b>13.</b>	<b>BALIOZKOTZE-DATUAK .....</b>	<b>80</b>

# 1. VISESAREN AURKEZPENA

## 1.1 – VISESAREN AURKEZPENA

**Euskadiko Etxebizitza eta Lurra EA - Vivienda y Suelo de Euskadi SA** (aurrerantzean, Visesa) Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari atxikitako erakunde publiko bat da, eta etxebizitza eta lurzoruari buruzko lurralde-politika garatu eta hiriak birgaitzeko eta berritzeko helburuarekin sortu zen.

Visesaren egitekoa da babes publikoko etxebizitzaren sustapen-produktu eta/edo -zerbitzuak eskaintzea alokairu erregimenean, bai eta 2021-2023 Etxebizitzaren Gida Planean deskribatutako etxebizitza-beharrizanak asetzea ere, hiriak birgaituz eta/edo berrituz. Horretarako, koordinatu egiten da Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailarekin eta EAEko beste eragile publiko eta pribatu batzuekin, betiere jasangarritasunean, energia-efizientzian eta irisgarritasunean oinarritutako printzipioak aplikatuz.

1990ean sortu zen, eta, gaur egun, honela dago banatuta erakundearen kapital soziala: EAEko Administrazioa, % 78,64; Kutxabank, % 18,58; eta Laboral Kutxa, % 2,78.

Hasieratik 2021eko abenduaren 31ra bitartean, Visesak babes publikoko 16.019 etxebizitza entregatu ditu EAEn. Une honetan, hiriak birgaitzeko eta berritzeko lau proiektu estrategiko ditu esku artean: Bolueta, Zorrotzaurre, Vega Galindo eta StartEnCity-Koroatze. Gainera, ingurumenarekin duen konpromisoa agerian uzten duten hainbat ekimen ere garatzen ditu (EMAS erregelamendua, ingurumen-adierazpena, jasangarritasun-memoriak, jasangarritasun energetikoari buruzko dekretua edo erosketa publiko berdea). Hori bera gertatzen da gizarte-erantzukizunarekin eta bere talde interesdunekin duen konpromisoarekin (gardentasun-ataria edukitzea; arriskuen kudeaketa eta gobernu arduratsua egitea; datuak babesteko Europako erregelamendua aplikatzea; kapitalen zuriketa eta delituak prebenitzea; laneratzea sustatzea edo gizarte-eragileekin lankidetzan aritzea) eta eskaintzen dituen produktu/zerbitzuen kalitatearekin ere (produktuaren batzordea edo ISO 9001 ziurtagiria).

2005ean, Visesak UNE-EN ISO 14001 Arauan oinarritutako Ingurumena Kudeatzeko Sistema bat ezarri eta erakundearen Kudeaketa Sistema Integratuan (KSI) txertatu zuen KSI horrek Eusko Jaurlaritza-Euskaliten Kudeaketa Aurreratuko Ereduari jarraitzen dio.

2000az geroztik, Visesak Kalitatea Kudeatzeko Sistema bat dauka ezarrita, bai eta UNE-EN ISO 9001 egiaztagiria ere *“Babes publikoko etxebizitza-sustapenak egiteko eta elementu askeak merkaturatzeko”* irismenarekin; horiek bulego nagusietan eta bezeroei harrera egiteko lurraldeko bulegoetan egiten dira.

2016an, Visesan babes publikoko etxebizitzak eraikitzeko bizitegi-lurzorua eskuratzeko, kudeatzeko eta urbanizatzeke jarduera sartu zen. Ondorioz, UNE-EN ISO 14001:2015 arau berria argitaratzearekin batera, Visesaren Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren irismena eguneratu eta egoera horretara egokitu behar izan zen. Visesak erabaki zuen urrats bat haratago joatea ingurumenaren kudeaketan, eta, horretarako, hobekuntzak egiteko esparru gisa erabili ahalko zen eta asmo handiagoko helburuak ezartzeko aukera emango zuen kudeaketa-eredu bat bilatzea. Gauzak horrela, 1221/2009 (EB) Erregelamenduaren betekizun osagarriak (EMAS III) ezartzea erabaki zuen, eta, horri esker, **ES-EU 000118** EMAS erregistro-zenbakia eskuratu zuen.

Geroago, EMAS 1505/2017 Erregelamendua argitaratu eta gero, betekizun berrietara egokitu zuen Visesak bere Sistema Integratua.

Hori guztia aintzat hartuta, eta bat etorri EMAS 1505/2017 Europako Erregelamenduak aldatutako EMAS 1221/2009 Europako Erregelamenduekin eta 2026/2018 Erregelamenduekin, Visesak honako ingurumen-adierazpen hau egin du, erakundeak 2021ean ingurumen-arloan egin dituen kudeaketari eta bilakaerari buruzko informazioa publiko orokorrari eta informazioa eskuratzeko interesa duten bestelako alderdi interesdunei emateko asmoz.

## 1.2 - VISESAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK ETA KOKALEKUA

Visesak, Eusko Jaurlaritzaren menpeko sozietate publikoa den aldetik, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) ematen du zerbitzua, eta 4 bulego ditu: bere jarduna gauzatzeko bulego nagusi bat eta hiru lurralde-bulego, bezeroei aurrez aurreko arreta pertsonalizatua emateko. Bulego guztietan dago harrera-zerbitzu bat; bertan erantzuten zaie informazioa eskatzen duten interesdunei, eta, horrez gain, Visesak langile egokiengana bideratzen dituzte bisitariak, beren beharrezan arabera.

Honako hauek dira Visesaren datu nagusiak:

<b>Izen soziala:</b>	<b>EUSKADIKO ETXEBIZITZA ETA LURRA EA - Visesa</b>		
<b>Forma juridikoa:</b>	Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari atxikitako sozietate publikoa.		
<b>Produktu/zerbitzu nagusia:</b>	Lurzoru eta etxebizitza babestu publikoak		
<b>Irismena:</b>	<p><b>Azterketak egitea; lurzoruak eskuratzea, kudeatzea eta urbanizatzea.</b></p> <p><b>Babes publikoko etxebizitzaren sustapenak egitea eta etxebizitzak birgaitzea.</b></p> <p><b>Elementu askeak (lokalak, garajeak eta trastelekuak).</b></p> <p><b>Laguntza teknikoa ematea hirigintzaren eta antolakuntzaren arloan.</b></p> <p><b>Laguntza teknikoa ematea bere sustapenetan energia-efizientzia mantentzeko eta kontrolatzeko.</b></p>		
<b>NACE kodea:</b>	4110 (Higiezinaren sustapena)		
<b>Bulego nagusiaren helbidea:</b>	Gamarrako Atea 1A – 2. solairua (El Boulevard eraikina)- Gasteiz		
<b>Telefono-zenbakia:</b>	945 21 40 50	<b>Telefono-zenbakia:</b>	945 21 40 50
<b>Helbide elektronikoa:</b>	<a href="mailto:visesa@visesa.eus">visesa@visesa.eus</a>	<b>Helbide elektronikoa:</b>	<a href="mailto:visesa@visesa.eus">visesa@visesa.eus</a>

Jarraian, grafikoki daude adierazita Bulego Nagusiaren eta bezeroari harrera egiteko 3 lurralde-bulegoen kokapena:



### **Bizkaiko Herritarrei Harrera egiteko Bulegoa:**

Trenbideko etorbidea 38, beheko solairua. 48012. Bilbo.

### **Gipuzkoako Herritarrei Harrera egiteko Bulegoa:**

Errotaburu pasealekua 1, 7. 20018. Donostia-San Sebastián.

### **Arabako Herritarrei Harrera egiteko Bulegoa:**

Gamarrako Atea 1A, beheko solairua. (El Boulevard eraikina). 01013. Vitoria-Gasteiz.

### **Bulego Nagusia. Vitoria-Gasteiz, Araba**

Gamarrako Atea 1A, 2. (El Boulevard eraikina). 01013. Vitoria-Gasteiz.

Herritarrei Harrera egiteko Bulegoak (HHB):			Bulego Nagusia:
<b>Arabako HHB</b> Tel.: 945 214 038 Faxe: 945 241 609 <a href="mailto:gasteiz@visesa.eus">gasteiz@visesa.eus</a>	<b>Bizkaiko HHB</b> Tel.: 946 612 620 Faxe: 944 241 989 <a href="mailto:bilbao@visesa.eus">bilbao@visesa.eus</a>	<b>Gipuzkoako HHB</b> Tel.: 943 326 340 Faxe: 943 326 341 <a href="mailto:donostia@visesa.eus">donostia@visesa.eus</a>	Tel.: 945 214 050 Faxe: 945 068 440 <a href="mailto:visesa@visesa.eus">visesa@visesa.eus</a>
<b>Ordutegia:</b> Astelehenetik ostegunera: <b>8:30-14:00 eta 15:00-16:30. Ostirala: 8:30-14:00</b> Astelehenetik ostegunera: <b>8:30-14:00 (ekainetik irailera)</b>			

Visesaren saldu osteko zerbitzu-arreta:
Tel.: 900 212 123 <a href="mailto:sap@visesa.eus">sap@visesa.eus</a>
<b>Ordutegia:</b> Astelehenetik ostiralera: <b>8:30-20:00</b>

Lantokiei dagokienez, aipatu behar da Gasteizko Bulego Nagusian lan egiten dutela Visesako langile gehienek. Bertan kudeatzen da erakundearen jardura osoa, eta, halaber, bertan txertatzen da ingurumen-ikuspegia zerbitzuen eta jardueren kudeaketan.

Herritarrei Harrera Egiteko Bulegoetan (HHB), administrazio-lanak egiten dira batez ere; halaber, bertan ematen zaie arreta bezeroei. Gasteizko HHBa Bulego Nagusiarekin batera kudeatzen da.

Gipuzkoako HHBa salbuespena da, Visesa ez baita titularra; alokairurako bulego-eraikin batean dago, eta, hortaz, instalazio eta zerbitzuak eraikineko erkidegoaren jabetzakoak dira. Gauzak horrela, Gipuzkoako HHBan, eraikina kudeatzen duen erakundearen eskumenekoak dira ingurumenari lotutako zenbait alderdi eta betekizun.

### 1.3 - VISESAREN JARDUERAK

Bulego Nagusiak eta herritarrei harrera egiteko bulegoak hainbat jardura egiten dituzte. Honela laburbil daitezke:

- *Bulegoetan egiten diren kudeaketa-jarduerak*
- *Planeamenduak eta proiektuak kudeatzeko jarduerak (lurzoruak)*
- *Proiektuari, zuzendaritzari, obrak exekutatzeari eta saldu osteko zerbitzuari dagozkion jarduerak*  
*Proiektua entregatzeko, bezeroak artatzeko eta stock-a kudeatzeko jarduerak*
- *Zerbitzu energetikoak kudeatzea*
- *Aholkularitza eta orientazio teknikoa ematea*

#### **Bulegoetan egiten diren kudeaketa-jarduerak**

Elkar konektatuta dauden zazpi sailtako langileek egiten dituzte bulegoetako kudeaketa-jarduerak (Zuzendaritza Nagusia; Pertsonak eta Zerbitzu Orokorrak; Bezeroarenganako Arreta eta Kudeaketa Komertziala; Sail Teknikoa; Sail Juridikoa; Ekonomia eta Finantza Saila eta Prozesuak, Kanpoko Komunikazioa eta Sistemak Saila).

Esan bezala, ingurumena kudeatzeko sistema bat diseinatu eta ezarri da, EMAS Erregelamenduaren betekizunak betetzen dituena, UNE-EN ISO 14001:2015 Arauan oinarritutako aurreko sistematik abiatuta.

Ingurumenarekin lotura duten jarduerak Prozesuak, Kanpoko Komunikazioak eta Sistemak Sailak eta Pertsonak eta Zerbitzu Orokorrak sailek kudeatzen dituzte; bertan egiten dira, halaber, Visesaren gainerako jarduerekin zerikusia duten administrazio-jarduerak ere.

Kudeaketa-jarduerak honako hauekin guztiekin dute lotura: ingurumena kudeatzeko sistema planifikatzea eta mantentzea; ingurumen-alderdiak kontrolatzea; ingurumen-programak zehaztea eta programa horiei jarraipena egitea; Visesaren ingurumen-portaera ebaluatzea; legezko ingurumen-betekizunak eta erakundearen talde interesdunek ingurumenaren arloan izan ditzaketen beharrizan eta espektatibak beteko dituzten egitasmoak gauzatzea.

### **Planeamenduak eta proiektuak kudeatzeko jarduerak (lurzoruak)**

Lehenik eta behin, inbertsioen barne-azterketak, operazioen bideragarritasun-analisiak eta babes publikoko etxebizitzaren sustapenak egiteko lurzoruen erosketak egiten dira. Horiek guztiak egin ondoren egin beharreko jarduerak helburu horretarako kontratatutako laguntzaile tekniko baten bidez gauzatzen dira, eta proiektu guztietan dago Visesako proiektu-arduradun bat.

Prozedura hori hiri-planeamenduaren eta hirigintza-kudeaketaren arloko proiektu azpikontratatueta aplikatzen da. Bertan, hainbat jardura biltzen dira, adibidez: laguntza teknikoa, aholkularitza, planeamenduko figurak txertatzea eta irismenari, epeei eta aurrekontuari dagozkien helburuak betetzeko koordinatzea.

### **Proiektuari, zuzendaritzari, obrak exekutatzeari eta saldu osteko zerbitzuari dagozkion jarduerak**

Nagusiki, proiektu-faseko jarduerak, obrako zuzendaritza eta hirigintza-, eraikuntza- eta/edo birgaitze-obra bera exekutatzeko hartzen ditu barne. Horiek guztiak azpikontratatu egiten zaizkie arkitekturako profesionaleri eta eraikuntzako enpresei, eta ingurumen-kudeaketa sistema propioak izan ohi dituzte.

Egin behar horren barruan sartzen da, adibidez, aurreproiektuak, oinarrizko proiektuak eta exekuzio-proiektuak egitea, eta zuzendaritza fakultatiboak kontratatu eta obra exekutatzeko.

Kontrol- eta jarraipen-jarduerak laguntzaile tekniko baten eta/edo helburu horretarako kontratatutako eraikuntza-enpresa baten bidez egiten dira, betiere Visesako proiektu- eta/edo obra-arduradun batekin lankidetzan.

Kontrol-jarduerak eta obra amaierako ikusketak obra jaso aurretik eta ondoren egiten dituzte Visesako teknikariek (saldu osteko zerbitzua).

### **Produktuak entregatzeko, herritarrek artatzeko eta stock-a kudeatzeko jarduerak**

Salmentaren eta/edo alokairuaren kudeaketaren barruan sartzen da etxebizitzaren, lokalen, garaje-partzelen eta trastelekuen kudeaketa.

Jardura horren barruan egiten da Visesaren etxebizitza eta elementu aske guztien merkaturatzea, salmenta, alokairua eta stockaren kudeaketa, bezeroari harrera egiteko lurralde-bulegoetan.

### **Zerbitzu energetikoak kudeatzea**

Visesak hiru etxebizitza-sustapenetan ematen ditu zerbitzu energetikoak 2010etik; izan ere, etxebizitza horietako klimatizazioa eta konforta bermatzeko dauden beharrezko erantzuten dieten kogenerazio-instalazioak daude bertan. Zerbitzu horiek, batez ere, energia-kontsumoak kontrolatzera eta instalazioen mantentze-lanak kudeatzera daude bideratuta.

**Aholkularitza eta orientazio teknikoa ematea**


Bulego nagusietan ematen du Visesak zerbitzu hau; aholkularitza eta orientazio teknikoa ematen die beste erakunde batzuei (udalei). Batez ere, administrazio- eta kudeaketa-zerbitzuak, batetik, eta zerbitzu teknikoak, bestetik, ematen ditu.

Operazioekin lotutako jarduera horiek guztiak eta estrategiari eta zeharkako kudeaketari lotutakoak gauzatzeko, Visesak prozesuen mapa bat sortu du:




## 1.4 - ERAKUNDE- ETA KUDEAKETA-EGITURA

Visesan 86 pertsona zeuden 2021eko abenduaren 31n. Organigrama funtzional honetan ikus daiteke nola zeuden banatuta:



Beraz, hau da ingurumenaren kudeaketan eragin zuzena duten zuzendaritzen egitura:



Zuzendari nagusia da Visesak organo exekutibo gorena, eta bera da enpresa-kudeaketaren zuzendaria. Horretarako eskumenak Administrazio Kontseiluak ematen dizkio. Zuzendaritzari Visesak Zuzendaritza Batzordeak laguntzen dio, eta aholkulari-lanak ere egiten ditu. Batzorde horretan sail guztietako zuzendaritzek hartzen dute parte.



Visesarentzat, erakundea osatzen duten pertsonak dira bere aktibo nagusia, eta, horri probetxu ateratzeko, prozesuetara bideratutako egitura bat du. Egitura horren ardatz nagusia bezeroa da, baina gainerako talde interesdunak ere aintzat hartzen dira.

Bai prozesuak, bai kudeaketa- eta hobekuntza-taldeak etengabeko hobekuntzan oinarritutako kudeaketa bikaina egitea ahalbidetuko duen egitura batean daude oinarrituta, organigrama bera bezalaxe.

## 1.5 - EMAS ERREGISTROAREN IRISMENA


Visesak Bulego Nagusian eta bezeroei harrera egiteko bulegoetan egiten diren jarduera guztietan aplikatzen du ingurumenaren kudeaketaren ikuspegia. Honako irismen hau du:

***Azterketak egitea; lurzorua eskuratzea, kudeatzea eta urbanizatzea;  
Babes publikoko etxebizitzak sustatzea eta etxebizitzak birgaitzea;  
Elementu askeak (lokalak, garajeak eta trastelekuak) merkaturatzea;  
Laguntza tekniko ematea hirigintzaren eta antolakuntzaren arloan;  
Laguntza teknikoa ematea erakundearen sustapenetan energia-efizientzia mantentzeko eta kontrolatzeko.***

## 2. INGURUMENA KUDEATZEKO SISTEMA

### 2.1 - INGURUMEN-POLITIKA

Visesako zuzendari nagusia da erakundearen ezarriko den ingurumenarekiko konpromisoa zein izango den erabaki eta definitzeaz arduratzen dena, eta, aldi berean, konpromiso hori da ingurumen-kudeaketa hobetzeko helburuak ezartzeko erreferentzia. Ingurumen-konpromiso hori publikoa da eta edozeinek eskuratu dezake dokumentua, ingurumen-adierazpenaren gertatzen den bezalaxe.

	<h2>INGURUMEN-POLITIKA</h2>
<p>VISESA da lurzorua kudeatu eta babes publikoko bizitza sustatzen duen sozietate publikoa. Ildo horretan, sustatu, lagundu, bultzatu eta aktiboki parte hartzen du hiriak birsortzeko eta berritzeko jardueretan, baita etxebizitza eta azpiegitura publikoak birgaitzeko jardueretan ere. Hori eginez, irisgarritasuna handitzen du, betiere ingurumenaren eta lurralde-orekaren ikuspegiarekin bat eginez, lurralde jasangarri bat sustatzeko helburuarekin.</p> <p>Gure jarduerak eragin zuzena du landa- eta hiri-ingurunean; izan ere, gure esku-hartzeek inpaktu fisikoa dute, gure eraikuntza-produktuak erabiltzeak ondorioak ditu eta eraikuntza-produktu horiek lortzeko egin beharreko jarduerak ere ingurumenean eragiten dute. Ataza horietako gehienak gure proiektuak exekutatzeko kontratatzen ditugun enpresek egiten dituzte.</p> <p>Ingurumenarekiko dugun konpromisoa modu praktikoan ikus daiteke gure kudeaketaren hainbat aspektutan, gure <b>Hornitzaileen politikan</b> eta gure <b>Bezeroen, Produktuen eta Zerbitzuen Politikan</b> ikus daitekeen bezala. Gainera, ingurumenaren hobekuntza gure berrikuntza-ardatz nagusietako bat ere bada, eta hala jasota dago gure <b>Berrikuntza-politikan</b>.</p> <p><b>JARDUKETA-PRINTZPIOAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Gure jarduerari aplikatu dakizkiokeen <b>lege-betekizun</b> guztiak betetzen ditugu, baita guk sinatutako hitzarmenetatik edo gure erakundeak hirugarrenen proiektuetan duen partaidetzatik eratorritako betekizunak ere.</li> <li>- Gure helburua, enpresa publiko gisa dugun zeregin eredugarri eta bultzatzailea betetze aldera, <b>sentsibilizazioa</b> eta ingurumen-hobekuntza <b>sustatzea da</b>, baita ingurumen-jarduera jasangarriak sustatzea ere, gure langileen eta talde interesdunen artean, eta, bereziki, gure enpresa hornitzaile eta bezeroen artean.</li> <li>- Aktiboki egiten dugu lan <b>ingurumena babesteko</b>. Xede horrekin, kutsadura prebenitzeko, baliabideen kontsumo arduratsu eta jasangarria egiteko, klima aldaketa murriztu eta klima aldaketak eragindako aldaketetara egokitzeko eta biodibertsitatea gure jarduerak, produktuak eta zerbitzuak eragindako inpaktuetatik babesteko printzipioak aplikatzen ditugu.</li> <li>- Gure erakunde-politikaren oinarri eta erakundearen bikaintasun-printzipio da ingurumenaren kudeaketa <b>etengabeko hobekuntza</b> bilatzea; horretarako, adierazleak ezarri eta ingurumenaren arloan ditugun helburuak etengabe berrikusten ditugu ingurumena kudeatzeko daukagun sistemaren bidez.</li> <li>- <b>Ikaskuntza partekatua eta berrikuntza</b> da gure hobekuntza-iturri, baita ingurumenaren arloan gauzatzen dugun jarduerak garrantzitsuenetako bat ere; tokiko eta nazioarteko proiektuetan hartzen dugu parte, eta, horri esker, ingurumenaren arloan dauden aurrerapenak proaktiboki aztertzen ditugu, hobekuntza-iturri gisa.</li> </ul> <p>Horregatik guztiagatik, <b>ingurumena kudeatzeko sistema</b> bat daukagu ezarrita eta egiaztatuta gure jarduerak eta bulego guztietan; bertan, aintzat hartzen da ingurumena. Halaber, eragina dugun hiru esparru handietako jardueretan ere ezarrita dago: proiektuak, obrak eta VISESAko bulegoak.</p> <p>Ingurumenaren arloan egiten dugun lanaren berri xehe-xehe ematen dugu publikoki <i>GRI jasangarritasun-txostenen</i> eta <i>EMAS Ingurumen-adierazpenaren bidez</i>.</p> <p style="text-align: right;"><i>Honako honek onetsi du: zuzendari nagusia Carlos Quindós Fernández</i></p>	

## 2.2 - INGURUMENA KUDEATZEKO SISTEMAREN DESKRIBAPENA

Visesak Kudeaketa Sistema Integratua (KSI) du. Urtero egiten zaizkio auditoretzak, UNE-EN ISO 9001:2015 arauaren arabera ziurtatua dago, UNE-EN ISO 14001:2015 arauen arabera eguneratua eta EMAS 1505/2017 Europako Erregelamenduak aldatu zuen EMAS 1221/2009 Europako Erregelamendura egokitua.

Sistema integratu horren barruan, 2018an egokitu zen ingurumen-kudeaketa 1505/2017 Erregelamenduaren betekizunekin bat egiteko. Halaber, EMAS 2026/2018 Erregelamendua onetsi eta indarrean sartu zenetik betekizun berriak ingurumen-adierazpen honetan txertatu dira.

### **Ingurumen-kudeaketa osatzen duten dokumentuen egitura**

Ingurumen-kudeaketaren harira egiten eta erabiltzen diren dokumentuei esker, aplikatzekoak diren ingurumen-betekizunak betetzen direla eta ingurumen-arloko prozedurak eta jarraibideak sistematizatuta daudela bermatzen da. Ildo beretik, erakundeak ingurumena babesteko eta bere jardueraren ondorioz ingurumenean dauden eraginak minimizatzeko duen etengabeko hobekuntza-konpromisoa gauzatzeko eta ikusgai jartzeko ere balio dute.

Honako dokumentu hauek osatzen dute kudeaketaren oinarrian dagoen egitura hori:

- **Kudeaketa Sistema Integratuaren Eskuliburua.** Prozesu guztietan aplikatzen den ingurumena kudeatzeko sistema deskribatzen duen erreferentziatzko dokumentua da, eta bi helburu ditu:
  1. Visasaren barruan, erreferentzia-esparru izatea kudeaketa integratuko sistemarekin zerikusia duten barne-jarduerak gauzatzeko.
  2. Visesak ezarritako kudeaketa-sistema integratuari buruzko informazioa ematea halakorik eskatzen duen edozein interes-talderi, bezeroen eskakizunak betetzen direla, erabiltzaileak asebeteta daudela, ingurumena modu jasangarrian mantentzen dela eta pertsonen segurtasuna eta osasuna babestu egiten direla bermatzeko.
- **Ingurumena Kudeatzeko Prozedurak.** Eskuliburua osatzen duten dokumentu gehigarriak dira. Bertan, xehe-xehe azaltzen dira ingurumenaren kudeaketaren esparruan egiten diren jardueretako prozedura sistematikoak.
- **Ingurumena Kudeatzeko Jarraibideak.** Eskuliburua osatzen duten dokumentu gehigarriak dira; zehazki, prozesu edo jarduera batek ingurumenean izan dezakeen inpaktua prebenitzeko, kontrolatzeko edo minimizatzeko helburuarekin gauzatu beharreko lan-operatibak deskribatzen dira bertan.
- **Formatuak.** Egiten ditugun jardueren ingurumen-informazioa jasotzeko erabiltzen diren txantiloak dira.
- **Erregistroak.** Ingurumenaren kudeaketaren eskuliburuan, prozeduretan eta jarraibideetan ezarritako gidalerroak betetzen direla bermatzeko oinarritzko dokumentuak dira.

Kudeaketa-sistema integratuaren esparruan, Visesak bermatu egiten du kudeaketa-politika orokorrean eta kudeaketaren gainerako esparruetarako ezarri diren politketan jasotako konpromisoak garatu, ezarri, berrikusi eta eguneratzeko beharrezkoak diren erakunde-egitura, jardueren plangintza, ardurak, praktikak, prozesuak, prozedurak eta baliabideak dituela, eta definitu ere egiten ditu.

## 2.3 - INGURUMENA KUDEATZEKO ERAKUNDE-EGITURAREN DESKRIBAPENA

Visesako zuzendaritzak ingurumen-kudeaketako zuzendaritzaren ordezkari gisa hautatu du Prozesuen, Kanpoko Komunikazioaren eta Sistemen Zuzendaritza.

Gauzak horrela, Prozesuen, Kanpoko Komunikazioaren eta Sistemen Zuzendaritza da eskuliburuan eta gainerako dokumentuetan jasotako politikak, prozedurak, jarraibideak, formatuak, erregistroak eta irizpideak etengabe erabili eta betetzen direla bermatzeko jarraipena egitearen arduraduna. Zuzendaritzak eskuordetu dio horretarako eskumena, eta haren ordezkari gisa, autoritate nahikoa du Zuzendaritza Nagusiari eta gainerako zuzendaritzari ingurumen-kudeaketaren funtzionamenduaren eta ematen ari den erantzunen berri emateko, baita sistema berrikusteko eta hobetzeko gomendioak egin eta ekintzak proposatzeko ere.

## 2.4 – BARNEKO ETA KANPOKO TESTUINGURUAREN AZTERKETA

2021. urtearen amaieran, 2021-2023 Etxebizitzaren Gida Plan berria indarrean sartu zenean, Visesa bere testuinguruaren azterketa orokorra egiten hasi zen abenduan. Azterketa horren azken emaitza Visesaren esparru estrategikoa eguneratzea izan da, 2021-2024 Plan Estrategikoaren definizioaren bidez.

Barneko eta kanpoko testuinguruaren azterketa orokor horren urteko berrikuspena eta definitutako Plan Estrategikoa urteko kudeaketa-plana egiteko oinarriak dira.

## 2.5 – INTERESDUNAK ETA BEREN BETEKIZUNAK

Visesaren interesekoak izan daitezkeen eragileak zein diren aztertu da. Horretarako, talde interesdunak identifikatu eta Visesak horietan duen eraginaren eta influentziaren arabera sailkatu dira.

Gero, interesdunek dituzten beharrizanak eta espektatibak aztertu dira *focus group* izeneko metodologiaren bitartez; bertan, talde interesdun horiekin harreman gehien duten eta hobeto ezagutzen dituzten Visesako langileek hartu dute parte, eta Visesak bere gain hartuko dituen betekizunak ezartzeko ere balio izan du.

## 2.6 – ARRISKUAK ETA AUKERAK. EKINTZAK

Visesak urtero lantzen ditu espero diren emaitzetan eragina izan dezaketen arrisku eta aukerak; zehazki, zein arrisku eta aukera egon daitezkeen erabaki eta ebaluatzen du. Horretarako, honako hauekin zerikusia duten arriskuak eta aukerak ebaluatzen dira:

- Ingurumenari lotutako alderdi esanguratsuak
- Lege-betekizunak eta aplikagarriak diren beste betekizun batzuk
- Interesdunen beharrizanak eta espektatibak
- Erakundearen eta bere testuinguruaren analisia

Halaber, AMIA orokor bat egin da testuinguruaren azterketa abiapuntutzat hartuta. Urtero berrikusten da, eta aintzat hartzen da arriskuen eta aukeren urte anitzeko plana identifikatu eta lehenesteko.

Ondorioz, Visesak jarduera eta operazio bakoitzari berezkoak zaizkion arrisku eta aukeren bilakaera aztertu eta berauek kudeatzeko sistema bat du, arriskuak identifikatu eta ebaluatzeaz gain, espero diren emaitzak areagotu eta espero ez direnak prebenitu edo murrizteko gai izango diren kontrol-jarduerak diseinatu eta gauzatu ditu.

## 3. INGURUMEN-ALDERDIAK

Ingurumenaren kudeaketaren esparruan, Visesak barne-prozedura bat du (ingurumen-alderdiak identifikatzeko, ebaluatzeke eta erregistratzeko prozedura), bizi-zikloarekin lotuta dauden eta Visesak egiten dituen jarduerekin zerikusia duten edo izan dezaketen ingurumen-alderdiak identifikatzeko eta ebaluatzeke prozesua sistematizatzeko.

Visesaren jarduerekin zerikusia duten ingurumen-alderdiak urtean behin identifikatzen dira, salbu eta erakundeak egiten dituen jardueretan aldaketa nabarmenak badaude edo jarduerak berriak abiarazten badira.

### 3.1 – INGURUMEN-ALDERDIAK IDENTIFIKATZEKO ETA EBALUATZEKO METODOLOGIA

Aintzat hartuta ingurumen-alderdiak ingurumenarekin elkarreaginean egon daitezkeen erakunde bateko elementuak direla, Visesak ingurumen-alderdi zuzenak (ohiko egoeretan, ezohiko egoeretan eta arrisku-egoeretan) eta zeharkako ingurumen-alderdiak bereizten ditu.

#### ***Ingurumen-alderdi zuzenak***

Ingurumen-alderdi zuzenak Visesaren jarduerekin, produktuekin eta zerbitzuekin dute zerikusia, baldin eta Visesak kontrol zuzena badu horien kudeaketan. Honako hauek dira, besteak beste, ingurumen-alderdi zuzenak:

- Energiaren, materialen eta baliabide naturalen kontsumoa edo erabilera
- Isuriak
- Hondakinak
- Lurzoruaren okupazioa
- Atmosfera egindako igorpenak Zarata
- Etab.

Horiek funtzionamendu-egoeraren arabera sailkatzen dira (ohikoa, ezohikoa eta larrialdi-egoera):

- Ohiko egoera: kontrolatzen den jarduerak ohi bezala eta planifikatutakoari jarraikiz funtzionatzen du.
- Ezohiko egoera: egoera irregularra eta/edo bitxia. Testuinguru honetan, oso maiz gertatzen ez den edozein egoera har daiteke ezohikotzat edo anormaltzat; adibidez, mantentze-lanetan noizean behin egin beharreko jarduerak.
- Larrialdi-egoera: arrisku bati lotuta dago (kalte baten kontingentzia edo hurbiltasuna), eta ingurumenari, pertsonari eta ondasunari kalteak eragiteko arriskua baloratzen da.

#### ***Ingurumen-alderdi zuzenak ebaluatzeke irizpideak***

Ingurumen-alderdi zuzenak ebaluatzeke, aurretiaz definitutako eta egiaztatutako ebaluazio-irizpide batzuk aplikatzen dira, zer ebaluatzen den. Irizpide horiei jarraikiz, puntuak ematen dira, alderdi bakoitzari ematen zaion garrantziaren arabera kuantifikatzeko. Zehazki, honako alderdi hauek ebaluatzen dira:

- Ohiko egoeretakoa alderdiak: Alderdi horiek ebaluatzeke parametroak magnitudea, toxikotasuna eta/edo arriskua baloratzen dira. Alderdi bakoitza neurketa-unitate propioen bidez ebaluatzen da, eta, horretarako, Visesak balorazio-eskala bat ezarri du, hein hauekin: 2, 6 eta 10.

- Ezohiko egoeretako alderdiak: Gertakari hori jazotzeko probabilitatea edo maiztasuna eta/edo ondorioen larritasuna dira ebaluatzen diren parametroak; 2, 6 edo 10 puntu jaso dezake irizpide bakoitzak, aurretiaz ezarritako eskalaren arabera.
- Larrialdi-egoeretako alderdiak: Gertakari hori jazotzeko probabilitatea edo maiztasuna eta/edo ondorioen larritasuna dira ebaluatzen diren parametroak; 2, 6 edo 10 puntu jaso dezake irizpide bakoitzak, aurretiaz ezarritako eskalaren arabera.

## **Zeharkako ingurumen-alderdiak**

Ingurumenaren arloko zeharkako alderdiak Visaren jardueren, produktuen eta zerbitzuen eta hirugarrenen arteko elkarreraginaren emaitzekin daude lotuta, hirugarrenengan eragina izan dezaketelako, neurri batean.

Visesak honako azpikontratazio hauei lotutako zeharkako ingurumen-alderdiak ebaluatzen ditu:

- Kontraten eta hornitzaileen ingurumen-kudeaketa
- Proiektuen diseinua
- Diseinuko egiaztagiri energetikoa eraikuntza-proiektuetan
- Obretako ingurumena kudeatzeko sistemak
- Zerbitzu energetikoen kontrola Visaren beraren sustapenetan Lurzoruetan sustapenak, berroneratzeak eta urbanizatzeak egitea

## **Zeharkako ingurumen-alderdiak ebaluatzeko irizpideak**

Zeharkako ingurumen-alderdiak ebaluatzeko, aurrez zehaztutako eta onetsitako ebaluazio-irizpide batzuk erabiltzen dira, zer ebaluatzen den. Hauek dira irizpideak:

- Influentzia: norbaiti eragiteko gaitasuna.
- Fakturazioa: zerbitzuen prestazioagatik fakturazioaren edo konpentsazio ekonomikoaren zenbatekoa.
- Ingurumena kudeatzeko sistema: erakunde batek (hornitzaileek) zein neurritan kudeatzen duen ingurumena eta zein neurritan jarduten duen modu arduratsuan ingurumenarekiko.
- Kezka/aukera: Kanpoko interesdunak eta Visesa kezkatzen dituen ingurumenaren arloko gairen batean jarduteko edo batera lan egiteko aukera egotea.
- Ekodiseinua: Produktuaren diseinuan aplikatutako ekodiseinuaren maila; izan ere, maila horren arabera kudeatzen dira (identifikatu eta ebaluatu) ingurumen-alderdiak.
- Ebaluatzen diren beste parametro batzuk eragina eta ingurumen-inpaktua dira.

Irizpide horietako bakoitza neurketa-unitate propioen bidez ebaluatzen da. Visesak eskala bat sortu du horretarako, eta irizpide bakoitza 2, 6 edo 10 punturekin kalifikatu daiteke.

## **Ingurumen-alderdiak ebaluatzea**

Ingurumen-alderdiak kuantifikatu eta gero, Visesak gutxienez urtean behin aplikatzen dizkio aurretiaz ezarritako ebaluazio-irizpideak alderdi bakoitzari (zuzena, arriskukoa edo zeharkakoa). Horretarako, aurretiaz erabaki eta ebaluazio-prozeduran jasota dagoen kalkulu-formula bat aplikatzen da, eta, modu horretan, alderdi bakoitzak zer-nolako garrantzia duen jakin daiteke, zenbakizko balio baten bidez.

Kategoria bakoitzerako gehieneko balioak ere aurretiaz ezarrita daude, eta, horrenbestez, balio hori bera lortu edo gainditzen duten alderdi guztiak jotzen dira esanguratsuzat. Ondorioz, erakundeak aztertu egin behar du zein eragin duen ingurumenean alderdi horrek, baita eragin horren gainean jarduteko ingurumen-arloko helburu bat ezarri beharrik dagoen edo ez ere.

## 3.2 – EBALUAZIOA: ALDERDI ESANGURATSUAK

Metodologia hori erabilia, Visesak 2021ean, alderdien ebaluazioa egin zuen 2020ko alderdien datu kuantitatiboan itxieran oinarrituta.

Beheko taulan daude jasota **esanguratsutzat jo ziren zuzeneko alderdiak**. Bertan dago adierazita horietatik zeinetan ezarri zituen Visesak 2021ean ingurumena hobetzeko helburuak:

ALDERDI ZUZEN ESANGURATSUAK	LANTOKIA	INGURUMENEAN DUEN ERAGINA	BADAGO HONI LOTUTAKO HELBURURIK?
<b>Tonerraren kontsumoa</b>	Bizkaiko HHB	Baliabide naturalak agortzea Hondakinak sortzea Hondakinen bidez ingurumena kutsatzea Basoak eta biodibertsitatea galtzea	<b>EZ</b>
<b>Pila-hondakinak sortzea</b>	Bizkaiko HHB	Baliabide naturalak agortzea Hondakinen bidez ingurumena kutsatzea Biodibertsitatea galtzea	<b>EZ</b>
<b>Gailu eta ekipo elektronikoen hondakinak (GEEH) sortzea</b>	Bulego Nagusia	Baliabide naturalak agortzea Hondakinen bidez ingurumena kutsatzea Biodibertsitatea galtzea	<b>EZ</b>

Ingurumen-programan ez zen helburu espezifikorik ezarri esanguratsutzat jotako ingurumen-alderdientzat; izan ere, horietan guztietan igoerak minimoak izan dira, batez ere, langileak murriztu egin zirelako Bizkaiko HHBan eta ekipoak berriro egin zirelako bulego nagusian sortutako azken alderdiari dagokionez.

Hala ere, gure erakundeak alderdi horien eboluzioaren jarraipena eta kontrola egiten dugu, ezohiko portaerak detektatuz gero, horren arabera jarduteko. Gainera, Visesak lehentasunezkoztat eta beharrezkoztat jotzen du aplikatzen ari diren askotariko politikekin jarraitzea, besteak beste, honako sistematika hauekin:

- Gelatan birmoldaketak egingo dira edo erre egindako argiak aldatuko dira kontsumo eraginkorragoa izango duten beste batzuegatik (LED).
- Norbanakoarentzako inprimatze-ekipoak ordeztu eta funtzio anitzeko ekipo eta inprimagailuak jarriko dira, taldean erabiltzekoak, gutxieneko ingurumen-irizpideak beteko dituztenak.
- Energy Star pantailak eta ekipoak. Modelo estandarrak parkea optimizatzeke eta ordeztuko pieza estandarrak erabiliko dira.
- Plastikozko materialen ordeztukoak bilatuko dira (edalontziak, ur-bidoiak, karpetak eta antzekoak).

**Ezohiko egoeratan eta larrialdi-egoeratan zuzenean sortutako ingurumen-alderdiei** dagokienez, ez zen egoera horiekin lotutako ingurumen-alderdi esanguratsutik identifikatu, beren eragin nagusia ur eta lurzoruetan izan daitekeen kutsadurarekin lotzen badugu.

Honako hauek dira **esanguratsutzat jo ziren zeharkako alderdiak**:

ZEHARKAKO ALDERDI ESANGURATSUAK	LANTOKIA	INGURUMENEAN DUEN ERAGINAERAGINA	BADAGO HONI LOTUTAKO HELBURURIK?
<b>1 hornitzailearen ingurumen-portaera</b>	Erakunde osoa	Baliabide naturalak agortzea	<b>EZ</b>
<b>Zerbitzu energetikoak (sortutako elektrizitatea eta berreskuratutako beroa)</b>	A30-AR1 A30-AR2 A27	Klima-aldaketa Baliabide naturalak agortzea Isuriak eta partikulak sortzea	<b>BAI</b>

Lantokietako **hornitzaileen eta kontraten ingurumen-portaeraren** ebaluazioan hornitzaile bakarra izan zen esanguratsua eta erabaki zen hornitzaile horrekin berariazko ekintzarik ez egitea, ingurumen-ziurtagiririk ez badu ere, hondakinen kudeaketa egokia egiten baitu. Urtero, Visesak bere hornitzaileen eta kontraten ingurumen-kudeaketaren mailaren ebaluazioa egiten du.

Bestetik, helburu espezifikoak ezarri ziren **zerbitzu energetikoen** jardueran, zerbitzu horiek eskaintzen diren sustapenetako instalazioen mantentze-lanen prozesuari berari lotutako ekintzen bidez (2021eko ingurumen-programaren 3. helburua). Horrela deitzen dira zerbitzu energetikoak eskaintzeko erabilitako kogenerazio-motorrak: A30 AR1 (103 etxeb.), A30 AR2 (100 etxeb.) eta A27 (242 etxeb.). Hiru motor horiek 445 etxebizitzari eskaintzen diete zerbitzu energetikoa.

## 4. 2021EKO INGURUMEN-PROGRAMA

Esanguratsutzat jo diren ingurumen-alderdi guztiak hartzen dira aintzat Visesaren ingurumen-arloko helburu eta xedeak ezartzeko. Ingurumen-alderdi esanguratsu guztiek ez dute garrantzi/adierazgarritasun bera. Dena den, ebaluazio-prozesuak berak ematen du garrantzi/adierazgarritasun hori baloratzeko aukera.

Helburu batzuk Visesaren 2021eko Kudeaketa Planean daude sartuta, beren mailagatik edo izaeragatik, erakundearen estrategiarekin lerrokatuago daudelako; aldiz, helburu operazionalak Prozesuen, Kanpoko Komunikazioaren eta Sistemen Sailean koordinatu eta kudeatzen dira, sail hori baita Visesako EMAS ingurumena kudeatzeko sistemaren arduraduna. Zuzendaritza Batzordeak onesten ditu Ingurumen Programaren barruan ezarritako helburuak; modu koherentean daude integratuta erakundearen gainerako politika estrategikoetan, eta zuzendaritzek hartzen dute beren gain bakoitzari dagokion helburua kudeatzeko ardura.

Helburuak urtean behin ezartzen dira, eta kuantifikagarriak eta egingarriak izan behar dute, ahal den neurrian. Halaber, bat etorri behar dute ingurumen-politikarekin, barne hartuta etengabeko hobekuntzak ingurumena babesteko dakarren konpromisoa.

Hona hemen Visesak 2021erako egindako ingurumen-programa eta helburuak zein neurritan bete diren aztertzen duen analisia:



**2021EKO INGURUMEN-PROGRAMA**

1. HELBURUA		EKINTZAK	ARDURADUNA BALIABIDEAK
Definizioa	Adierazlea		
<b>Visesaren lizitazioen ingurumen-irizpideak maximizatzea Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdeko Plan bati atxikiz eta, ondoren, plan hori garatuz</b> <i>(ALDERDI ZUZENAK. Aukera)</i>	<b>2021eko Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdeko Programan lehenetsitako produktu-multzoen kasuan ingurumen-irizpideak kontratazioen % 70ean aplikatzea</b>	2021eko Ingurumen Onurarako Planarekin jarraitzea: erosketa eta kontratazioetan ingurumen-irizpideak ezartzea. -Barneko erosketa-eta kontratazio-sistematikan ingurumen-aldagaia txertatzea. -2021eko emaitzak lhoberi jakinaraztea. EPEA: 2021eko abendua	Erosketa Publiko Berdeko Batzordearen taldea (Kontratazio arduraduna, Arkitektura arduraduna, Zerbitzu Orokorraren arduraduna) Barne-dedikazioa: 30 h

2021. urtean, ingurumen-irizpideak txertatzen jarraitu dugu egindako lizitazio eta erosketetan. Kontratatutako bolumenaren % 100k ingurumen-irizpideak dituzte. Gure lizitazio eta erosketen ingurumen-irizpideen adibideak:

- Bulego-materialaren hornitzaileak: kontratuak barne hartzen ditu ingurumen-irizpideak (10 puntu) karbono-aztarnari buruzko informazioa (4 puntu), egindako eskaeren ingurumen-analisiaren informazioa (4 puntu) eta enbalajearen optimizazio minimoa duten eskarien harrera (2 puntu). Urtero, bulegoko materialen erosketei buruzko ingurumen-balantzea jasotzen dugu.
- Ibilgailuak: 2017tik 2021era, lehendik zeuden ibilgailuen ordez (gasolioa) ibilgailu hibrido/elektrikoak jartzeko politika sustatu da (2021ean, 14 ibilgailuko flota osoa ordeztzea lortu da), eta, gainera, 2021ean kargatzeko puntuen instalazioa ere amaitu da (12 ibilgailu elektriko kargatzeko ahalmena Arabako Egoitza Nagusiaren eta Bizkaiko HHBaren artean).
- Ingurumen-irizpideak dituzten beste enpresa hornitzaile batzuk: eraikuntza-proiektuak idaztea, eraikuntza-obrak, cateringa, garbiketa edo mezularitza.

2021ean, 367 kontratazio egin dira obra-kontratuen, zerbitzuen eta horniduren artean.

Bestalde, 2019an Eusko Jaurlaritzaren energia berriztagarrien kontratura atxiki ondoren, Visesaren egoitza guztietan kontsumitzen den energiaren % 100 berriztagarria da.

**Helburuaren % 100 bete da.** 2022ko Ingurumen Programaren helburu/proiektu gisa planteatzen da berriz ere; izan ere, Visesa erosketa eta kontratazio berdearen programa berrira atxiki da berriro, eta arlo horretan jarduten jarrai daiteke.

2021 KPko proiektuak, 1. ingurumen-helburu honekin lotutakoak. 2021/12/31n jarraipena:

- 58. Erosketa Publiko Berdea + 2021eko emaitzak lhoberi jakinaraztea. Visesa erosketa berdearen programa berrira atxiki da eta lhoberekin 2020-30 plan berria lantzen ari gara. Urtero egiten da Ingurumen Onurarako Plana, lhobek bere programan jasotzen dituen produktuen kontratazio guztiak sistematikoki egokitzen dira eta emaitzak jakinarazten dira. *2021KPren barruan proiektu honen betetze-maila: % 100*

**2021EKO INGURUMEN-PROGRAMA**

2. HELBURUA		EKINTZAK	ARDURADUNA BALIABIDEAK
Definizioa	Adierazlea		
<b>Bulegoetako energia-kontsumoa minimizatzea (bulego nagusia, Arabako HHB, Bizkaiko HHB eta Gipuzkoako HHB) (ALDERDI ZUZENAK. Aukera)</b>	<b>Visesako ibilgailu-flotaren gasolioaren ondoriozko isuriak % 5 murriztea (CO<sub>2</sub> kg/pertsona)</b>	4/2019 Legea, 25/2019 Dekretua eta 254/2020 Dekretua aplikatzen jarraitzea, efizientzia eta jasangarritasun energetikoa hobetzeko, batez ere Euskadiko erakunde publikoena. EPEA: 2021eko abendua	Zerbitzu Nagusien arduraduna. Barneko dedikazioa: 25 h

Visesaren flotako ibilgailuek 3.174 litro gasolio kontsumitu dituzte 2021ean, eta 4.001 litro 2020an. Horrek esan nahi du erregai hori % 26,06 murriztu dela kontsumoari buruzko datu absolutuetan. Pertsona bakoitzeko CO<sub>2</sub> kg-ko isuriei dagokienez, MITECOren 2022ko ekainaren 26ko bertsioko karbono-aztarnaren kalkulagailuaren arabera gasolioari aplikatu dakizkiokeen isurifaktoreak aintzat hartuta, pertsona bakoitzeko CO<sub>2</sub> kg-ko % 21,59ko murrizketa erregistratu da, hau da 2020an pertsona bakoitzeko 118,61 CO<sub>2</sub> kg isurtzen ziren eta 2021ean pertsona bakoitzeko 93 CO<sub>2</sub> kg.

**Helburuaren % 100 bete da.** 2022ko Ingurumen Programaren helburu/proiektu gisa planteatzen da berriz ere; izan ere, arlo horretan hobetzen jarraitzeko marjina dagoela uste da.

Azken urteetan energia-kontsumo orokorrean egindako jardunbide egokiak aplikatzen jarraitzen dugu, energia-kontsumoaren datua 2017an 436.735 kWh izatetik 2021ean 295.408 kWh-ra murriztea lortu baita (2017an baino % 32,3 kontsumo txikiagoa). Honako hauek dira jardunbide egoki horietako batzuk:

- Ibilgailuak ingurumen-portaera hobeko erregaia duten beste ibilgailu batzuekin ordeztzea (hibridoak/elektrikoak)
- Sektore publikoan jasangarritasun energetikoari buruzko Dekretua aplikatzea.
- Egoitzen kokaleku berriak jasangarritasun-estandar handien arabera diseinatzea (A kalifikazioa).
- Egoitza guztietan elektrizitate % 100 berriztagarria kontsumitzea.

2021 KPko proiektuak, 2. ingurumen-helburu honekin lotutakoak. 2021/12/31n jarraipena:

- 86. Jasangarritasunari buruzko Dekretuaren ondoriozko Ekintza Plana - Mugikortasun Plana, ziurtagiriak eta bestelakoak. Arabako Egoitza Nagusian eta Bizkaiko HHBan egindako energia-ziurtagiriak eta energia-auditoretzak. Innobabiden alta emanda, ibilgailu-flota aldatzea: % 75 energia berriztagarria dutenekin aldatuta eta beste % 25 aldatzeko zain, baita kargatzeko puntuak ere, erabileren eta kontsumoen analisiak egin ondoren. Mugikortasun-plana egiteke. *2021KPren barruan proiektu honen betetze-maila: % 75*

## 2021EKO INGURUMEN-PROGRAMA

3. HELBURUA		EKINTZAK	ARDURADUNA BALIABIDEAK
Definizioa	Adierazlea		
Zerbitzu energetikoen motorren errendimendua maximizatzea (ZEHARKAKO ALDERDIAK)	3 motorretako bakoitzaren funtzionamenduaren ordu-kopurua % 5-10 handitzea (A30AR1-A30AR2-A27)	Zerbitzua ematean hobeezina izango litzatekeenarekin alderatuta funtzionamendu errealak izan ditzakeen desbideratzeak zuzentzeko beharrezkoak diren mantentze-enpresa hornitzaileak bilatzea. EPEA: 2021eko abendua	Berrikuntza eta Jasangarritasunaren arduraduna. Barne-dedikazioa: 25 h

Zerbitzu energetikoak eskaintzen dira jabeen erkidegoentzat ESCO (Energy Services Company) modura, etxeko ur beroa (EUB) eta berogailua hornitzeko, galdara-gelaren mantentze-lanetarako eta eraginkortasun handiko kogenerazio-instalazioetan (aldi berean beroa eta elektrizitatea sortzen dute) sortutako energia saltzeko.

Zerbitzu energetikoak eskaintzen dizkiegu babes publikoko 242 etxebizitzetako Jabeen Erkidegoei. Helburua da babestutako etxebizitzaren erabiltzaileak bihurtzea, laguntzarekin, beren energia-sistemen kudeatzaileak, funtzionamendua teknikoki eta ekonomikoki optimizatuta.

Funtzionamenduaren ordu-bolumena honako hau izan da:

Kogenerazio-motorra	2021eko orduak 2020ko orduen aldean	Errendimendua % (2021-2020)
A30 AR1 (103 etxeb.)	0 h (2021) < 0 h (2020)	Errendimenduaren % 0 2021ean
A30 AR2 (100 etxeb.)	3.206 h (2021) > 2.230 h (2020)	2021ean errendimendua % 44 handiagoa
A27 (242 etxeb.)	916 h (2021) < 1.124 h (2020)	2021ean errendimendua % 18,5 txikiagoa

A30AR1 motorra: 2020. urtearen hasieran plaka elektronikoa bat matxuratu zen eta bi urte hauetan geldirik egon da (ez dago plakaren identifikazio-daturik eta ez dago ordezko piezen erreferentziarako enpresarik).

A27 motorra: iaz baino gutxiago eta maila optimotik oso urrun (3.200 – 3.700 h/urte gutxi gorabehera) egin du lan.

**Helburuaren % 33 bete da:** hiru motorretako baten adierazlea baino ez da bete. Helburua ez da berriro planteatu 2022an; izan ere, aurtengo apiriletik aurrera Visesak utzi egin zion energia-zerbitzu hori erkidegoei emateari, ezarritako 10 urteko kontratua amaitu ondoren.

2021 KPko proiektuak, 3. ingurumen-helburu honekin lotutakoak. 2021/12/31n jarraipena:

- 36. Energia-zerbitzuen jardueraren kudeaketa: Zerbitzua ematean hobeezina izango litzatekeenarekin alderatuta funtzionamendu errealak izan ditzakeen desbideratzeak zuzentzeko beharrezkoak diren mantentze-enpresa hornitzaileak bilatzea. 2021KPren barruan proiektu honen betetze-maila: % 100
- 37. Jarduera eta titulartasuna A30 eta A27 sustapenen jabeen erkidegoei eskualdatzeko prestatzea (energia-kudeaketaren kontratuaren azken urtea).2021KPren barruan proiektu honen betetze-maila: % 80

### 2021EKO INGURUMEN-PROGRAMA

4. HELBURUA		EKINTZAK	ARDURADUNA BALIABIDEAK
Definizioa	Adierazlea		
Erakundeko pertsona guztien parte-hartzea eta sentsibilizazioa maximizatzea Visesaren ingurumen-aldagaien (ZEHARKAKO ALDERDIAK. Aukera)	2021erako ekintzen % 50 lortzea	Ingurumen Batzordea abian jartzea, Visesan ingurumen-estrategia koordinatzeko lankidetzatresna baten bidez. EPEA: 2021eko abendua	Ingurumen Batzordeko taldea (40 h)
		Ingurumen-adierazleak Balance Intelligence (BI) tresnara eramaten hastea, Visesako pertsonen ingurumen-sentsibilizatorako abiapuntu gisa. EPEA: 2021eko abendua	Prozesu eta Sistemetako teknikaria Barne-dedikazioa (40 h)

2021ean, Ingurumen Batzordea abiarazi zen; izan ere, Visesaren barruan estrategia, helburuak, jarduerak eta ingurumen-erantzukizuna duten pertsonak bateratzeko eta lerrokatzeko foro bat ezartzeko beharra antzeman eta onartu zen (Erosketa Berdea, Jasangarritasunari buruzko Dekretua, EMAS, proiektuak, obrak...).

Zehazki, Ingurumen Batzorde horren egitura eta etorkizuneko antolamendua definitu da: Batzordean parte hartuko duten pertsonak identifikatzea, Visesan sartu beharreko ingurumen-eremuak identifikatzea, ingurumen-mapa orokorra definitzea... Horrez gain, Batzordean jarraipena egiteko hasieran zer adierazle behar diren identifikatu da, eta horiek kudeatzeko tresnaren bat erabili beharra zehaztu da, zehazki, Business Intelligence.

**Helburuaren % 35 bete da** eta 2022ko Ingurumen Programaren helburu/proiektu izaten jarraituko du.

2021 KPko proiektuak, 4. ingurumen-helburu honekin lotutakoak. 2021/12/31n jarraipena:

- 50. Ingurumen Batzordea abiaraztea, Visesan ingurumen-aldagaia koordinatzeko lankidetzatresna baten bidez + Adierazleak BI tresnara eramaten hastea: Diseinua eginda baina abian jartzeke dago. 2021KPren barruan proiektu honen betetze-maila: % 50.
- 87. Kontsumo arduratsuari buruzko gidak egitea: ibilgailuei eta horien erabilerari buruzkoa argitaratu da. Covid neurriak lehenetsi dira, eta, kasu batzuetan, kontsumo arduratsuari buruzko neurriekin talka egiten dute. 2021KPren barruan proiektu honen betetze-maila: % 20

### 2021EKO INGURUMEN-PROGRAMA

5. HELBURUA		EKINTZAK	ARDURADUNA BALIABIDEAK
Definizioa	Adierazlea		
<b>ZAINTZA TEKNOLOGIKOA</b> Parte-hartze aktiboa BIM-SPEED proiektuan, birgaitze-kasu batean (ZEHARKAKO ALDERDIAK) <u>Iraupena: 4 urte (2018tik 2022ra).</u>	2021eko ekintzen % 90 betetzea	BIM-SPEED proiektuan parte-hartzea benetako birgaitze-kasu batekin, proiektuan zehar garatuko den tresna ezartzeko erabili dadin. EPEA: 2021eko abendua	Zuzendari teknikoa Kudeaketa-planak zehaztutako baliabideak

BIM-SPEED proiektuaren helburua da European eraikinen birgaitzearen eraginkortasuna hobetzea. Eraikinen birgaitze-proiektuen bizi-ziklo osoarentzat informazio integratua duen datu-base bat eskaintzen du: dagoen eraikinari eta eraikin horrek izandako berriztatzeei buruzko hasierako datu-bilketatik, birgaitze bat bukatu ostean neurtutako eraikinaren azken errendimendura. Visesak sustapen batekin hartzen du parte, benetako birgaitze-kasu batekin, proiektuan zehar garatuko den tresna ezartzeko erabili dadin. Zehazki, 12 eta 8 etxebizitzako bi eraikin dira.

2021ean, hiru "Train the trainers" tailer egin dira proiektuan garatutako tresnei buruz eta "BIM competition" lehiaketa egin da ikasle eta profesionalentzat, hirugarren BIM Industry Day abiarazi da eta Partzuergoaren Biltzar Nagusia egin da.

**Helburuaren % 100 bete da** eta 2022ko Ingurumen Programaren helburu/proiektu izaten jarraituko du.

2021 KPko proiektuak, 5. ingurumen-helburu honekin lotutakoak. 2021/12/31n jarraipena:

- 40. BIM SPEED Europako proiektua. 2022ko azaroa bitartean iraungo du. Aurreikusitakoaren arabera egin da proiektua eta Europako kontratuan dago konprometituta. 2021KPren barruan proiektu honen betetze-maila: % 100

**2021EKO INGURUMEN-PROGRAMA**

6. HELBURUA		EKINTZAK	ARDURADUNA BALIABIDEAK
Definizioa	Adierazlea		
<b>ZAINZA TEKNOLOGIKOA</b> <b>CO<sub>2</sub> gabeko hiri adimentsuak</b> <b>sortzeko europar estrategia</b> <b>garatzea (SmartEnCity).</b> <i>(ZEHARKAKO ALDERDIAK)</i> <b>Iraupena: 5,5 urte</b> <b>(2015etik 2021era)</b>	<b>2021eko</b> <b>ekintzen % 80</b>	-Askotariko sustapenak eta horiek ezartzeko faseak planifikatzea. -Amaierako fasearen hasiera eta ondorioak. EPEA: 2021eko abendua	Zuzendari teknikoa Berrikuntza eta Jasangarritasunaren arduraduna. Kudeaketa-planak zehaztutako baliabideak

SmartEnCity (2016-2021) H2020 "Hiri eta Erkidego Adimendunak" izeneko Europako I+G+b-ko programak finantzatutako proiektu bat da. Bere helburua CO<sub>2</sub> gabeko hiri adimentsuen estrategia komun bat diseinatzea da. Visesa proiektuaren tokiko koordinatzailea eta guztira 302 etxebizitza dituzten jabeen 26 erkidegoren birgaitze-energetiko integralaren arduraduna da.

2021. urtea garrantzitsua izan da SmartEncity birgaitze energetikoko proiektuarentzat; izan ere, atxikitako 26 erkidegoen obrak amaitu dira eta etxebizitzak monitorizatzeko azken fasea hasi da.

Halaber, aurten Koroatze auzoko proiektuak aitortpena jaso du. Hala, 2021ean, Etxebizitza eta Lurzoruaren Kudeatzaile Publikoen Espainiako Elkarteak (AVS) saria eman dio proiektu horri hiri-birgaitze eta -suspertze kategorian. Halaber, Euskadin Quality Innovation Day (QIA) saria jaso du, sektore publikoaren kategorian. Eta, horiez gain, Administrazioak SmartEnCity-Koroatze proiektuan izan duen zeregin berritzailea aitortu da, "eragile ordezkari" baita birgaitzea sustatzeko. Zeregin horretan, birgaitze-lanen diseinu eta exekuzio egokia izapidetu, kontratatu, gainbegiratu eta kudeatzeaz gain, laguntzen kudeaketaz ere arduratzen da onuradunen izenean, eta "giltza eskuan" amaierako produktua entregatzen die.

Bestalde, dagoeneko auzotarrek proiektu horrek ekarritako onura handiak ezagutu dituzte:

- Sozialak: hobekuntzak etxebizitzaren erosotasunean, autogestiorako aukera, hobekuntza auzoaren irudian eta berriztatutako etxebizitzaren errebalorizazioa.
- Ingurumenekoak: A energia-ziurtagiriak etxebizitza guztietan, % 50eko murrizketa berogailuaren eskari energetikoan eta % 90eko murrizketa CO<sub>2</sub>ko isurietan.
- Ekonomikoak: Europako Batzordetik, Vitoria-Gasteizeko Udaletik eta Eusko Jaurlaritzatik errenten arabera jasotako dirulaguntzei esker birgaitutako etxebizitzentzat. Bertako auzotarrak ahaztu gabe, lana sortu baita; eskualdeko eta inguruko enpresa-sareko dozenaka ETEk eta mikroETEk onura atera dute, eta, horrela, zerga-itzulketak lortu da.

**Helburuaren % 100 bete da.**

2021 KPko proiektuak, 6. ingurumen-helburu honekin lotutakoak. 2021/12/31n jarraipena:

- 38. SmartEnCity Europako proiektua: Proiektuak 22/07/31ra arte iraungo du. Birgaitzeekin atera (2021eko udazkenean amaituak), Europako ordezkagarritasun- eta jakinarazpen-ekintza guztiak, tokiko partzuergoaren koordinazioa, emaitzen monitorizazioa, erreplikazioa eta zabalkundea biltzen ditu. *2021KPren barruan proiektu honen betetze-maila: % 100*

## 5. VISESAREN INGURUMEN-PORTAERAREN DESKRIBAPENA

Erakundearen aurkezpenean adierazi den bezalaxe, Visesa Gasteizko Bulego Nagusiak eta Bilboko, Donostiako eta Gasteizko Herritarrei Harrera egiteko Bulegoek (HHB) osatzen dute. Gasteizko HHBa Bulego Nagusiaren etxabea dago, eta, beraz, ingurumen-portaera neurtzen duten adierazleak kuantifikatzeko eta kalkulatzeko, lantoki bakar gisa hartzen dira aintzat. Gauzak horrela, eta erakundearen ingurumen-adierazleak zein diren azaltze aldera, hiru egoitzari lotuta agertuko dira:

- ARABAKO Egoitza Nagusia (Bulego Nagusia + Gasteizko Herritarrei Harrera egiteko Bulegoa)
- BIZKAIKO HHB (Bizkaiko Herritarrei Harrera egiteko Bulegoa)
- Gipuzkoako HHB (Donostiako Herritarrei Harrera egiteko Bulegoa)

Jarraian azalduko ditugun ingurumen-adierazleak ingurumen-alderdi zuzenekin daude lotuta, eta Visesaren portaeraren berri ematen dute modu ulergarri eta zehatzean.

Honako osagai hauek dauzkate oinarrizko adierazle guztiak:

- **A zifra:** aintzat hartutako esparruan egin den urteko guztirako eragin/kontsumoa neurtzen du.
- **B zifra:** urteko guztirako produkzioa. Aintzat hartuta Visesaren jarduera nagusia zerbitzuak direla, urteko guztirako produkzioa neurtzeko unitatea pertsonak dira. 2021ean eta aurreko urteetan hau izan da pertsona kopurua:

PERTSONA KOPURUA EGOITZETAN		2019		2020		2021	
▪ Bulego Nagusia	▪ Arabako Egoitza Nagusia	73	77	70	76	70	75
▪ Arabako HHB		4		6		5	
▪ Bizkaiko HHB		6		5		7	
▪ Gipuzkoako HHB		5		4		4	
<b>Bulegoak, guztira</b>		<b>88</b>		<b>85</b>		<b>86</b>	

B zifrak, horrenbestez, egoitza bakoitzeko dagoen pertsona kopurua adierazten du, dagokion urtean.

- **R zifra:** A/B harremana.

Jarraian dator Visesako hiru egoitzetako oinarrizko adierazleei buruzko informazioa:

## 5.1 – ENERGIA

Atal honetan, egoitza bakoitzaren energia-eraginkortasunari buruzko datuak biltzen dira energia-kontsumoari dagokionez: **energia-kontsumo zuzena guztira**, **energia berriztagarriaren kontsumoa guztira** eta **energia berriztagarriaren sorrera guztira**.

Energia-kontsumoak barne hartzen ditu bulegoetako energia elektrikoaren kontsumoa eta Visesaren egoitza bakoitzari lotutako ibilgailuen erregai-kontsumoa. Datuak enpresa hornitzailearen fakturetatik lortzen dira. 2021eko ingurumen-adierazpen horretan, lehen aldiz sartu da ibilgailu elektrikoek kontsumitzen duten energia elektrikoa. Gainera, urte honetatik aurrera energia neurtzeko unitateak MWh-tik kWh-ra aldatuko dira, kontsumitutako kopuruari buruzko datuak eta aurkeztutako efizientzia-adierazleak (A zifra eta R zifra) Visesaren errealitatearekin bat datozen zenbakiak izan daitezzen.

Aurkezten diren datuak hornitzailearen fakturetatik lortu dira. Erregai-kontsumoaren datuak kWh-ra pasatzeko, honako hau erabili da: “Guía para la cumplimentación de líneas de actuación en la plataforma MENAE. MITECO-IDAE. Madril, 2019ko martxoaren 19a.

### Energia kontsumo zuzena guztira

5.1. Energia atal honetan aurkeztutako datu guztietan egiaztatzen da 2021ean kontsumitutako kopuruaren (A zifra) emaitzak 2020an kontsumitutako kopurutik lortutako balioak baino handiagoak direla. Visesak argitu nahi du egoera hori ez dela gertatzen kontsumoaren kudeaketa energetiko desegokiaren ondorioz, 2020an gertatutako COVIDaren pandemia egoeraren beraren ondorioz baizik. Urte horretan pandemia-egoerak eragin zuen konfinamenduak emaitza nagusiak hauek izan zituen: egoitzetako kontsumo elektrikoaren jaitsiera orokorra eta bulegoetako ibilgailuekin egindako joan-etorrien kopuruaren jaitsiera nabarmena.

Ezohiko egoera hori dela eta, 5.1. Energia atal honetako iruzkinetan 2021. eta 2019. urteetan A eta R zifretan lortutako emaitzak aipatzen dira; izan ere, uste da alderaketa hori koherenteagoa dela ohiko jarduerarekin, eta, gainera, Visesak gauzatzen dituen kudeaketa-jardunbide egokien emaitza egiaztatzen du.


## ARABAKO EGOITZA NAGUSIA

### ARABAKO EGOITZA NAGUSIKO ENERGIA-KONTSUMO ZUZENA, GUZTIRA, ENERGIA MOTAREN ARABERA:

ENERGIA ARABAKO EGOITZA NAGUSIA	A zifra	B zifra	R zifra = A/B
	Kontsumoa (kWh)	Pertsona kop.	Efizientzia-adierazlea (kWh/pertsona)
<b>ELEKTRIZITATEA</b>			
Elektrizitatea 2021	189.841	75	2.531
Elektrizitatea 2020	188.357	76	2.478
Elektrizitatea 2019	192.528	77	2.500
<b>IBILGAILUEN ERREGAIA</b>			
Erregaia 2021	85.557	75	1.141
Erregaia 2020	70.273	76	925
Erregaia 2019	140.291	77	1.822
<b>IBILGAILUEN KONTSUMO ELEKTRIKOA</b>			
2021eko kontsumo elektrikoa	1.153	75	15

(\*) 2019tik elektrizitatea iturri berriztagarrietatik dator %100

(\*\*) 2021etik ibilgailuei lotutako kontsumo elektrikoa dago.



Arabako Egoitza Nagusiko balio absolutuak (kWh) aztertuz gero, 2021eko kontsumo elektrikoa 2019an kontsumitutakoa baino txikiagoa da; zehazki, 2.687 kWh murriztu dira, hau da, 2021eko kontsumoa 2019koa baino % 1,4 txikiagoa da.

Efizientzia-adierazlea (kWh/pertsona) aztertuz gero, ehunekoak ez da txikiagoa; aitzitik, % 1,2 igo da 2019aren aldean; izan ere, Arabako Egoitza Nagusian 2019an 2021ean baino bi pertsona gehiago zeuden plantillan.

Azpitarratzekoa da 2019az geroztik, Arabako Egoitza Nagusiko kontsumo elektriko guztia iturri berriztagarrietatik datorrela (Visesa Eusko Jaurlaritzak sustatutako energia garbiko kontratua sinatu zuen).


Erregaien kontsumoari dagokionez (gasolioa, gasolina eta GLP), balio absolutuek (kWh) behera egin dute nabarmen, zehazki % 39,0 2019. urtearekin alderatuta. Kontsumoaren murrizketa hori efizientzia-adierazlean (kWh/pertsona) ere agertzen da, 2019an % 37,4ko murrizketa gertatu baita.

Erregaien kontsumoaren murrizketa horrek eragina izan du, halaber, 2021ean petrolotik eratorritako erregaiak kontsumitzen dituzten ibilgailuak kontsumo elektrikoaren eboluzio kuantitatiboa, espero da ingurumen-portaera okerragoa duten erregaien kontsumoaren murrizketan zuzeneko eragin proportzionala izatea.

#### **ARABAKO EGOITZA NAGUSIKO ENERGIA-KONTSUMO ZUZENA, GUZTIRA:**

ENERGIA ARABAKO EGOITZA NAGUSIA	A zifra	B zifra	R zifra = A/B
	Kontsumoa (kWh)	Pertsona kop.	Efizientzia-adierazlea (kWh/pertsona)
<b>ARABAKO EGOITZAKO ENERGIA, GUZTIRA</b>			
<b>GUZTIRA 2021</b>	<b>276.551</b>	<b>75</b>	<b>3.687</b>
<b>GUZTIRA 2020</b>	<b>258.630</b>	<b>76</b>	<b>3.403</b>
<b>GUZTIRA 2019</b>	<b>332.819</b>	<b>77</b>	<b>4.322</b>





Energia-kontsumo osoari dagokionez (elektrizitatea + erregaia), efizientzia-adierazleak (kWh/pertsona) 2021ean % 8,3ko jaitsiera izan du 2020. urtearen aldean, bai eta % 14,7ko murrizketa ere 2019. urtearen aldean.


Jardunbide egokiak hedatu eta ezartzearen, ibilgailu hibridoak eta elektrikoak sartzearen eta luminariak eta ekipoak kontsumo txikiagoko beste batzuekin ordezkatzeko politikaren ondorioz, egiazta daiteke azken urteetan (2020an izan ezik) Arabako Egoitza Nagusian energia-kontsumoa (elektrizitatea eta erregaiak) murriztu egin dela orokorrean.

## BIZKAIKO HHB

**BIZKAIKO HHBko ENERGIA-KONTSUMO ZUZENA, GUZTIRA, ENERGIA MOTAREN ARABERA:**


BIZKAIKO HHBko ENERGIA	A zifra	B zifra	R zifra = A/B
	Kontsumoa (kWh)	Pertsona kop.	Efizientzia-adierazlea (kWh/pertsona)
<b>ELEKTRIZITATEA</b>			
Elektrizitatea 2021	11.023	7	1.575
Elektrizitatea 2020	9.023	5	1.805
Elektrizitatea 2019	21.109	6	3.518
<b>IBILGAILUEN ERREGAIA</b>			
Erregaia 2021	0	7	0
Erregaia 2020	2.833	5	567
Erregaia 2019	3.893	6	649
<b>IBILGAILUEN KONTSUMO ELEKTRIKOA</b>			
2021eko kontsumo elektrikoa	791	7	113

(\*) 2019ko abuztutik elektrizitatea iturri berriztagarrietatik dator %100



**BIZKAIKO HHBko ENERGIA-KONTSUMO ZUZENA:**

BIZKAIKO HHBko ENERGIA	A zifra	B zifra	R zifra = A/B
	Kontsumoa (kWh)	Pertsona kop.	Efizientzia-adierazlea (kWh/pertsona)
<b>BIZKAIKO HHBko ENERGIA, GUZTIRA</b>			
GUZTIRA 2021	11.814	7	1.688
GUZTIRA 2020	11.856	5	2.371
GUZTIRA 2019	25.002	6	4.167



Bizkaiko HHBan energia-eraginkortasunaren adierazleak (kWh/pertsona) 2020tik % 28,8ko jaitsiera nabarmena izan du, ibilgailuak ordeztzeko politikaren ondorioz. 2021ean, egoitza horretako ibilgailu bakarra (gasolioa erabiltzen zuen) ibilgailu elektriko batekin ordeztu zen.

Hala ere, kontsumoaren jaitsiera horren atzean 2019. urtearen erdialdean Bizkaian irekitako egoitza berria dago. Izan ere, egoitza berriaren diseinuan kontuan hartu ziren lortutako kontsumo elektrikoetan ageri diren jasagarritasun energetikoari buruzko alderdiak.


Aipatu behar da Bizkaiko HHB berria ireki zenetik (2019ko abuztua) kontsumo elektriko guztia iturri berriztagarrietatik datorrela.

## GIPUZKOAKO HHB

**GIPUZKOAKO HHBko ENERGIA-KONTSUMO ZUZENA, GUZTIRA, ENERGIA MOTAREN ARABERA:**


GIPUZKOAKO HHBko ENERGIA	A zifra	B zifra	R zifra = A/B
	Kontsumoa (kWh)	Pertsona kop.	Efizientzia-adierazlea (kWh/pertsona)
<b>ELEKTRIZITATEA</b>			
Elektrizitatea 2021	4.459	4	1.115
Elektrizitatea 2020	3.793	4	948
Elektrizitatea 2019	6.458	5	1.292
<b>IBILGAILUEN ERREGAIA</b>			
Erregaia 2021	2.584	4	646
Erregaia 2020	2.302	4	576
Erregaia 2019	4.628	5	926

(\*) 2019tik elektrizitatea iturri berriztagarrietatik dator %100



**GIPUZKOAKO HHBko ENERGIA-KONTSUMO ZUZENA, GUZTIRA:**

GIPUZKOAKO HHBko ENERGIA	A zifra	B zifra	R zifra = A/B
	Kontsumoa (kWh)	Pertsona kop.	Efizientzia-adierazlea (kWh/pertsona)
<b>GIPUZKOAKO HHBko ENERGIA, GUZTIRA</b>			
GUZTIRA 2021	7.043	4	1.761
GUZTIRA 2020	6.095	4	1.524
GUZTIRA 2019	11.086	5	2.217



Gipuzkoako HHBan energia-eraginkortasunaren adierazleak (kWh/pertsona) % 20,6ko jaitsiera izan du 2019. urtearekin alderatuta, nahiz eta % 15,6ko igoera izan duen 2020. urtearekin alderatuta. 2019an, egoitza horretako ibilgailu bakarra (gasolioa baino ez zuen erabiltzen) ibilgailu hibrido (gasolina/GLP) batekin ordeztu zen.

Azpimarratzekoa da 2019az geroztik, Gipuzkoako HHBko kontsumo elektriko guztia iturri berriztagarrietakoa dela (Visesa Eusko Jaurlaritzak sustatutako energia garbiaren kontratuari atxiki baitzitzaion). Kasu horretan ere, Gipuzkoako HHBko kontsumo elektrikoaren hobekuntza aurreko urteetako ingurumen-adierazpenetan egiaztatzen da.


### Visesako GUZT. [ARABAKO EGOITZA NAG.+BIZKAIKO HHB+GIPUZKOAKO HHB]

Jarraian, Visesa osatzen duten egoitza guztien energia-kontsumoaren balio absolutuak erakusten dira. Bakoitzaren efizientzia-adierazlea lortzeko, B zifran egoitza guztietako pertsona-kopuru osoa zehazten da.

#### Visesako ENERGIA-KONTSUMO ZUZENA, GUZTIRA:

Visesako ENERGIA	A zifra			
	KONTSUMITUTAKO ENERGIA (MWH)			
	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
GUZTIRA 2021	276.551	11.814	7.043	295.408
GUZTIRA 2020	258.630	11.856	6.095	276.581
GUZTIRA 2019	332.819	25.002	11.086	368.907

Visesako ENERGIA	A zifra	B zifra	R zifra = A/B
	Kontsumoa (kWh)	Pertsona kop.	Efizientzia-adierazlea (kWh/pertsona)
<b>Visesako ENERGIA, GUZTIRA</b>			
GUZTIRA 2021	295.408	86	3.435
GUZTIRA 2020	276.581	85	3.254
GUZTIRA 2019	368.907	88	4.192



Taula eta grafikoetan ikus daitekeen bezala, Visesaren efizientzia-adierazlearen datuak (kWh/pertsona) % 18,1eko murrizketa adierazten du, 2019arekin alderatuta, eta, hala, finkatu egiten da azken urteetako murrizketarako joera. 2020ko datuarekin erkatuz gero, murrizketa % 5,6koa da, nahiz eta, aurretik komentatu den bezala, 2020ko kontsumoari buruzko datua ezin den erreferentziatzko datu gisa hartu, energia-kontsumoaren portaera irregularra izan baitzen.

Orain arte erregistratu dugun murrizketarako joera horretan, hainbat faktorek izan dute eragina: ibilgailu hibrido berriak sartzea, luminarien ordezkari kontsumo txikiagoak beste batzuk jartzea, pertsonen energia-kontsumoaren arrazionalizazioarekin duten sentsibilizazioa, eta diseinu jasangarriak dituzten egoitza berriak irekitzea.

Aipatu behar da energiaren kontsumo zuzen osoaren atal honetan Visesaren politikak garrantzi handia duela, ibilgailu hibridoak eta/edo elektrikoak sartzea sustatzen baitu. Ibilgailu horien erregaiak berotze-ahalmen txikiagoa dute, eta lehen erabiltzen ziren ohiko gasolio- edo gasolina-ibilgailuek baino kWh gutxiago kontsumitzen dute.

### **Energía berriztagarriaren kontsumoa, guztira**

Aurreko atalean adierazi denari jarraikiz, Visesa Eusko Jaurlaritzak sustatutako energia berdearen kontratazioan sartu zen 2019an; ondorioz, kontsumitutako elektrizitate guztia dator aurreko energia-iturri berriztagarrietatik, eta hori egoitza bakoitzari dagokion CUPSen erredentzio-datuaren bidez egiaztatzen da.

2021ean, Arabako Egoitza Nagusiko eta Bizkaiko HHBko ibilgailuen kontsumo elektrikotik datorren datua sartu da, eta kontsumo hori ere iturri berriztagarrietatik dator % 100. Hona hemen egoitza bakoitzean egin den energia berriztagarriaren kontsumoa:

#### **ARABAKO EGOITZA NAGUSIKO ENERGIA BERRIZTAGARRIAREN KONTSUMOA, GUZTIRA:**

ENERGIA BERRIZTAGARRIA ARABAKO EGOITZA NAG.	A zifra	B zifra	R zifra = A/B
	Kontsumoa (kWh)	Pertsona kop.	Efizientzia-adierazlea (kWh/pertsona)
<b>ENERGIA-ITURRI BERRIZTAGARRIETATIK ESKURATUTAKO ELEKTRIZITATEA</b>			
Elektrizitatea 2021	190.994	75	2.546
Elektrizitatea 2020	188.357	76	2.478
Elektrizitatea 2019	192.528	77	2.500

**BIZKAIKO HHBko ENERGIA BERRIZTAGARRIAREN KONTSUMO ZUZENA, GUZTIRA:**

ENERGIA BERRIZTAGARRIA BIZKAIKO HHB	A zifra	B zifra	R zifra = A/B
	Kontsumoa (kWh)	Pertsona kop.	Efizientzia-adierazlea (kWh/pertsona)
<b>ENERGIA-ITURRI BERRIZTAGARRIETATIK ESKURATUTAKO ELEKTRIZITATEA</b>			
Elektrizitatea 2021	11.814	7	1.688
Elektrizitatea 2020	9.023	5	1.805
Elektrizitatea 2019	3.802 (*)	6	634

(\*) Egoitza honetan energia garbia erabiltzen hasi zen (iturri berriztagarrietatik datorrena) 2019ko abuztutik aurrera. Koadro horretan iturri berriztagarrietatik datorren kopurua zehazten da.

**GIPUZKOAKO HHBko ENERGIA BERRIZTAGARRIAREN KONTSUMO ZUZENA, GUZTIRA:**

ENERGIA BERRIZTAGARRIA GIPUZKOAKO HHB	A zifra	B zifra	R zifra = A/B
	Kontsumoa (kWh)	Pertsona kop.	Efizientzia-adierazlea (kWh/pertsona)
<b>ENERGIA-ITURRI BERRIZTAGARRIETATIK ESKURATUTAKO ELEKTRIZITATEA</b>			
Elektrizitatea 2021	4.459	4	1.115
Elektrizitatea 2020	3.793	4	948
Elektrizitatea 2019	6.458	5	1.292

**Sortutako energia berriztagarria, guztira**

Visesak ez du energia-iturri berriztagarrietatik eskuratutako energiarik sortzen.

## 5.2 - MATERIALAK

Masa-kontsumoari dagokionez, aipatu behar da Gasteizko bulegoek kuantifikatzen dituztela kontsumigarri gehienak. Egoitza guztietan ezarri dira, apurka-apurka, kontsumoak kontrolatzeko zenbait mekanismo; horri esker, datuek hobekuntza nabarmena izan dute beste urte batzuetako ingurumen-adierazpenetako datuen aldean. Honako hauek dira aldaketa nagusiak:

- Paper-gauzetan egin den gastu orokorra gehitu da egoitza guztietan eta Visesak guztirako masa-datuetan. Paper-gauzetan, oro har, egoitza bakoitzak bere jarduera gauzatzeko kontsumitu dituen gutun-azalak, karpetak, grafoak eta post-it delakoak hartzen dira aintzat.
- Eskuragarri daude lantoki bakoitzean egiten den materialen kontsumoari buruzko datuak; izan ere, kontsumo horiek guztiak kontrolatu eta zenbatu egiten dira.


Gainera, urte honetatik aurrera energia neurtzeko unitateak tonetatik (t) kilotara (kg) aldatuko dira, kontsumitutako kopuruari buruzko datuak eta aurkeztutako efizientzia-adierazleak (A zifra eta R zifra) Visasaren errealitatearekin bat datozen zenbakiak izan daitezten.

Jarraian dator Visesak materialen kontsumoari dagokionez duen efizientzia. Kontsumoak lantokiaren arabera daude adierazita (datuak hornitzailearen fakturretatik eta barne-inbentariotik atera dira):

## ARABAKO EGOITZA NAGUSIA

### ARABAKO EGOITZA NAGUSIAN GEHIEN ERABILITAKO MATERIALEN URTEKO MASA-FLUXUA:

MATERIALAK ARABAKO EGOITZA NAGUSIA	A zifra	B zifra	R zifra = A/B
	Kontsumoa (kg)	Pertsona kop.	Efizientzia-adierazlea (kg/pertsona)
<b>PAPERA</b>			
2021	1.392	75	18,56
2020	1.332	76	17,53
2019	1.746	77	22,67
<b>TONERRA</b>			
2021	20	75	0,27
2020	21	76	0,28
2019	21	77	0,27
<b>PAPER-GAUZAK (GUTUN-AZALAK, KARPETAK...)</b>			
2021	94	75	1,25
2020	81	76	1,06
2019	186	77	2,42
<b>ARABAKO EGOITZAKO MATERIALAK, GUZTIRA</b>			
GUZTIRA 2021	1.506	75	20,08
GUZTIRA 2020	1.434	76	18,87
GUZTIRA 2019	1.953	77	25,36




2021ean kontsumitutako kopurua (A zifra) 2020. urtean kontsumitutakoaren oso antzekoa da (72 kg gehiago 2021ean) eta 2019ko materialen kontsumoa baino askoz ere txikiagoa (447 kg gutxiago 2021ean).

Azken urteetan kuantifikatzen diren materialen kopurua handitu egin bada ere (batez ere paper-gauzen orokorrekoak), ikusten da 2021eko masa-kontsumo osoaren efizientzia-adierazlearen datua (kg/pertsona) % 20,8 murriztu dela 2019koarekin alderatuta, eta % 6,4 igo dela 2020koarekin alderatuta.

## BIZKAIKO HHB

### BIZKAIKO HHBan GEHIEN ERABILITAKO MATERIALEN URTEKO MASA-FLUXUA:

MATERIALAK BIZKAIKO HHB	A zifra	B zifra	R zifra = A/B
	Kontsumoa (kg)	Pertsona kop.	Efizientzia-adierazlea (kg/pertsona)
<b>PAPERA</b>			
2021	139	7	19,86
2020	365	5	73,00
2019	273	6	45,50
<b>TONERRA</b>			
2021	8	7	1,14
2020	10	5	2,00
2019	10	6	1,67
<b>PAPER-GAUZAK (GUTUN-AZALAK, KARPETAK...)</b>			
2021	29	7	4,14
2020	32	5	6,40
2019	32	6	5,33
<b>BIZKAIKO HHB MATERIALAK, GUZTIRA</b>			
GUZTIRA 2021	176	7	25,14
GUZTIRA 2020	407	5	81,40
GUZTIRA 2019	315	6	52,50



2021ean, efizientzia-adierazlearen datua (kg/pertsona) nabarmen murriztu da 2020. eta 2019. urteekin alderatuz gero. Zehazki, % 69,1 murriztu da 2020. urtearen aldean eta % 52,1 2019. urtearen aldean.

Kontsumitutako kopurua (kg) murrizteaz gain, 2021ean 2 pertsona gehiago sartu dira plantillan, eta horrek materialen efizientzia-adierazlea are gehiago murriztea eragin du.


Gogorarazi behar da Bizkaiko HHBaren egoitza berria dela 2019aren amaieratik, 2020an pandemia-egoera bat gertatu zela, 2019a baino lehenagoko urteetan ez zegoela kontsumo-datu zehatzik eta zenbatespenetan oinarritzen zirela. Hala ere, egin diren hobekuntzekin, kontsumoen datu errealak izatea lortzen ari da, egoitza horretako datuen bilakaera homogeenagoa lortzeko.



## GIPUZKOAKO HHB

**GIPUZKOAKO HHBan GEHIEN ERABILITAKO MATERIALEN URTEKO MASA-FLUXUA:**

MATERIALAK GIPUZKOAKO HHB	A zifra	B zifra	R zifra = A/B
	Kontsumoa (kg)	Pertsona kop.	Efizientzia-adierazlea (kg/pertsona)
<b>PAPERA</b>			
2021	167	4	41,75
2020	81	4	20,25
2019	150	5	30,00
<b>TONERRA</b>			
2021	3	4	0,75
2020	2	4	0,50
<b>PAPER-GAUZAK (GUTUN-AZALAK, KARPETAK...)</b>			
2021	5	4	1,25
2020	8	4	2,00
2019	13	5	2,60
<b>GIPUZKOAKO HHBko MATERIALAK, GUZTIRA</b>			
GUZTIRA 2021	175	4	43,75
GUZTIRA 2020	91	4	22,75
GUZTIRA 2019	163	5	32,60




2021ean, kontsumitutako materialen kopuru osoa (kg) % 92,3 igo da 2020. urtearekin alderatuta eta % 7,4 2019. urtearekin alderatuta. Ondorioz, 2021ean efizientzia (kg/pertsona) aurreko bi urteetan baino handiagoa da. Igoera horretan garrantzi handia du egoitza horretan plantillan pertsona bat gutxiago egoteak.

**Visesako GUZT. [ARABAKO EGOITZA NAG.+BIZKAIKO HHB+GIPUZKOAKO HHB]**

**Visesan ERABILITAKO MATERIAL GUZTIEN URTEKO MASA-FLUXUA:**

MATERIALAK Visesa	A zifra			
	Kontsumoa (t)			
	PAPERA	TONERRA	PAPERA	MATERIALAK, GUZTIRA
GUZTIRA 2021	1.698	31	128	1.857
GUZTIRA 2020	1.778	33	121	1.932
GUZTIRA 2019	2.169	31	231	2.432

MATERIALAK Visesa	A zifra	B zifra	R zifra = A/B
	Kontsumoa (kg)	Pertsona kop.	Efizientzia-adierazlea (kg/pertsona)
<b>Visesako URTEKO MAXA-FLUXUA, GUZTIRA</b>			
GUZTIRA 2021	1.857	86	21,59
GUZTIRA 2020	1.932	85	22,73
GUZTIRA 2019	2.432	88	27,64



Aurreko ataletan erakusten denez, erakundearen kopuru osoak murrizketaren aldeko joera erakusten du. Zehazki, 2021eko efizientzia-adierazleak % 5,0ko murrizketa erakusten du materialen kontsumoan 2020. urtearekin alderatuta eta % 21,9koa 2019. urtearekin alderatuta.

Gure ustez, murrizketaren aldeko eboluzio horretan eragina izan du COVIDaren ondorioz bulegoetan izandako presentzia txikiagoak, baina, era berean, gero eta modu sendoagoan, erabakigarria izan da Visesak materialen kudeaketan egindako hobekuntza (erosketa, banaketa eta bilketa).

## 5.3 - URA

Baliabide hori udal hornidura-saretik kontsumitzen da (hornitzailearen fakturretatik lortutako datuak). Emandako datua Arabako Egoitza Nagusiko eta Bizkaiko HHBaren egoitzari dagokiona da, ez dagoelako Gipuzkoako HHBaren berezko ur sanitarioaren kontsumorik (ur-hornidura bulegoa errentan hartuta dagoen eraikinaren araberakoa da.)

### ARABAKO EGOITZA NAGUSIA

**ARABAKO EGOITZA NAGUSIKO URAREN URTEKO ERABILERA, GUZTIRA:**

UR SANITARIOA ARABAKO EGOITZA NAGUSIA	A zifra	B zifra	R zifra = A/B
	Kontsumoa (m <sup>3</sup> )	Pertsona kop.	Efizientzia-adierazlea (m <sup>3</sup> /pertsona)
2021	216,83	75	2,89
2020	139,09	76	1,83
2019	144,57	77	1,88

Araba Egoitza Nagusian 77,74 m<sup>3</sup> ur gehiago kontsumitu da, hau da, efizientzia-adierazlea % 57,9 igo da 2020an lortutako datuarekin alderatuta. Kontsumitutako ur kopuruaren ezohiko egoera hori 2021ean instalazio orokor batean gertatu zen matxuraren ondorioa izan da; matxura behar bezala erregistratu eta tratatu zen ingurumena kudeatzeko gure sisteman.

### BIZKAIKO HHB

**BIZKAIKO HHBko URAREN URTEKO ERABILERA, GUZTIRA:**

UR SANITARIOA BIZKAIKO HHB	A zifra	B zifra	R zifra = A/B
	Kontsumoa (m <sup>3</sup> )	Pertsona kop.	Efizientzia-adierazlea (m <sup>3</sup> /pertsona)
2021	39,73	7	5,68
2020	25,16	5	5,03

Bizkaiko HHB dagoeneko jabetzan hartu genuen egoitza berrira eraman zen 2019. urtearen amaieran, eta, horregatik, 2020an hasi gara datuak izaten.

Datu horien arabera, efizientzia-adierazleak (m<sup>3</sup>/pertsona) % 12,9 egin du gora 2020. urtearekin alderatuta. Puntu honetan, gogorarazi behar da konfinamendua zela-eta 2020ko datua ezin dela datu konparagarritzat hartu, eta, hortaz, urteko datu gehiago jaso behar ditugu, ingurumen-alderdi horrek Bizkaiko HHBan duen benetako eboluzioa ezagutzeko.

## GIPUZKOAKO HHB

Ez dago Gipuzkoako HHBko ur-kontsumoari buruzko daturik; izan ere, bulegoen eraikin baten barruan kokatutako lokala da, eta etxejabeen elkarte bateko beste gune batzuk hartzen ditu, zeinek ur-kontsumoa partekatzen duten.


## Visesako GUZT. [ARABAKO EGOITZA NAG.+BIZKAIKO HHB+GIPUZKOAKO HHB]

Jarraian, ur-kontsumo osoa erakusten da; arestian aipatu den moduan, Arabako Egoitza Nagusiari eta Bizkaiko HHBari buruzkoa da. Jarraian, bi egoiztetako langileen kopuru osoari dagokion kalkulua egin da:

### VISESAKO URAREN URTEKO ERABILERA, GUZTIRA:

UR SANITARIOA Visesa	A zifra	B zifra	R zifra = A/B
	Kontsumoa (m <sup>3</sup> )	Pertsona kop.	Efizientzia-adierazlea (m <sup>3</sup> /persona)
<b>Visesako UR SANITARIOAREN ERABILERA, GUZTIRA</b>			
<b>GUZTIRA 2021</b>	<b>256,56</b>	<b>82</b>	<b>3,13</b>
<b>GUZTIRA 2020</b>	<b>164,25</b>	<b>81</b>	<b>2,03</b>
<b>GUZTIRA 2019</b>	<b>144,57</b>	<b>77</b>	<b>1,88</b>

(\* ) 2019an, Arabako Egoitza Nagusiari buruzko datua besterik ez da jaso, eta egoitza horretako pertsona-kopurua baino ez zen kontuan hartzen. 2020az geroztik, Bizkaiko HHB gehitu zen, eta B zifran bi egoiztetako pertsonen kopuruen batura sartu zen.



2021ean, % 54,2 igo da efizientzia-adierazlea (m<sup>3</sup>/pertsona) 2020arekin alderatuta, eta % 66,5 2019arekin alderatuta.

Kontsumo globalak 2020koak eta 2019koak baino handiagoak diren arren, nabarmendu behar da datozen urteetako datuak falta direla Bizkaiko HHBko ur-kontsumoaren egoera zein den jakiteko, bai eta 2021ean instalazioan gertatutako matxurak eta 2020ko pandemia-egoerak zer-nolako eragina izan duten ziur jakiteko ere.

## 5.4 – HONDAKINAK

Urte honetatik aurrera hondakinen unitateak tonetatik (t) kilotara (kg) aldatu dira, kontsumitutako kopuruari buruzko datuak eta aurkeztutako efizientzia-adierazleak (A zifra eta R zifra, hurrenez hurren) Visesaren errealitatearekin bat datozen zenbakiak izan daitezzen. Jarraian, **urte batean bulegoetan hondakinen sorrera osoa** zehazten da (datuak barneko kalkulu-orrietatik atera dira).

### ARABAKO EGOITZA NAGUSIA

#### **BALORIZATU EZIN DIREN HONDAKIN EZ-ARRISKUTSUEN URTEKO GUZTIZKO SORRERA ARABAKO EGOITZAN:**

HIRI-HONDAKINAK ARABAKO EGOITZA NAGUSIA	A zifra	B zifra	R zifra = A/B
	Sortutako zenbatekoa (kg)	Pertsona kop.	Efizientzia-adierazlea (kg/pertsona)
<b>HIRI-HONDAKINAK</b>			
2021	3.969	75	52,92
2020	4.916	76	64,68
2019	7.260	77	94,29

Behera egin du sortutako hiri-hondakinen kopuruak, eta 2021eko efizientzia-adierazlea 2021ekoa baino % 18,2 txikiagoa da eta 2019koa baino % 43,9 txikiagoa.

#### **HONDAKIN EZ-ARRISKUTSU BALORIZAGARRIEN URTEKO GUZTIZKO SORRERA ARABAKO EGOITZAN:**

HONDAKIN EZ- ARRISKUTSUAK ARABAKO E.N.	A zifra	B zifra	R zifra = A/B
	Sortutako zenbatekoa (kg)	Pertsona kop.	Efizientzia-adierazlea (kg/pertsona)
<b>PAPER- ETA KARTOI-HONDAKINAK</b>			
2021	4.363	75	58,17
2020	3.816	76	50,21
2019	2.234	77	29,01
<b>PLASTIKO-HONDAKINAK</b>			
2021	246	75	3,28
2020	337	76	4,43
2019	451	77	5,86
<b>TONER-HONDAKINAK</b>			
2021	20	75	0,27
2020	34	76	0,45
2019	21	77	0,27
<b>SUKALDEKO GANTZ-HONDAKINAK</b>			
2021	29	75	0,39
2020	38	76	0,50
2019	52	77	0,68
<b>BALORIZATU EZIN DIREN HONDAKIN EZ-ARRISKUTSUAK GUZTIRA ARABAKO EGOITZAN</b>			
2021	4.658	75	62,11
2020	4.225	76	55,59
2019	2.758	77	35,82

Hondakin ez-arriskutsu balorizagarrietan, 2020arekiko murrizketa erregistratu da hondakin plastikoen (% 25,9), toner-hondakinen (% 40,0) eta sukaldeko koipe-hondakinen (% 22,0) efizientzia-adierazlean.

Hala ere, paper- eta kartoi-hondakinen sorrera handitu egin da. Hondakin hori da Arabako Egoitza Nagusiko hondakin ez-arriskutsu nagusia eta haren efizientzia-adierazlea % 15,8 igo da 2020. urtearekin alderatuta. 2020an eta 2021ean aurreko urteekin alderatuta gertatu den igoera horren arrazoi nagusia Arabako Egoitza Nagusian egindako artxibo fisikoaren garbiketa izan da (xahuketa), zeina Visesa digitalizatzeko proiektuaren barruan kokatuta dagoen.

**ARABAKO EGOITZA NAGUSIAN SORTUTAKO HONDAKIN ARRISKUTSUEN URTEKO KOPURUA, GUZTIRA:**

HONDAKIN ARRISKUTSUAK ARABAKO EGOITZA NAGUSIA	A zifra	B zifra	R zifra = A/B
	Sortutako zenbatekoa (kg)	Pertsona kop.	Efizientzia-adierazlea (kg/pertsona)
<b>GAILU ELEKTRIKO ETA ELEKTRONIKOEN HONDAKINAK</b>			
2021	314,5	86	3,66
2020	391,5	85	4,61
2019	151,9	88	1,73
<b>HONDAKIN FLUORESZENTEAK</b>			
2021	0	75	0
2020	1,7	76	0,02
2019	3,9	77	0,05
<b>PILA-HONDAKINAK</b>			
2021	0	75	0
2020	0,5	76	0,01
2019	1,6	77	0,02
<b>HONDAKIN ARRISKUTSUAK ARABAKO EGOITZA NAGUSIA, GUZTIRA</b>			
2021	314,5	75	4,19
2020	393,7	76	5,18
2019	157,5	77	2,04


Adierazi behar da VISESAn sortutako tresna elektriko eta elektronikoen hondakin guztiak Arabako Egoitzatik kudeatzen direla; horregatik, 2017ko Ingurumen Adierazpenaz geroztik kontuan hartu da datu hori Visesak langile guztiei zenbatzea.

Arabako Egoitzan kontabilizatutako hondakin arriskutsu bakoitza gutxitu egin da, eta horrek, 2020arekin alderatuta, % 19,1eko murrizketa eragin du hondakin arriskutsuen guztizko efizientzia-adierazlean.

Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak % 166,5 handitu dira 2020an 2019arekin alderatuta efizientzia-adierazlean, ekipoak (eramangarriak) eguneratu direlako langileek pandemia-egoeraren ondorioz sortutako telelanaren modalitatean erabili ahal izateko. 2021ean, 2020an hasitako ekipoen eguneraketa egiten jarraitu da.

**ARABAKO EGOITZA NAGUSIAN SORTUTAKO HONDAKINEN URTEKO KOPURUA, GUZTIRA:**

HONDAKINAK ARABAKO EGOITZA NAGUSIA	A zifra	B zifra	R zifra = A/B
	Sortutako zenbatekoa (kg)	Pertsona kop.	Efizientzia-adierazlea (kg/pertsona)
<b>ARABAKO EGOITZA NAGUSIKO HONDAKINAK, GUZTIRA</b>			
GUZTIRA 2021	8.942	75	119,22
GUZTIRA 2020	9.535	76	125,46
GUZTIRA 2019	10.176	77	132,16



Arabako Egoitzako hondakinen guztizkoak behera egin du efizientzia-adierazleari dagokionez, ia % 5,0 kg/pertsona 2020arekin alderatuta eta % 9,8 kg/pertsona 2019arekin alderatuta. Azken bi urteetako murrizketa horren arrazoi nagusia honako hau da: hiri-hondakin gutxiago sortzea, Visesako langileek instalazioak gutxiago erabili dituztelako eta 2020an eta 2021aren zati handi batean bulegoetan jateko murrizketak ezarri direlako.

**BIZKAIKO HHB**
**BALORIZATU EZIN DIREN HONDAKIN EZ-ARRISKUTSUEN URTEKO GUZTIZKO SORRERA BIZKAIKO HHBan:**

HIRI-HONDAKINAK BIZKAIKO HHB	A zifra	B zifra	R zifra = A/B
	Sortutako zenbatekoa (kg)	Pertsona kop.	Efizientzia-adierazlea (kg/pertsona)
<b>HIRI-HONDAKINAK</b>			
2021	183	7	26,14
2020	67	5	13,40
2019	123	6	20,33

2021ean, kontsumitutako materialen kopuru osoa (kg) % 95,1 igo da 2020. urtearekin alderatuta, eta % 28,6 2019. urtearekin alderatuta. Ondorioz, 2021ean efizientzia (kg/pertsona) aurreko bi urteetan baino handiagoa da.

Datu horien aldaketari dagokionez, uste dugu 2020ko datua txikiagoa dela, Bizkaiko bulegoetan ere langile gutxiago daudelako. 2019ko datuari dagokionez, urte horretan bulegoz aldatu zen, eta, beraz, bi kokapenen datua jasotzen da. Uste dugu arrazoizkoagoa dela egungo bulegoen azken datua; beraz, adierazle horien eboluzioaren jarraipena egiten jarraituko dugu.

**HONDAKIN EZ-ARRISKUTSU BALORIZAGARRIEN URTEKO GUZTIZKO SORRERA BIZKAIKO HHBan:**

HONDAKIN EZ-ARRISKUTSUAK BIZKAIKO HHB	A zifra	B zifra	R zifra = A/B
	Sortutako zenbatekoa (kg)	Pertsona kop.	Efizientzia-adierazlea (kg/pertsona)
<b>PAPER- ETA KARTOI-HONDAKINAK</b>			
2021	998	7	142,57
2020	531	5	106,20
2019	507	6	84,50
<b>PLASTIKO-HONDAKINAK</b>			
2021	54	7	7,71
2020	35	5	7,00
2019	60	6	10,00
<b>TONER-HONDAKINAK</b>			
2021	8	7	1,14
2020	0	5	0
2019	10	6	1,67
<b>HONDAKIN EZ-ARRISKUTSU BALORIZAGARRIAK GUZTIRA BIZKAIKO HHBan</b>			
2021	1.060	7	151,43
2020	566	5	113,20
2019	577	6	96,17

Hondakin ez-arriskutsu balorizagarrietan, paper- eta kartoi-hondakinen sorrera % 87,9 handitu da, plastiko-hondakinen sorrera % 54,3, eta toner-hondakinak sortu dira. Hondakin ez-arriskutsuen sorrerari buruzko guztizko efizientzia-adierazleak % 33,7 egin du gora 2020. urtearekin alderatuta eta % 57,4 2019. urtearekin alderatuta.

Egoitza horretan, paper- eta kartoi-hondakinetan izan da gorakadarik handiena; izan ere, egoitza horretako artxibategian dokumentuen garbiketa egin da.

**BIZKAIKO HHBan SORTUTAKO HONDAKIN ARRISKUTSUEN URTEKO KOPURUA, GUZTIRA:**

HONDAKIN ARRISKUTSUAK BIZKAIKO HHB	A zifra	B zifra	R zifra = A/B
	Sortutako zenbatekoa (kg)	Pertsona kop.	Efizientzia-adierazlea (kg/pertsona)
<b>HONDAKIN FLUORESZENTEA</b>			
2021	0	7	0
2020	0	5	0
2019	0	6	0
<b>PILA-HONDAKINAK</b>			
2021	0,7	7	0,10
2020	0,1	5	0,02
2019	0,1	6	0,02




<b>HONDAKIN ARRISKUTSUAK BIZKAIKO HHB, GUZTIRA</b>			
<b>2021</b>	<b>0,7</b>	<b>7</b>	<b>0,10</b>
<b>2020</b>	<b>0,2</b>	<b>5</b>	<b>0,04</b>
<b>2019</b>	<b>0,1</b>	<b>6</b>	<b>0,02</b>

2020an ez da fluoreszenteen hondakinik sortu Bizkaiko bulegoa eraiki berria delako. Hala ere, pilen hondakinak areagotu egin direla aurreko urteen aldean. Hortaz, lotutako efizientzia-adierazlea 2020koa eta 2019koa baino handiagoa da.

**BIZKAIKO HHBan SORTUTAKO HONDAKINEN URTEKO KOPURUA, GUZTIRA:**

<b>HONDAKINAK BIZKAIKO HHB</b>	<b>A zifra</b>	<b>B zifra</b>	<b>R zifra = A/B</b>
	<b>Sortutako zenbatekoa (kg)</b>	<b>Pertsona kop.</b>	<b>Efizientzia-adierazlea (kg/pertsona)</b>
<b>BIZKAIKO HHB-KO HONDAKINAK, GUZTIRA</b>			
<b>GUZTIRA 2021</b>	<b>1.244</b>	<b>7</b>	<b>177,71</b>
<b>GUZTIRA 2020</b>	<b>633</b>	<b>5</b>	<b>126,60</b>
<b>GUZTIRA 2019</b>	<b>700</b>	<b>6</b>	<b>116,67</b>



Bizkaiko HHBan sortutako hondakinen kantitatea % 96,5 hazi da (kg) eta % 40,4 handitu efizientzia-adierazlea (kg/pertsona) 2020an, aurreko urtearen aldean. Areagotze hori espero zena baino txikiagoa da, egoitza horretako plantillan bi pertsona gehiago ari baitira lanean.

Gogoan izan behar da Bizkaiko HHB berria dela 2019. urtearen amaieratik, eta 2020an pandemia izan zela. Horrenbestez, datu gehiago eduki beharko ditugu egoitza horren egoeraren bilakaera homogeenagoa emango digun hondakin-kopuruei buruzko adierazleak izateko.

## GIPUZKOAKO HHB

### BALORIZATU EZIN DIREN HONDAKIN EZ-ARRISKUTSUEN URTEKO GUZTIZKO SORRERA GIPUZKOAKO HHBan:

HIRI-HONDAKINAK GIPUZKOAKO HHB	A zifra	B zifra	R zifra = A/B
	Sortutako zenbatekoa (kg)	Pertsona kop.	Efizientzia-adierazlea (kg/pertsona)
<b>HIRI-HONDAKINAK</b>			
2021	87	4	21,75
2020	85	4	21,25
2019	192	5	38,40

Azken 2 urteetan sortutako hiri-hondakinen kg-en kopurua ia-ia berdin mantendu da; 2021eko eraginkortasun-faktorea % 2,3 handiagoa izan zen 2020koa baino, eta % 43,3 txikiagoa 2019koa baino.

### HONDAKIN EZ-ARRISKUTSU BALORIZAGARRIEN URTEKO GUZTIZKO SORRERA GIPUZKOAKO HHBan:

HONDAKIN EZ-ARRISKUTSUAK GIPUZKOAKO HHB	A zifra	B zifra	R zifra = A/B
	Sortutako zenbatekoa (kg)	Pertsona kop.	Efizientzia-adierazlea (kg/pertsona)
<b>PAPER- ETA KARTOI-HONDAKINAK</b>			
2021	71	4	17,75
2020	73	4	18,25
2019	173	5	34,60
<b>PLASTIKO-HONDAKINAK</b>			
2021	38	4	9,50
2020	54	4	13,50
2019	127	5	25,40
<b>TONER-HONDAKINAK</b>			
2021	3	4	0,75
2020	0	4	0
2019	0	5	0
<b>HONDAKIN EZ-ARRISKUTSU BALORIZAGARRIAK GUZTIRA GIPUZKOAKO HHBan</b>			
2021	112	4	28,00
2020	127	4	31,75
2019	300	5	60,00

Hondakin ez-arriskutsu balORIZAGARRIEN guztizkoari dagokionez, eraginkortasun-adierazlea % 11,8 murriztu da 2020koaren aldean, eta % 53,3 2019koaren aldean. 2021ean paper eta kartoen eta plastikoen hondakin kg gutxiago sortu dira. Toner-hondakinen kasuan, aurreko urteetan baino gehiago sortu dira, baina hondakinok eragin txikia dute Gipuzkoako HHBko hondakin ez-arriskutsuen guztizkoan.


**GIPUZKOAKO HHBan SORTUTAKO HONDAKIN ARRISKUTSUEN URTEKO KOPURUA, GUZTIRA:**

HONDAKIN ARRISKUTSUAK GIPUZKOAKO HHB	A zifra	B zifra	R zifra = A/B
	Sortutako zenbatekoa (kg)	Pertsona kop.	Efizientzia-adierazlea (kg/pertsona)
<b>HONDAKIN FLUORESZENTEAK</b>			
2021	2,9	4	0,73
2020	0	4	0
2019	0	5	0
<b>PILA-HONDAKINAK</b>			
2021	0,4	4	0,10
2020	0,3	4	0,07
2019	0,4	5	0,08
<b>HONDAKIN ARRISKUTSUAK GIPUZKOAKO HHB, GUZTIRA</b>			
2021	3,3	4	0,82
2020	0,3	4	0,07
2019	0,4	5	0,08

Gipuzkoako HHBan sor daitezkeen hondakin arriskutsuak pilak eta fluoreszenteak dira Azken urtean luminariak aldatu dira, bulegoan gela berri bat egin delako; hortaz, egiaztatu da 2021ean egoitza horretan sortutako hondakin arriskutsuen ehunekoa argi areagotu dela.

**GIPUZKOAKO HHBan SORTUTAKO HONDAKINEN URTEKO KOPURUA, GUZTIRA:**

HONDAKINAK GIPUZKOAKO HHB	A zifra	B zifra	R zifra = A/B
	Sortutako zenbatekoa (kg)	Pertsona kop.	Efizientzia-adierazlea (kg/pertsona)
<b>GIPUZKOAKO HHBko HONDAKINAK, GUZTIRA</b>			
GUZTIRA 2021	202	4	50,50
GUZTIRA 2020	212	4	53,00
GUZTIRA 2019	492	5	98,40



Gipuzkoako HHBaren egoitzan sortutako hondakinen guztizkoari dagokionez, 2021ean behera egin du aurreko urtearekin alderatuta; zehazki, % 4,7 efizientzia-adierazlearen arabera (kg/pertsona). Sortutako hondakinen guztizko kopurua (kg) balio absolutuetan 2020koa baino % 4,7 txikiagoa da, eta, 2019koa baino % 58,9 txikiagoa. Murrizteko joera hori are argiagoa da paper- eta kartoi-hondakinen eta plastiko-hondakinen sorreran. Aplikaturako jardunbide egokiek murrizketa hori gauzatzen lagundu dute.

### Visesako GUZT. [ARABAKO EGOITZA NAG.+BIZKAIKO HHB+GIPUZKOAKO HHB]

#### **BALORIZATU EZIN DIREN HONDAKIN EZ-ARRISKUTSUEN URTEKO GUZTIZKO SORRERA Visesan:**

HIRI-HONDAKINAK Visesa	A zifra	B zifra	R zifra = A/B
	Sortutako zenbatekoa (kg)	Pertsona kop.	Efizientzia-adierazlea (kg/pertsona)
<b>Visesako HIRI-HONDAKINAK, GUZTIRA</b>			
2021	4.239	86	49,29
2020	5.068	85	59,62
2019	7.575	88	86,08

#### **HONDAKIN EZ-ARRISKUTSU BALORIZAGARRIEN URTEKO GUZTIZKO SORRERA Visesan:**

HONDAKIN EZ-ARRISKUTSUAK Visesa	A zifra	B zifra	R zifra = A/B
	Sortutako zenbatekoa (kg)	Pertsona kop.	Efizientzia-adierazlea (kg/pertsona)
<b>Visesako HONDAKIN EZ-ARRISKUTSUAK, GUZTIRA</b>			
2021	5.830	86	67,79
2020	4.918	85	57,86
2019	3.635	88	41,31

#### **Visesan SORTUTAKO HONDAKIN ARRISKUTSUEN URTEKO KOPURUA, GUZTIRA:**


HONDAKIN ARRISKUTSUAK Visesa	A zifra	B zifra	R zifra = A/B
	Sortutako zenbatekoa (kg)	Pertsona kop.	Efizientzia-adierazlea (kg/pertsona)
<b>Visesako HONDAKIN ARRISKUTSUAK, GUZTIRA</b>			
2021	318,5	86	3,70
2020	394,1	85	4,64
2019	157,9	88	1,79

#### **Visesan SORTUTAKO HONDAKINEN URTEKO KOPURUA, GUZTIRA:**

Visesa osatzen duten egoitzen multzoa aintzat hartuta, sortutako hondakinen guztizkoak erakusten dira, horien motaren arabera.

HONDAKINAK Visesa	A zifra			
	Sortutako zenbatekoa (t)			
	HIRI- HONDAKINAK	BALORIZA DAITEZKEEN HONDAKIN EZ- ARRISKUTSUAK	HONDAKIN ARRISKUTSUAK	SORTUTAKO HONDAKINAK, GUZTIRA
GUZTIRA 2021	4.239	5.830	318,5	10.388
GUZTIRA 2020	5.068	4.918	394,2	10.380
GUZTIRA 2019	7.575	3.635	158,0	11.368

HONDAKINAK Visesa	A zifra	B zifra	R zifra = A/B
	Sortutako zenbatekoa (kg)	Pertsona kop.	Efizientzia-adierazlea (kg/pertsona)
<b>Visesako HONDAKINAK, GUZTIRA</b>			
GUZTIRA 2021	10.388	86	120,79
GUZTIRA 2020	10.380	85	122,12
GUZTIRA 2019	11.368	88	129,18



Lortutako datuek islatzen duten moduan, sortutako kopuruak (kg) antzeko kopuruari eutsi dio 2021ean eta 2020an, eta efizientzia-adierazlea (kg/pertsona), zertxobait txikiagoa da 2021ean, 2021ean plantillan dauden pertsonen kopuruaren eraginez, 2020koaren aldean. Zehazki, efizientzia-adierazlea % 1,1 murriztu da 2020arekin alderatuta eta % 6,5 2019arekin alderatuta.

Visesan egiten den hondakinen kudeaketari dagokionez, honako sistematika hauek aplikatzen jarraitu da, besteak beste:

- Gelaren batean birmoldaketak egingo direlako edo erre egin direlako argiak aldatu behar badira, argi berriek kontsumo eraginkorragoa izango dute (LED argiak izango dira).
- Norbanakoarentzako inprimatze-ekipoak ordeztuko, funtzio anitzeko ekipo eta inprimagailuak jarriko dira, taldean erabiltzekoak.
- Bulegoetako hornidura-kontratuetan, ingurumen-irizpideak gehituko dira, eta horietan puntuagarria izango den klausula bat zehaztuko da, bilgarriei buruz honako hau adierazten duena: "Enpresak hitzematzen du produktuak birziklatutako kartoiak bilduta entregatuko dituela eta materialen bilgarriak optimizatuko dituela, bidalketetan ahalik eta bilgarri gutxien erabili ahal izateko".

## 5.5 – LURZORUAREN ERABILERA BIODIBERTSITATEAREKIKO

Biodibertsitatea egoitzetako lurzoruaren erabilera osoa da. Visesaren egoitza guztiak eraikinen barruan dauden bulegoak dira, eta ez dute osorik zigilatutako azalerarik, ez naturaren arabera orientatutako zentroen kanpoko edo barruko azalerarik.

Hiru egoitzetan Alokabideko langileekin partekatzen da bulegoen espazioa (Visesatik kanpo dagoena), eta, beraz, erakunde bakoitzari (Visesa eta Alokabide) egokituko litzaiekeen azaleraren % m<sup>2</sup>-ak ezartzea erabaki zen, okupatutako espazio osoaren artean dagoen langile-kopuruaren datuaren arabera. Horrela, erakunde bakoitzerako kopurua zehaztu zen, eta hori aldatu egiten da urte batetik bestera, bi erakundeetako langileen aldakuntzen arabera.

### ARABAKO EGOITZA NAGUSIKO LURZORUAREN ERABILERA, GUZTIRA:

BIODIBERTSITATEA ARABAKO EGOITZA NAGUSIA	A zifra	B zifra	R zifra = A/B
	Zenbatekoa (gainazalaren m <sup>2</sup> )	Pertsona kop.	Efizientzia-adierazlea (gainazalaren m <sup>2</sup> /pertsona)
2021	2.857,2	75	38,1
2020	2.840,6	76	37,4
2019	3.112,9	77	40,4

### BIZKAIKO HHBko LURZORUAREN ERABILERA, GUZTIRA:

BIODIBERTSITATEA BIZKAIKO HHB	A zifra	B zifra	R zifra = A/B
	Zenbatekoa (gainazalaren m <sup>2</sup> )	Pertsona kop.	Efizientzia-adierazlea (gainazalaren m <sup>2</sup> /pertsona)
2021	280,2	7	40,0
2020	231,4	5	46,3
2019	277,7	6	46,3

### GIPUZKOAKO HHBko LURZORUAREN ERABILERA, GUZTIRA:

BIODIBERTSITATEA GIPUZKOAKO HHB	A zifra	B zifra	R zifra = A/B
	Zenbatekoa (gainazalaren m <sup>2</sup> )	Pertsona kop.	Efizientzia-adierazlea (gainazalaren m <sup>2</sup> /pertsona)
2021	75,6	4	18,9
2020	79,0	4	19,8
2019	90,2	5	18,0

## 5.6 – IGORPENAK

### ***Emisiones anuales totales de gases de efecto invernadero***

Visesak urtean sortzen dituen berotegi-efektuko gasen igorpenak energia-kontsumoarekin lotuta daude. Kontsumo horren barruan daude bulegoetako elektrizitate-kontsumoa eta hiru egoitzetan erregistratutako ibilgailuen erregai-kontsumoa, bai eta Arabako Egoitzan eta Bizkaiko bulego berrian gerta daitezkeen gas hozgarriaren birkargak ere.

Egoitza bakoitzean energia-kontsumo horiekin lotutako CO<sub>2</sub> igorpenak kalkulatzeko, Ingurumen Adierazpen honen 5.1 atalean jasotako kontsumoen datuak erabili dira, eta gas hozgarriaren datua ekipoen mantentze-lanen parteetatik lortzen da. Horiei guztiei Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako Ministerioaren Klima Aldaketaren Espainiako Bulegoak (MITECO) emandako bihurketa-faktore hauek aplikatzen dizkiegu.

**2019ko eta 2020ko datuak kalkulatzeko**, une horretan indarrean zeuden karbono aztarnaren kalkulagailuak erabili ziren, eta horien bihurketa-faktoreak hauek izan ziren:

Alderdia		Jatorrizko magnitudea	Bihurketa-faktorea (*) kg eqCO <sub>2</sub>	
			2019	2020
ELEKTRIZITATEA (**)	Araba/Gipuzkoa	1 kwh	0 kg eqCO <sub>2</sub>	0 kg eqCO <sub>2</sub>
	Bizkaia		0,2 kg eqCO <sub>2</sub> (***)	0 kg eqCO <sub>2</sub>
ERREGAIA	B7 (Gasolioa)	1 litro	2,467 kg eqCO <sub>2</sub>	2,456 kg eqCO <sub>2</sub>
	E5 (Gasolina)	1 litro	2,180 kg eqCO <sub>2</sub>	2,244 kg eqCO <sub>2</sub>
	LPG (GLP)	1 litro	1,671 kg eqCO <sub>2</sub>	1,628 kg eqCO <sub>2</sub>
R-410A HOZGARRIA (Araba y Bizkaia)		1 kg	2.088 kg eqCO <sub>2</sub>	2.088 kg eqCO <sub>2</sub>

(\*) "Igorpen-faktoreak. Karbono-aztarnaren kalkulagailua. MITECO. 2021eko apirilaren 18ko bertsioa.

(\*\*) CNMCren (Merkatuaren eta Lehiaren Batzorde Nazionala) luditze-dokumentua eskuragarri dago.

(\*\*\*) Bihurketa-faktorea ezarri da Bizkaiko egoitzari dagokion kontsumo elektriko ez-berriztagarriaren zatirako (iturria: "Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako Ministerioaren igorpenen faktoreak. 2020ko apirila. 17. bertsioa").

**2021eko datuak kalkulatzeko**, 2022ko ekaineko karbono-aztarnaren kalkulagailua (26. bertsioa) erabili da.

Jarraian, aplika daitezkeen bihurketa-faktoreak jaso dira:

Alderdia	Jatorrizko magnitudea	Bihurketa-faktorea (*) kg eqCO <sub>2</sub>
		2021
ELEKTRIZITATEA (Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia) (*)	1 kW/h	0 kg eqCO <sub>2</sub>
R-410A HOZGARRIA (Araba eta Bizkaia)	1 kg	1.923,50 kg eqCO <sub>2</sub>

(\*) Arabako Egoitzaren eta Bizkaiko HHBaren kasuan, ibilgailuen kontsumo elektrikoa ere jaso da.

Kalkulagailu horretan, lehenengoz, joan-etorrietarako erregaiei lotutako igorpenen kalkuluan kontuan hartu beharreko CH<sub>4</sub> eta N<sub>2</sub>O faktoreak ere jaso dira. Erregai bakoitzaren kontsumo-datua sartzean, amaierako kalkulua lortzen da zuzenean. Jarraian, 2021eko kontsumoekin lotutako kalkulua eta faktoreak jasotzen dira, kalkulagailu horrek ezarritako moduan:


Eraikina/ Egoitza	Erragai mota	Kopurua	Emisio-faktorea			Isuri nagusiak A.1			Guztizko isuriak A.1 kg CO <sub>2</sub> e
			Lehenetsita			kg CO <sub>2</sub>	g CH <sub>4</sub>	g N <sub>2</sub> O	
			kg CO <sub>2</sub> /ud	g CH <sub>4</sub> /ud	g N <sub>2</sub> O/ud				
ARABAKO EGOITZA NAGUSIA	B7 (l)	3.174,0	2,488	0,007	0,119	7.896,91	22,22	377,71	7.997,63
ARABAKO EGOITZA NAGUSIA	LPG (l)	1.319,0	1,737	0,210	0,016	2.291,10	276,99	21,10	2.304,45
ARABAKO EGOITZA NAGUSIA	E5 (l)	4.969,0	2,237	0,243	0,025	11.115,65	1.207,47	124,23	11.182,38
								<b>Guztira t CO<sub>2</sub> eq</b>	<b>21,484</b>
GIPUZKOAKO HHB	LPG (l)	232,0	1,737	0,210	0,016	402,98	48,72	3,71	405,33
GIPUZKOAKO HHB	E5 (l)	123,0	2,237	0,243	0,025	275,15	29,89	3,08	276,80
								<b>Guztira t CO<sub>2</sub> eq</b>	<b>0,682</b>

## ARABAKO EGOITZA NAGUSIA

### BEROTEGI-EFEKTUKO GASEN URTEKO IGORPENAK ARABAKO EGOITZAN:

BEROTEGI-EFEKTUA ERAGITEN DUTEN GASEN IGORPENAK ARABAKO EG. NAG.	A zifra	B zifra	R zifra = A/B
	Sortutako zenbatekoa (tCO <sub>2</sub> )	Pertsona kop.	Efizientzia-adierazlea (tCO <sub>2</sub> /pertsona)
<b>ENERGIA ELEKTRIKOAREN KONTSUMOARI LOTUTAKO IGORPENAK</b>			
2021	0	75	0
2020	0	76	0
2019	0	77	0
<b>IBILGAILUEN ERREGAIARI LOTURIKO IGORPENAK</b>			
2021	21,484	75	0,286
2020	17,199	76	0,226
2019	34,409	77	0,447
<b>HOZGARRIARI LOTUTAKO IGORPENAK</b>			
2021	0	75	0
2020	0	76	0
2019	0	77	0
<b>BEROTEGI-EFEKTUKO GASEN GUZTIZKO IGORPENAK ARABAKO EGOITZAN</b>			
GUZTIRA 2021	21,484	75	0,286
GUZTIRA 2020	17,199	76	0,226
GUZTIRA 2019	34,409	77	0,447






Igorpenen guztizko efizientzia-adierazlea (tCO<sub>2</sub>/perts) % 26,5 handitu da aurreko ekitaldiarekin alderatuta, eta % 36,0 murriztu da 2019arekin alderatuta.

2020aren aldean, pandemiagatik salbuespenezko urtetzat hartuta, igorpenen kantitatea areagotu egin da. Hala ere, garrantzitsua da azpimarratzea azken urteetan murriztu egin direla, oro har, igorpen-mota guztiak; izan ere, 2019az geroztik ez dira zenbatzen elektrizitate-kontsumoarekin lotutako CO<sub>2</sub> igorpenak, ingurumen-portaera hobea duten erregaiak erabiltzen dira eta ez da hozgarriaren birkargarik egin azken hiru urteetan.

## BIZKAIKO HHB

### BEROTEGI-EFEKTUKO GASEN URTEKO IGORPENAK BIZKAIKO HHBan:

BEROTEGI-EFEKTUA ERAGITEN DUTEN GASEN IGORPENAK BIZKAIKO HHB	A zifra	B zifra	R zifra = A/B
	Sortutako zenbatekoa (tCO <sub>2</sub> )	Pertsona kop.	Efizientzia-adierazlea (tCO <sub>2</sub> /perts)
<b>ENERGIA ELEKTRIKOAREN KONTSUMOARI LOTUTAKO IGORPENAK</b>			
2021	0	7	0
2020	0	5	0
2019	3,461	6	0,577
<b>IBILGAILUEN ERREGAIARI LOTURIKO IGORPENAK</b>			
2021	0	7	0
2020	0,675	5	0,135
2019	0,933	6	0,155
<b>HOZGARRIARI LOTUTAKO IGORPENAK</b>			
2021	0	7	0
2020	0	5	0
2019	0	6	0
<b>BEROTEGI-EFEKTUKO GASEN GUZTIZKO IGORPENAK BIZKAIKO HHBan</b>			
GUZTIRA 2021	0	7	0
GUZTIRA 2020	0,675	5	0,135
GUZTIRA 2019	4,394	6	0,732



Bizkaiko HHBan ez da energia-kontsumoaren (elektrizitatea eta erregaiak) ondoriozko CO<sub>2</sub> igorpenik egiten; izan ere, 2019ko abuztutik, energia % 100 berriztagarria kontsumitzen hasi da, 2021etik egoitza horrekin lotutako ibilgailu bakarria elektrikoa da, eta, gainera, azken urtean ez da hozgarria birkargatu behar izan.


## GIPUZKOAKO HHB

**BEROTEGI-EFEKTUKO GASEN URTEKO IGORPENAK GIPUZKOAK HHBan:**

BEROTEGI-EFEKTUA ERAGITEN DUTEN GASEN IGORPENAK GIPUZKOAKO HHB	A zifra	B zifra	R zifra = A/B
	Sortutako zenbatekoa (tCO <sub>2</sub> )	Pertsona kop.	Efizientzia-adierazlea (tCO <sub>2</sub> /pertsona)
<b>ENERGIA ELEKTRIKOAREN KONTSUMOARI LOTUTAKO IGORPENAK</b>			
2021	0	4	0
2020	0	4	0
2019	0	5	0
<b>IBILGAILUEN ERREGAIARI LOTURIKO IGORPENAK</b>			
2021	0,682	4	0,170
2020	0,584	4	0,146
2019	1,189	5	0,238
<b>BEROTEGI-EFEKTUKO GASEN GUZTIZKO IGORPENAK GIPUZKOAKO HHBan</b>			
GUZTIRA 2021	0,682	4	0,170
GUZTIRA 2020	0,584	4	0,146
GUZTIRA 2019	1,189	5	0,238

Beste egoitzetan bezala, Gipuzkoan ez da egon kontsumo elektrikoarekin lotutako CO<sub>2</sub> igorpenik 2019tik.

Gipuzkoako HHBan, berotegi-efektuko igorpen guztiak erregai-kontsumoarekin zuzenean daude lotuta. 2021ean, lotutako igorpenak % 16,4 areagotu dira 2020ko datuekin alderatuta, eta % 28,6 murriztu dira 2019ko datuekin alderatuta.



**Visesako GUZT. [ARABAKO EGOITZA NAG.+BIZKAIKO HHB+GIPUZKOAKO HHB]**

**BEROTEGI-EFEKTUKO GASEN URTEKO IGORPENAK GUZTIRA Visesan:**


Visesa osatzen duten egoitzen multzoa aintzat hartuta, sortutako igorpenen guztizkoak erakusten dira, horien motaren arabera.

BEROTEGI-EFEKTUA ERAGITEN DUTEN GASEN IGORPENAK Visesa	A zifra			
	Sortutako zenbatekoa (tCO <sub>2</sub> )			
	KONTSUMO ELEKTRIKOARI LOTURIKO IGORPENAK	IBILGAILUEN ERREGAIARI LOTURIKO IGORPENAK	GAS HOZGARRIARI LOTURIKO IGORPENAK	BEROTEGI-EFEKTUA ERAGITEN DUTEN GASEN IGORPENAK
GUZTIRA 2021	0	22,167	0	22,167
GUZTIRA 2020	0	18,458	0	18,458
GUZTIRA 2019	3,461	36,531	0	39,992

BEROTEGI-EFEKTUA ERAGITEN DUTEN GASEN IGORPENAK Visesa	A zifra	B zifra	R zifra = A/B
	Sortutako zenbatekoa (tCO <sub>2</sub> )	Pertsona kop.	Efizientzia-adierazlea (tCO <sub>2</sub> /pertsona)
<b>BEROTEGI-EFEKTUKO GASEN GUZTIZKO IGORPENAK Visesan</b>			
GUZTIRA 2021	22,167	86	0,258
GUZTIRA 2020	18,458	85	0,217
GUZTIRA 2019	39,992	88	0,454

2021ean, % 18,9 egin du gora efizientzia-adierazleak (tCO<sub>2</sub>/pertsona); hala ere, % 43,2 murriztu da 2019aren aldean. Berotegi-efektuko gasen urteko guztizko igorpenak nabarmen murriztearen eragin orokor hori politika eta sistematika berriak aplikatzearen ondorioz gertatu da, hala nola:

- % 100ean berriztagarria den elektrizitatearen kontsumoa bultzatzea.
- Visesaren flotako gasolio bidezko ibilgailuak pixkanaka ingurumena gehiago errespetatzen duten ibilgailuekin ordeztzea (hibridoak eta/edo elektrikoak). 2021ean, bi harguneko karga-puntu berri bat jarri da Arabako egoitzako sei plazako aparkalekuan; horrenbestez, gaur-gaurkoz, Arabako eta Bizkaiko HHBen egoitzen artean aldi berean hamabi ibilgailu kargatzeko aukera daukagu.



### **Airera egindako urteko igorpenak, guztira**

CH<sub>4</sub>, N<sub>2</sub>O, PFC, NF<sub>3</sub> eta SF<sub>6</sub>gasen igorpenei dagokienez, Visesak ez dauka atmosferarako igorpenekin loturiko inolako instalaziorik; izan ere, egoitzetan administrazio-jarduerak baino ez dira gauzatzen.

Visesaren instalazioak aztertuta, soilik automozioari loturiko erregaiak erretzeak sor ditzake gas horien igorpen esanguratsuak. Hori dela eta, hona hemen NO<sub>x</sub>, Sox eta PM gasen igorpenak.

Gas hozgarriak berriz kargatzearekin daude lotuta HFC gasak, eta ez da horrelakorik egin 2021ean.


Informazio hori eskuratzeko aukera ematen duen neurketarik ez dugunez, zenbatespena honako hauetan zehaztutakoari jarraikiz egin da: Airera egindako igorpenak neurtu, zenbatetsi eta kalkulatzeko gida teknikoa; apirilaren 20ko 508/2007 Errege Dekretua eta igorpen horiek kalkulatzeko EPRTA Araudia.

Hona hemen azken urteetako igorpenei loturiko informazioa; datuak egokitu egin dira kg-etara, sortutako kopurua eta aurkeztutako efizientzia-adierazleak Visesaren errealitatearekin bat datozen zenbakiak izan daitezten.

## ARABAKO EGOITZA NAGUSIA

**AIRERA EGINDAKO URTEKO IGORPENAK, GUZTIRA, MOTAREN ARABERA, ARABAKO EGOITZA NAGUSIAN:**

AIRERA EGINDAKO IGORPENAK ARABAKO EGOITZA NAGUSIA	A zifra	B zifra	R zifra = A/B
	Sortutako zenbatekoa (kg)	Pertsona kop.	Efizientzia-adierazlea (kg/pertsona)
<b>NOX IGORPENAK</b>			
2021	269,76	75	3,60
2020	223,66	76	2,94
2019	435,52	77	5,66
<b>SOX IGORPENAK</b>			
2021	11,18	75	0,15
2020	12,86	76	0,17
2019	27,16	77	0,35
<b>PM10 IGORPENAK</b>			
2021	24,27	75	0,32
2020	22,79	76	0,30
2019	45,91	77	0,60




2021ean, 2020. urtearekin alderatuta, efizientzia-adierazlea (kg/pertsona) % 22,4 handitu da NOx-en eta % 6,7 PMn; alabaina, % 11,8 murriztu da SOx-n. 2019arekin alderatuz gero, egiaztatu daiteke lortutako emaitzak oso onak direla azken urtean.

2020aren aldean, pandemiagatik salbuespenezko urtetzat hartuta, igorpenen kantitatea areagotu da. Hala ere, garrantzitsua da azpimarratzea azken urteetan murriztu egin direla, oro har, aire-igorpenak; izan ere, ingurumen-portaera hobea duten erregaiak erabiltzen dira eta ez da hozgarriaren birkargarik egin azken hiru urteetan.

## BIZKAIAKO HHB

AIRERA EGINDAKO URTEKO IGORPENAK, GUZTIRA, MOTAREN ARABERA, BIZKAIKO HHBan:

AIREKO IGORPENAK BIZKAIKO HHB	A zifra	B zifra	R zifra = A/B
	Sortutako zenbatekoa (kg)	Pertsona kop.	Efizientzia-adierazlea (kg/pertsona)
<b>NOX IGORPENAK</b>			
2021	0	7	0
2020	12,07	5	2,41
2019	16,60	6	2,77
<b>SOX IGORPENAK</b>			
2021	0	7	0
2020	0,93	5	0,19
2019	1,28	6	0,21
<b>PM10 IGORPENAK</b>			
2021	0	7	0
2020	1,41	5	0,28
2019	1,94	6	0,32




Bizkaiko HHBan, ez da aire-igorpenik egin (NOx, SOx eta PM) ibilgailuak ordezkatzeko politikaren ondorioz. 2021ean, egoitza horretako ibilgailu bakarra (gasolioa erabiltzen zuen) ibilgailu elektriko batekin ordeztu zen.

Bestalde, ez da hozgarririk birkargatu Trenbideko etorbideko (Bilbo) egoitza berria ireki zenetik.

## GIPUZKOAKO HHB

**AIRERA EGINDAKO URTEKO IGORPENAK, GUZTIRA, MOTAREN ARABERA, GIPUZKOAKO HHBan:**

AIREKO IGORPENAK GIPUZKOAKO HHB	A zifra	B zifra	R zifra = A/B
	Sortutako zenbatekoa (kg)	Pertsona kop.	Efizientzia-adierazlea (kg/pertsona)
<b>NOX IGORPENAK</b>			
2021	3,69	4	0,92
2020	1,89	4	0,47
2019	4,57	5	0,91
<b>SOX IGORPENAK</b>			
2021	0,02	4	0,01
2020	0,02	4	0,01
2019	0,04	5	0,01
<b>PM10 IGORPENAK</b>			
2021	0,22	4	0,06
2020	0,11	4	0,03
2019	0,27	5	0,05




Gipuzkoako HHBan, egoitza horretako erregai-kontsumoaren joerarekin bat, energia-efizientiaren adierazlea (kWh/pertsona) 2019ko balioetan mantendu da, nahiz eta % 95,7 handitu den NOx-en eta % 50,0 PMn, eta ehuneko berean geratu da SOx-en, 2020aren aldean. 2019an, egoitza horretako ibilgailu bakarra (gasolioa baino ez zuen erabiltzen) ibilgailu hibrido (gasolina/GLP) batekin ordeztu zen.

## Visesako GUZT. [ARABAKO EGOITZA NAG.+BIZKAIKO HHB+GIPUZKOAKO HHB]

### AIRERA EGINDAKO URTEKO IGORPENAK, GUZTIRA, Visesan:

Visesa osatzen duten egoitza guztiak kontuan hartuta, hona hemen aztertu diren gasen igorpenen zifrak:

AIREKO IGORPENAK Visesa	A zifra	B zifra	R zifra = A/B
	Sortutako zenbatekoa (kg)	Pertsona kop.	Efizientzia-adierazlea (kg/pertsona)
<b>NOX IGORPENAK, GUZTIRA, Visesan</b>			
GUZTIRA 2021	273,45	86	3,18
GUZTIRA 2020	237,62	85	2,80
GUZTIRA 2019	456,69	88	5,19
<b>SOX IGORPENAK, GUZTIRA, Visesan</b>			
GUZTIRA 2021	11,20	86	0,13
GUZTIRA 2020	13,81	85	0,16
GUZTIRA 2019	28,48	88	0,32
<b>PM10 IGORPENAK, GUZTIRA, Visesan</b>			
GUZTIRA 2021	24,50	86	0,28
GUZTIRA 2020	24,31	85	0,29
GUZTIRA 2019	48,12	88	0,55



2021ean, energiaren gutzitako kontsumoaren adierazlea murriztu egin da 2019aren aldean, nahiz eta igo egin den NOx-en (% 13,6); aldiz, murriztu egin da SOx-en (% 18,7) eta PMn (% 3,4), 2020ko datuaren aldean.

Ibilgailu hibrido eta/edo elektriko berriak sartzeak (horien erregaiek berotze-ahalmen txikiagoa dute, eta, beraz, gasoliozko edo gasolinazko ibilgailu tradizionalak baino aire-igorpen baxuagoak egiten dituzte), diseinu jasangarriko egoitza berriak irekitzeak (hozgarria) eta azken bi urteetako salbuespenezko pandemia-egoerak (egoitzak eta ibilgailuak gutxiago erabiltzea) eragin zuzena izan dute 2020an eta 2021ean emaitza ezin hobekak lortzean.



## 6. VISESAREN INGURUMEN-PORTAERARI BURUZKO BESTE ADIERAZLE BATZUK: INGURUMENA KUDEATZEKO JARDUNBIDE EGOKIAK BULEGO JASANGARRIAK IZATEKO

Visesak *Sektoreko Erreferentzia Dokumentua (SED)*, *administrazio publikoaren sektorerako ingurumen-kudeaketarako jardunbide egoki eta bikaintasuneko parametro konparatiboei buruzkoa* hartu du oinarri eta, hortik abiatuta, **bulego jasangarriak** izateko hainbat adierazle kalkulatu ditu, 2018tik aurrera. Hala, urtero gauzatzen dugun helburuen berrikuspenaren esparruan eta gure ingurumen-alderdi eta kudeaketa-politikarekin bat, adierazle horiek aintzat har ditzakegu gure egoitzei loturiko ingurumen-portaera hobetzeko ekintza berriak gauzatzerakoan.

### Ingurumena kudeatzeko jardunbide egokiak (IKJE) bulego jasangarriak izateko

#### IKJE 3.1.1: URTEKO ENERGIA-KONTSUMOA, GUZTIRA

Jarraian, egoitzetako kontsumo elektrikoari loturiko adierazleak ageri dira, lurzoruaren erabileraren eta kontsumo elektrikoaren arteko proportzioa kontuan hartuta, egoitzaren eta urtearen arabera.

Energia elektrikoaren urteko kontsumoa, guztira, gainazal-unitateko			
	ARABAKO EG. NA.	BIZKAIKO HHB	GIPUZKOAKO HHB
	kWh/m <sup>2</sup> /urte	kWh/m <sup>2</sup> /urte	kWh/m <sup>2</sup> /urte
GUZTIRA 2021	66,44	39,34	59,01
GUZTIRA 2020	66,31	38,99	48,02
GUZTIRA 2019	61,85	76,01	71,62

Berotegi-efektua eragiten duten eta kontsumo elektrikoari lotuta dauden gasen urteko igorpenak, gainazal-unitateko			
	ARABAKO EG. NA.	BIZKAIKO HHB	GIPUZKOAKO HHB
	t CO <sub>2</sub> /m <sup>2</sup> /urte	t CO <sub>2</sub> /m <sup>2</sup> /urte	t CO <sub>2</sub> /m <sup>2</sup> /urte
GUZTIRA 2021	0	0	0
GUZTIRA 2020	0	0	0
GUZTIRA 2019	0	0,012	0

#### APLIKATU DIREN INGURUMENA KUDEATZEKO JARDUNBIDE EGOKIAK

- Iturri berriztagarrietatik datorren elektrizitatea kontsumitzeari esker, ezabatu egin dira kontsumo elektrikoari loturiko CO<sub>2</sub> igorpenak.
- Elektrizitatearen kontsumoari buruzko datuaren jarraipena egin eta datu hori maiz jasoko dela zehaztu eta ezarri da.
- Egunerokoan ekintza txikiak aplikatzen dira baliabide horren kontsumoa jasangarria dela bermatze aldera.

**IKJE 3.1.2: URTEKO UR-KONTSUMOA, GUZTIRA**

Uraren urteko kontsumoa, guztira, gainazal-unitateko		
	ARABAKO EG. NA.	BIZKAIKO HHB
	m <sup>3</sup> /m <sup>2</sup> /urte	m <sup>3</sup> /m <sup>2</sup> /urte
GUZTIRA 2021	0,076	0,142
GUZTIRA 2020	0,049	0,109
GUZTIRA 2019	0,046	-

**APLIKATU DIREN INGURUMENA KUDEATZEKO JARDUNBIDE EGOKIAK**

- Elektrizitatearen kontsumoari buruzko datuaren jarraipena egin eta datu hori maiz jasoko dela zehaztu eta ezarri da.
- Egunerokoan ekintza txikiak aplikatzen dira baliabide horren kontsumoa jasangarria dela bermatze aldera.

**IKJE 3.1.3: URTEKO BULEGOKO HONDAKIN BIRZIKLATUEN BOLUMENA, GUZTIRA**

Bulegoetan sortzen diren, bereiz jasotzen diren eta birziklatzera bidaltzen diren hondakin ez-arriskutsuen pisu osoaren ehunekoa, sortzen diren hondakin ez-arriskutsuen guztirakoarekiko [(HEA/HEA+HH)]

	ARABAKO EG. NA.	BIZKAIKO HHB	GIPUZKOAKO HHB
	(%)	(%)	(%)
GUZTIRA 2021	53,99	85,18	56,28
GUZTIRA 2020	46,22	89,42	59,07
GUZTIRA 2019	27,53	82,55	60,98

**APLIKATU DIREN INGURUMENA KUDEATZEKO JARDUNBIDE EGOKIAK**

- Laneko hainbat barne-praktika jarri dira martxan paper-hondakinak prebenitzeko edota murrizteko; hain zuzen ere, dokumentuak digitalizatzea sustatu da.
- Hondakinak bereizteko operatibo bat zehaztu eta ezarri da, hondakin horiek jasotzeko puntuekin, hondakin horiek ahalik eta gehien birziklatu ahal izateko.
- Hondakinen sorreraren datuen jarraipena egitea eta datu hori maiz jasotzea zehaztu eta ezarri da.
- Egunerokoan ekintza txikiak aplikatzen dira baliabide horren kontsumoa jasangarria dela bermatze aldera.

**IKJE 1.3.4: “INGURUMENA ERRESPESTATZEN DUEN” ZIURTAGIRIA DUEN BULEGOKO PAPERAREN EHUNEKOA**

<b>Ingurumen-irizpideak dituen bulegoko paperaren ehunekoa</b>			
	<b>ARABAKO EG. NA.</b>	<b>BIZKAIKO HHB</b>	<b>GIPUZKOAKO HHB</b>
	<b>(%)</b>	<b>(%)</b>	<b>(%)</b>
<b>GUZTIRA 2021</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>GUZTIRA 2020</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>GUZTIRA 2019</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

5.2 MATERIALAK atalean esan den eran, eta efizientzia-adierazleetan jaso den moduan, Visasaren adierazleetako bat paperaren kontsumoa da; kasu honetan, adierazle horrek erreferentzia egiten dio A4 eta A3 tamainako paperaren urteko kontsumoari. Horri dagokionez, esan beharra dago azken hiru urteetan, baita aurretik ere, kontsumitzen den paper guztiak aintzat hartzen duela ingurumen-irizpidea Era horretara, puntu honetan IKJEren bikaintasun-parametrora iritsi da.

<b>APLIKATU DIREN INGURUMENA KUDEATZEKO JARDUNBIDE EGOKIAK</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Laneko hainbat barne-praktika ezarri dira; hala nola, dokumentazioaren digitalizazioari lehentasuna ematea edo dokumentuak bi aldeetatik inprimatzea.</li> <li>➤ Erosketa eta kontratazio publiko berdearen alde egin da eta ingurumen-irizpidedun materialak erosteko eta kontsumitzeko konpromisoa hartu da.</li> <li>➤ Laneko hainbat barne-praktika zehaztu dira, zaharkituta gera daitezkeen arren, erabiltzen jarrai daitezkeen materialak berriz erabiltzeko xedez; esate baterako, logotipo zaharra duten gutun-azalak berrerabiltzen jarraitzen dugu.</li> <li>➤ Datuak hartzeko metodologia bat dugu, zehaztutako jardunbide horien guztien jarraipena egin ahal izateko.</li> </ul>

**IKJE 1.3.5: BIDEOKONFERENTZIA-INSTALAZIOEN ESKURAGARRITASUNA ETA JARRAIPENA**

Visesak bideokonferentzia-instalazioak ditu, eta langile guztien esku jartzen ditu.

**Ingurumena kudeatzeko jardunbide egokiak (IKJE 3.2), energia jasangarriarekin eta klima-aldaketarekin lotuta**

**IKJE 3.2.5: ERAIKIN PUBLIKOETAKO URTEKO ENERGIA-KONTSUMOA, GUZTIRA**

SED honetan ezartzen denaren arabera, “3.2 IKJE, energia jasangarriarekin eta klima-aldaketarekin lotuta” puntuan, eraikin horien guztizko urteko energia-kontsumorako bikaintasun-parametro hau ezartzen da (guztizko energia-kontsumoa/guztizko azalera):

- Eraikin berriak: 60 kWh/m<sup>2</sup>/urte baino txikiagoa (Bizkaiko HHBko bulego berrien kasua).
- Berritutako eraikinak: 100 kWh/m<sup>2</sup>/urte baino txikiago (gainerako lekuei aplikagarria).

**IKJE 3.2.10: ENERGIA BERRIZTAGARRIEN ITURRIEKIN ASETZEN DEN ENERGIA-KONTSUMOAREN EHUNEKOA**

2020az geroztik, hiru egoitzek % 100 energia berriztagarria kontsumitzen dute. Bikaintasun-parametroa lortu da.

## **Jasangarritasun Energetikoaren Dekretuaren esparruko hobekuntza**

4/2019 Legearen eta 25/2019 eta 2054/2020 Dekretuen esparruan, zeinak energiaren efizientzia eta jasangarritasuna lortzera bideratuta dauden, Visesa neurriak hartzen aritu da energia-aurrezpen eta -efizientzia handiagoa lortzeko, bai azpiegituretan, bai jardueretan:

- 2018an, energia-baliabideen kontsumo jasangarria errazten duten energia-efizientziako klausulak txertatu dira kontratazioetan. Halaber, Visesaren ibilgailuen parkean gas likidotuko lehenengo autoa gehitu da, bai eta Gasteiz hiriburu arabarraren barruan joan-etorriak egiteko erosi diren bi bizikleta elektrikoak ere.
- 2019an, Eusko Jaurlaritzarekin elektrizitate garbia kontsumitzeko kontratu bat sinatu da, eta ibilgailuentzako karga elektrikoko zutoinak jarri dira gure 3 bulegoetako bitan (Gasteizen eta Bilbon), 2020rako aurreikusitako ibilgailu elektrikoen erosketa bermatzeko lehenengo urrats gisa. Ibilgailu horiekin batera, 2019an erositako gas likidotuko 5 ibilgailu berriak daude.
- 2020an, Visesaren bulego guztietan kontsumitzen da iturri berriztagarrietatik datorren energia, eta, gainera, gasolio bidezko hiru ibilgailuren *rentinga* amaitu da, eta % 100 elektrikoak diren bi ibilgailurekin eta ibilgailu hibrido batekin ordeztu dira.
- 2021ean, bi harguneko karga-puntu berri bat jarri da; horrela, Arabako egoitzako jabetzako sei aparkalekuei karga-puntuak jarri zaizkie. Era horretara, gaur-gaurkoz, Arabako eta Bizkaiko HHBen egoitzen artean aldi berean hamabi ibilgailu kargatzeko aukera daukagu.

## **Ingurumena kudeatzeko jardunbide egokiak (IKJE 3.11), kontratazio publiko ekologikoan**

### **IKJE 3.11.1: INGURUMEN-IRIZPIDEAK DITUZTEN LIZITAZIOEN EHUNEKOA**

2021ean egindako lizitazioen % 100ek ingurumen-irizpideak izan ditu.

## 7. PROIEKTUETAKO INGURUMEN-PORTAERA

Gure sustapen guztiek zorrotz betetzen dituzte “**Visesaren diseinu- eta eraikuntza-irizpideak**”. Irizpide horiek autoexigentzia eta gainprestazio garrantzitsuak hartzen dituzte barne, indarrean dagoen legediaren aldean; hori bereziki aipagarria da energia-efizientiaren eta jasangarritasunaren arloan.

Arkitektoak eta zuzendaritza fakultatiboak kontratatzerakoan, Visesak hainbat irizpide aplikatzen ditu horiek baloratu, esleitu eta hautatzeko, besteak beste:

- Ekodiseinuaren eta ingurumena kudeatzeko sistemen ziurtagiria, ISO 14001 edo antzekoak.
- Arkitekturako hobekuntza gisa baloratzen diren diseinu-irizpideak, energiaren eta lehengaien kontsumoari, zaratari, ingurune naturalari, higienerari eta argiztapenari dagokienez; kasu batzuetan, irizpide horiek babes publikoko etxebizitzak diseinatzeako ordenantzen beraren gainetik daude.
- Arkitektoek aurkeztutako ingurumen-irizpideak edo bestelako irizpideak ere baloratzen dira, eta puntuazio altuagoa jasotzen dute hornitzailearen lizitazioan.

**Visesak kudeatzen dituen proiektuetan, 3 ekodiseinu-maila aurki ditzakegu** urtean idatzitako proiektuetarako:

PROIEKTUEN EKODISEINU-MAILA Visesak KONTRATATUAK	2019	2020	2021
Azterketa egin duen estudioak ekodiseinua aplikatzen dio Visesaren proiektuari (ekodiseinu-maila altua)	0	3	2
Gure proiektua idatzi duen estudioak ekodiseinu-ziurtagiria du eta Visesaren diseinu- eta eraikuntza-irizpideak erabiltzen ditu (ekodiseinu-maila ertaina)	3	0	1
Gure proiektua idatzi duen estudioak Visesaren diseinu- eta eraikuntza-irizpideak erabiltzen ditu, baina ez besterik (ekodiseinu-maila txikia)	1	0	0

(\*) Taulan, obra-lizitazioa dagokien urtean gauzatu duten proiektuak adierazi dira.

**Energia-ziurtagiria hobetzea ere ingurumen- eta kalitate-bermetzat hartzen da.** Hori dela eta, Visesak % 30eko energia-aurrezpena ziurtatzen du, gutxienez, bere eraikin guztietan; horrek esan nahi du A, B eta C energia-kalifikazioak dituztela Visesaren eraikinek.

Hurrengo taulan, proiektuetan zehaztutako **AURREIKUSITAKO energia-kalifikazioen zerrenda** (teorikoak diseinuan) eta azken urteotan gauzatu diren proiektuetan lortutako **BENETAKO energia-kalifikazioak** (praktikan) ageri dira.

Visesaren SUSTAPENETAN LORTUTAKO ENERGIA-KALIFIKAZIOAK	TEORIKOA	BENETAKOA
<b>2019</b>		
B-045. 58 VS+52 VPOa+53 VPO. SESTAO (Vega Galindo)	B	B
B-087. 32 VPOa. SANTURTZI	A	A
B-070. 65 VPO. BASAURI (Sarratu)	A	A
G-063. 70 VPOa. MORLANS (Donostia)	A	A

Visesaren SUSTAPENETAN LORTUTAKO ENERGIA-KALIFIKAZIOAK	TEORIKOA	BENETAKOA
<b>2020</b>		
<b>B-049. 190 VPO. BOLUETA (Bilbao)</b>	<b>A</b>	<b>A</b>
<b>2021</b>		
<b>B-125. 91 VS. ITURRIBARRI (Getxo)</b>	<b>A</b>	<b>A</b>
<b>B-090. 78 VPO. BASURTO-KRUG (Bilbao)</b>	<b>A</b>	<b>A</b>
<b>B-086. 72 VPO. BARAKALDO</b>	<b>B</b>	<b>B</b>
<b>B-097. 65 VPO. BASAURI</b>	<b>A</b>	<b>A</b>
<b>G-070. 20 VPOa. ZARAUTZ</b>	<b>A</b>	<b>A</b>
<b>G-070. 30 VPT. ZARAUTZ</b>	<b>A</b>	<b>A</b>

**BOE:** Babes Ofizialeko Etxegizitza– **BOEa:** Babes Ofizialeko Etxebizitza alokairuan– **ES:** Etxebizitza Soziala

Aurreko taula horretan ikus daitekeen eran, 2017ko kasu batean izan ezik, Visesak mantendu egin ditu proiektuen diseinuan aurreikusi ziren energia-kalifikazioak.

<b>APLIKATU DIREN INGURUMENA KUDEATZEKO JARDUNBIDE EGOKIAK</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Sustapen guztien jasangarritasuna diseinatu eta ebaluatzen da, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitzarako Eraikuntza Jasangarrirako Gidaren bidez.</li> <li>➤ Etxebizitza guztiak A (edo goragoko) kalifikazioko etxetresna elektrikoekin hornitzen dira.</li> <li>➤ Kontratazio publiko berdea: Eraikuntza-proiektuak eta -obrak idazteko lizitazio-agirietan ingurumen-irizpideak txertatu dira.</li> <li>➤ Ihoberekin lankidetzan hasi gara ekonomia zirkularrean lan egiteko.</li> </ul>

**Plangintzaren arabera erabilera finkatuko lurzorua hartzeari** dagokionez, 2019an, 2020an eta 2021ean, 227 etxebizitza, 17 etxebizitza eta 125 etxebizitza lortu dira, hurrenez hurren.

## 8. INGURUMEN-PORTAERA OBRETAN ETA SUSTAPEN BERRIETAN

Visesak sustatzen dituen obra guztietan dago betekizun hau: **eraikuntza-enpresa guztiek ingurumena kudeatzeko sistema bat izan behar dute**, eta sistema hori ezarrita eta ziurtatuta egon behar da. Hori ezinezkoa den kasu zehatzetarako, Visesak ingurumen-kudeaketako plan bat dauka, eta, beraz, eraikuntza-enpresak horri jarraitu behar dio exekututako duen obra gauzatzerakoan.

Halaber, **ingurumen-portaera definitzen duten alderdi nagusien kontrola eta jarraipena gauzatzen du Visesak obretan eta sustapen berrietan**. Horretarako, Visesak hiru hilean behin eskatzen die eraikuntza-enpresei egin dituzten obrei loturiko ingurumen-informazioa aurkez dezatela.

**Visesak datu horiek jasotzeko protokolo bat egin, onetsi eta ezarri du**; protokolo horren iraupen txikiagoa da, eta, aldi berean, posible den guztietan, datuen jatorria eta zehaztasuna ziurtatzen ditu, kontuan hartuta datu horiek askotariko obra, sustapen eta eraikuntza-enpresatatik datozela.

Jarraian, **2021, 2020 eta 2019ari dagozkion** bildutako **datuak** erakusten dira.

### Obrei eta sustapen berriei loturiko zeharkako ingurumen-alderdiak

Atal honetan aurkeztutako urteko datuak eraikuntza-enpresek sustapen hauei buruz emandakoak dira:

2019	2020	2021
B-045. 105BOE + 58ES. <b>VEGA GALINDO</b> (Sestao) B-046. 190BOE. <b>BOLUETA</b> (Bilbao) B-070. 65BOE. <b>BASAURI</b> (Sarratu) B-087. 32BOE. <b>SANTURTZI</b> (San Juan)	B-095. 84ES. <b>ORTUELLA</b>	B-090. 78BOE. <b>BASURTO</b> (Bilbao) B-086. 72BOE. <b>B° CARMEN</b> (Barakaldo) B-097. 65BOE. <b>SARRATU</b> (Basauri)
<b>Guztira: 450 etxe.</b>	<b>Guztira: 84 etxe.</b>	<b>Guztira: 215 etxe.</b>

### **ENERGIA ELEKTRIKOAREN KONTSUMOA**

Eraikuntzaren sektorean egindako ikerketen arabera, eraikin bati loturiko energia-kontsumo osoaren % 30-40 hornitzaileen energia bihurtzeko instalazioetan ematen da. Hala ere, datu horiek ez dira oso zehatzak eta memoria honetan ez da aintzat hartu hornitzaileei loturiko kontsumo elektrikoa; izan ere, obra egiteari loturiko kontsumoa baino ez da zenbatu, eraikuntza-enpresek beraiek emandako informazioa oinarri hartuta.

ELEKTRIZITATEAREN KONTSUMOA OBREN FASEAN	2019	2020	2021
<b>Elektrizitatearen kontsumoaren kwh</b>	<b>116.082</b>	<b>28.695</b>	<b>79.803</b>
<b>Elektrizitatearen batz besteko kontsumoa (kwh/eraikitako etxebizitza)</b>	<b>258,0</b>	<b>341,6</b>	<b>371,2</b>

Esan den eran, energia elektrikoaren kontsumorik handiena eraikitako etxebizitzaren bitartez erabilgarrian zehar gertatzen den zeharkako kontsumoak zehazten du; hori dela eta, eraikuntzaren jasangarritasunari loturiko honako jarduketak hauek gauzatzen dira sustapen guztietan:

- Sustapen guztien jasagarritasunaren ebaluazioa, IHOBek argitaratutako “Eraikuntza eta birgaitze jasagarriaren gida Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzetarako” erabilita (Visesak gida hori egiten lagundu du).
- A kalifikazioa edo hobea duten etxetresna elektrikoekin ekipatutako etxebizitzak.
- Hiri-altzariak eta eraikuntzako elementuak hautatzeko, honako faktore hauek hartuko dira aintzat: bizitza erabilgarria (ahalik eta luzeena); mantentzea (ahalik eta txikiena); ordezkapena (ahalik eta errazena); eta ingurumen-inpaktua (ahalik eta txikiena: legez kontrolatutako zura, birziklatutako materialak, energia berriztagarrien aprobetxamendua...).

## ERREGAIAREN KONTSUMOA

Hau izan da Visesaren sustapenetan egon den gasolio-kontsumoa, obrak exekutatu bitartean:

GASOLIOAREN KONTSUMOA OBREN FASEAN	2019	2020	2021
Kontsumitutako gasolioaren MWh	23,5	*	260,9
Gasolioaren batz besteko kontsumoa (MWh/ eraikitako etxebizitza)	0,05	*	1,21

\*Ez dago 2020ko gasolio-kontsumoaren daturik obra-fasean

## KONTSUMO ELEKTRIKOEN IGORPENAK

Hauek izan dira Visesaren sustapenetako obrak exekutatu bitartean izan diren elektrizitatearen eta erregaien bidezko energia-kontsumoari lotutako CO<sub>2</sub> igorpenak:

CO <sub>2</sub> IGORPENAK OBREN FASEAN	2019	2020	2021
Obrako kontsumo elektrikoari loturiko igorpenak (tCO <sub>2</sub> bal./eraikitako etxebizitza)	0,06	0,08	0,09
Obrako erregai-kontsumoari loturiko igorpenak (tCO <sub>2</sub> bal./eraikitako etxebizitza)	0,01	*	0,29
Igorpenak (tCO <sub>2</sub> bal./eraikitako etxebizitza) GUZTIRA	0,07	0,08	0,37

\*Ez dago 2020ko gasolio-kontsumoaren daturik obra-fasean

## URAREN KONTSUMOA

Hona hemen Visesaren sustapenetako obrak exekutatu bitartean izan den uraren kontsumoari loturiko informazioa:

URAREN KONTSUMOA OBREN FASEAN	2019	2020	2021
m <sup>3</sup> ur	36.135	2.795	6.390
Uraren batz besteko kontsumoa (m <sup>3</sup> / eraikitako etxebizitza)	80,30	33,27	29,72



Halaber, Visesak bere ekarpena egiten du eraikitako etxebizitzek duten uraren kontsumo-efizientzia hobetzeko; horretarako, honako diseinu- eta eraikuntza-irizpide hauek txertatzen ditu exekutatu beharreko proiektuetan:

- Lorategi-eremuak kontzentratuak eta eskala txikikoak izatea, ureztatu beharreko guneak ahalik eta gehien murrizteko. Lorategirik gabeko eremuak barrubigunez, zuhaitz-azalez, legarrez, teila apurtuz edo antzeko materialez estaltzea, ureztatze ura lurrundu ez dadin.
- Soropilaren ordez tapiz erako landareak, zuhaixkak edota legar, zuhaitz-azal, zur, teila eta abarrezko gainazalak jartzea.
- Klimarako eta ingurunerako egokiak diren eta ur zein zaintza gutxi behar duten landare espezieak erabiltzea. Ahal den neurrian, landare espezieak autoktonoak izango dira.
- Zuhaitzak eta zuhaixkak erresistenteak izango dira, ahal dela hosto iraunkorrekoak eta fruiturik gabeak; horrela, zaintza gutxiago beharko dute eta ingurua ez da hainbeste zikinduko.

### HONDAKINEN SORRERA

Visesaren sustapenetako obretan sortzen diren hondakinak eraikuntzako eta eraisketetako hondakinak (EEH, hemendik aurrera) dira; hondakin horiek bereizi egiten dira, motaren arabera, bai eta sailkatu ere, arriskutsuak diren ala ez kontuan hartuta.

OBREN FASEKO HONDAKIN EZ -RRISKUTSUAK	2019	2020	2021
Sortutako hondakin ez-arriskutsuen t	5.791,5	1.180	2.121,7
Bataz beste sortutako HEA (t / eraikitako etxebizitza)	12,87	14,05	9,87
OBREN FASEKO HONDAKIN ARRISKUTSUAK	2019	2020	2021
Sortutako hondakin arriskutsuen t	10,4	0	0,8
Bataz beste sortutako HA (t/eraikitako etxebizitza)	0,02	0	0,004

### ENERGIA-ZIURTAGIRIA

Lehenago ere esan dugun moduan, energia-ziurtagiria hobetzea ere ingurumen- eta kalitate-bermetzat hartzen da. Hori dela eta, Visesak % 30eko energia-aurrezpena ziurtatzen du, gutxienez, bere eraikin guztietan; horrek esan nahi du A, B eta C energia-kalifikazioak dituztela sustapenak osatzen dituzten etxebizitzek.

2019an, Visesan 399 etxebizitza ziurtatu dira energetikoki; 2020an, 306 eta 2021ean, 265. Halaber, honako A, B edo C kalifikazio hauek dituzten etxebizitzek ehuneko bat lortu da:

LORTUTAKO ENERGIA-KALIFIKAZIOAK Visesaren SUSTAPENETAKO ETXEBIZITZETAN	2019	2020	2021
A kalifikazioa	%18	%100	%80
B kalifikazioa	%82	%0	%20
C kalifikazioa	%0	%0	%0%

Visesak kalifikazio energetiko eraginkorrek dituzten etxebizitzak eraikitzea sustatzen du, horiek beren bizi-ziklo osoan sortutako ingurumen-inpaktua murrizteko.

Kalifikazio energetiko eraginkor horien ondorioz, Visesak murriztu egin ditu atmosferara isuritako etxebizitzaren CO<sub>2</sub> igorpenak m<sup>2</sup>-ko, horien bizitza baliagarrian zehar. Isuriaren murrizketa horri esker, Visesaren sustapenetan sartutako energia-eraginkortasuneko hobekuntzak ezarri ahal izan dira.

### **Eraikuntza-enpresen ingurumen-portaera**

Visesaren sustapenetako obrak egiten dituzten eraikuntza-enpresek UNE-EN ISO 14001 edo antzeko ingurumena kudeatzeko sistemak dituzte. Eraikuntza-enpresa horiek askotariko ekintzak eta jardunbide egokiak ezartzen dituzte kontsumoa, hondakinak, isuriak, igorpenak eta zarata murrizteko obrak exekutatzen dituzten bitartean.

Hona hemen obren fasean eraikuntza-enpresek energiaren kontsumoa (elektrizitatea edo gasolioa) eta uraren kontsumoa murrizteko eta igorpenak kontrolatzeko gauzatu dituzten ekintzetako batzuk:

- Energia arduraz kontsumitzeko sentsibilizazio kanpainak egitea, obrako pertsona guztiei zuzenduak (informazioa, prestakuntza, kartelak edo jardunbide egokiaren eskuliburua).
- Argi naturala ahalik eta gehien erabiltzea eta aldi-aldi argiztapen-maila eta klimatizazio-sistemak berrikustea, energiaren kontsumoa optimizatzeko.
- Energia aurrezten duten argiztapen-sistemak erabiltzea eta tenporizadoredun etengailuak instalatzea zerbitzu-guneetan, aldageletan eta abarretan.
- Erabiltzen ari ez diren ekipoak eta argiak itzaltzea.
- Obrako kontsumoak kontrolatzea.
- Ibilgailuak eta makina astunak egoera onean mantentzea, gehiegizko kontsumoak saihesteko, baita makinaren mugimenduak antolatu eta optimizatzea ere.
- Mailegu-guneak eta zabortegeak aukeratzeko irizpideetako bat izatea horiek obratik zein distantzira dauden; horrela, garraioak eragindako erregai-kontsumoa murriztu ahal da.
- Presioa mugatzeko gailuak eta kontsumo baxuko difusoreak eta elementu sanitarioak instalatzea, baita helduleku bakarretan tenporizadoredun txorrotak ere, laneko instalazioetan.
- Bideak bustitzean eta egiturak ontzean, uraren erabilera optimizatzea.
- Makinak eta ibilgailuak presiopeko urarekin garbitzea.
- Iturgintza-instalazioak ikuskatzea, ihesak hautemateko. Arreta berezia jarriko zaie ur beltzen eta isuriaren hodie.
- Makinen zaintza-lanak zorrotasun handiz kontrolatzea, oliorik edota hidrokarburorik isurtzen ez dela ziurtatzeko, baita makinak garbitzetik eratorritako ur zikina zuzenean isurtzea debekatzea ere.
- Lurraren drainatze-sare naturalak uneoro behar bezala funtzionatzen duela bermatzea.
- Obraren azkar ekiteko material xurgagarriak izatea, nahi gabeko isuriren bat egongo balitz ere (sepiolita, tapaki xurgagarriak...).
- Produktu kimikoak behar bezala gordetzeko gune bat gaitzea. Biltegiatze-gune hori euste-azpil baten gainean egotea, nahi gabeko isuririk edo ihesik egonez gero ere, segurtasuna bermatu ahal izateko.
- Kanaletak, azpilak eta hormigoi-hondakinak garbitzeko gune bat zehaztea eta behar bezala seinaleztatzea.

Obrek irauten duten bitartean eraikuntza- eta eraisketa-hondakinek (EEH) ingurumenean duten eragina murrizteko eta sortutako beste hondakin batzuk gaika jasotzean horien kudeaketa errazteko, eraikuntza-enpresek honako ekintza hauek gauzatu dituzte, besteak beste:

- Obretan sortutako EEH guztiak jatorrian bereiztea: harriak, egurra, metalak, igeltsua, ehunak, plastikoak eta hondakin arriskutsuak. Gainera, proiektuaren dokumentuetan jaso dute hondakin bakoitzetik zenbat sortzea aurreikusten zen eta horiek nola sailkatu, gorde, garraiatu eta botako ziren.
- Obra bakoitzean sortutako EEHak kontrolatzea eta horien jarraipena egitea.
- Obraren gune garbi bat gaitzea, edukiontzi kopuru aldagarri batekin, fase bakoitzaren beharren arabera, hondakin ez-arriskutsu mota bakoitzerako, baita hondakin arriskutsuetarako beharrezko edukiontziekin ere. Azken horiek obrako puntu finko batean egon dira, behar bezala seineztatuta.
- Mantentze-lanei dagozkien zeregin mekanikoak horretarako baimena duten eta hondakinak kudeatzaile baimendun batekin kudeatzen dituzten tailerretan egon dira.
- Hondakinak obran bertan berrerabiltzea (egurra).

Obra-fasean, indarreko araudia betetzeaz gain, garrantzitsua da beste hainbat neurri ere ezartzea, zarata, bibrazioak eta askatzen den hautsa murrizteko; hona hemen neurri horietako zenbait:

- Jarduera zaratatsuak egunez bakarrik egitea eta, ezohiko eran, gaueko ordutegian jarduera zaratatsurik egin behar izanez gero, horretarako baimena eskatzea udalari.
- Makina guztiek dagozkien ikuskapen teknikoak jaso dituztela egiaztatzea.
- Zarata gutxi egiten duten makina modernoak erabiltzea.
- Obraren baimendutako gehieneko abiadura murriztea.
- Instalazio osagarriak kutsadura akustikoa ingurune sentikorragoetara transmititzeko oztopo gehien zuten guneetan jartzea.
- Behar bezala seinalizatzea, informazio-kanpainak egitea eta ingurumen-kudeaketako jardunbide egokiei loturiko barne-jarraibideak betetzea.
- Obretara iristeko aurretik existitzen ziren bideak erabiltzea; horrela, ez da beharrezkoa izango sarbide berriak eraikitzea edo hutsik zeuden lursailak okupatzea.
- Obraren eragina jaso dezakeen gainazala mugatzea (horretarako, mugen balizajea egin da).
- Materialak kargatzeko eta garraiatzeko lanak optimizatzea, egunean ahalik eta joan-etorri gutxien egite aldera.
- Materialak ebakitzeko metodo hezeak erabiltzea.
- Obretako bideak eta materialak garraiatzeko erabiltzen diren guneak zein ibilgailuak aldi-aldi bustitzea.
- Kamioetan garraiatutako materiala olandez estaltzea eta lurrak mugitu bitartean kamioen gorpilak garbitzea.

## 9. INGURUMENARI LOTURIKO LEGE-BETEKIZUNEN ETA BESTE BETEKIZUN BATZUEN BETETZE-MAILA

### Ingurumenari loturiko lege-betekizunen betetze-maila:

Visesak adierazten du erakundeak garatzen dituen jarduerak indarrean dagoen ingurumen-araudi aplikagarria (Europakoa, nazionala eta tokikoa) eta gure borondatez sinatu ditugun baldintzak betetzeko gauzatzeko direla.

INGURUMENA	EGOERA
<b>SAILKATUTAKO JARDUERAK</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>Apirilaren 23ko 7/2012 Legea, barne-merkatuko zerbitzuei buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak abenduaren 12an emandako 2006/123/EE Direktibara egokitze aldera zenbait lege aldatzekoa (VIII. kapitulua). (2012/10/30eko 84. zenbakiko EHAA).</li> <li>Abenduaren 9ko 10/2021 Legea, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena.</li> </ul>	<b>ARABAKO EGOITZA</b> <b>NAGUSIA:</b> Irekitzeko lizentzia: 2009/04/14
	<b>BIZKAIKO HHB:</b> Irekitzeko lizentzia: 2019/07/18
	<b>GIPUZKOAKO HHB:</b> Irekitzeko lizentzia: 2013/04/16

<b>HIRI HONDAKINEKIKO PAREKAGARRIAK DIREN HONDAKINAK</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>Abenduaren 9ko 10/2021 Legea, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena (EHAA, 262. zk., 2021/12/31) (EHAA, 5. zk., 2022/01/10).</li> <li>Apirilaren 8ko 7/2022 Legea, ekonomia zirkularerako hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoa (BOE, 85. zk., 2022/04/09).</li> <li>Maiatzaren 4ko 17/2012 Legegintzako Errege Dekretua, ingurumen arloko premiazko neurriei buruzkoa. Zenbait berrikuntza egiten dizkio 22/2011 Legeari (2012ko maiatzaren 5eko BOE).</li> <li>SND/271/2020 Agindua, martxoaren 19koa, zeinaren bidez jarraibideak ezartzen baitira COVID-19ak eragindako osasun-krisialdian hondakinak kudeatzeko (BOE, 79 zk., 2020/03/22).</li> <li>Uztailaren 7ko 646/2020 Errege Dekretua, Hondakinak zabortegietan utziz ezabatze jarduerara arautzen duena (BOE, 187. zk., 2020/07/08).</li> <li>Gasteizko hondakinen garbiketa, bilketa eta garraioari buruzko udal ordenantza (ALHAO, 85 zk., 2005/7/29) eta horren aldaketak, (ALHAO, 77 zk., 2007/6/27 eta ALHAO, 88 zk., 2010/08/06koa).</li> <li>Bilboko Udaleko Ingurumena Babesteko Udal Ordenantza (2000/06/10).</li> <li>Donostiako Udaleko hiri hondakinak jasotzeko udal ordenantza (GAO 74, 02/04/23) eta 2010eko urria (GAO 207, 2010/10/28) eta 2014ko ekaina (GAO 106, 2014/10/06).</li> <li>Martxoaren 20ko 6/2019 Foru Araua, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 Plan Orokorra onesten duena (19/03/25eko 57. zenbakiko GAO).</li> </ul>	<b>ARABAKO EGOITZA</b> <b>NAGUSIA:</b> ESCORekin kudeatzen dira.
	<b>BIZKAIKO HHB:</b> Udal-bilketari entregatzen zaio.
	<b>GIPUZKOAKO HHB:</b> Udal-bilketari entregatzen zaio.

INGURUMENA	EGOERA
<p><b>HONDAKIN ARRISKUTSUAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Apirilaren 8ko 7/2022 Legea, ekonomia zirkularerako hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoa (BOE, 85. zk., 2022/04/09).</li> <li>▪ 833/1988 ED aldatzen duen ekainaren 20ko 952/1997 ED.</li> <li>▪ 2014ko abenduaren 18ko Batzordearen 2014/955/EB Erabakia, hondakinen zerrendari buruzko 2000/532/EE Erabakia aldatzekoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauarekin bat etorritz (DOUE L370/44 30/12/2014).</li> <li>▪ 2014ko abenduaren 18ko 1357/2014 Erregelamendua, Batzordearena, zeinaren bidez ordeztzen baita Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauaren III. eranskina (zuzentarau hori hondakinei buruzkoa da eta zuzentarau jakin batzuk baliogabetu zituen). (EBAO, 365. zk., 2014/12/19).</li> <li>▪ Ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretua, Estatuaren Lurraldearen Barruko Hondakinen Lekualdaketa arautzen duena (2020/06/19ko 171. zenbakiko BOE).</li> <li>▪ 646/2020 Dekretua, uztailaren 7koa, Hondakinak hondakindegietan biltegitatuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena (BOE, 187 zk., 2020/07/8).</li> </ul>	<p>Hondakinen Ekoizpenaren eta Kudeaketaren Erregistroan, Hondakin Arriskutsuen Ekoizle Txikien atalean, inskribatetik salbuesteko jakinarazpena, 2004-10-25ekoa. Salbuespen-jakinarazpenak, 2017-01-19an eta 2021-01-20an eguneratuak.</p>
<p><b>HONDAKIN EZ-ARRISKUTSUAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Apirilaren 8ko 7/2022 Legea, ekonomia zirkularerako hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoa (BOE, 85. zk., 2022/04/09).</li> <li>▪ 2009ko otsailaren 24ko 49/2009 Dekretua, hondakinak hondakindegietan biltegitatuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena (2009/03/18ko 54. zenbakiko EHAA); 423/1994 Dekretua indargabetzen du (1994/12/19ko 239. zenbakiko EHAA).</li> <li>▪ 2014ko abenduaren 18ko Batzordearen 2014/955/EB Erabakia, hondakinen zerrendari buruzko 2000/532/EE Erabakia aldatzekoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauarekin bat etorritz (DOUE L370/44 30/12/2014).</li> <li>▪ Martxoaren 19ko SND/271/2020 Agindua, zeinaren bidez hondakinak kudeatzeari buruzko jarraibideak ezartzen baitira COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiak irauten duen bitartean. (2020/03/22ko 79. zenbakiko BOE).</li> <li>▪ Ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretua, Estatuaren Lurraldearen Barruko Hondakinen Lekualdaketa arautzen duena (2020/06/19ko 171. zenbakiko BOE).</li> <li>▪ 646/2020 Dekretua, uztailaren 7koa, Hondakinak hondakindegietan biltegitatuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena (BOE, 187 zk., 2020/07/8).</li> <li>▪ Agindua, 2021eko martxoaren 3koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez 2020ko martxoaren 4ko Agindua aldatzen den.</li> </ul>	<p>Hiru egoitzetarako hondakin ez-arriskutsuen ekoizleen komunikazioaren eguneraketa 2022/09/29an. Inskripzio-kodea: 16P04EU0100036388.</p>
<p><b>GAILU ELEKTRIKO ETA ELEKTRONIKOAK (GEE)</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretua, gailu elektriko eta elektronikoen hondakinei buruzkoa (2015eko otsailaren 21eko 45. zenbakiko BOE)</li> <li>▪ PCM/810/2020 Agindua, abuztuaren 31koa, Aparatu elektriko eta elektronikoen substantzia arriskutsu jakin batzuk erabiltzeko murriztapenei buruzkoa martxoaren 22ko 219/2013 Errege Dekretuaren III. eta IV. eranskinak aldatzen dituena. (BOE, 235. zk., 2020/09/02)</li> <li>▪ 27/2021 Errege Dekretua, pilei eta metagailuei eta horien hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzko otsailaren 1eko 106/2008 Errege Dekretua eta gailu elektriko eta elektronikoen hondakinei buruzko otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretua aldatzen dituena (BOE, zk. 17, 2021/01/20)</li> </ul>	<p>GEE hondakinak Gasteizko Egoitza Nagusian zentralizatzen dira. Hondakinak baimendutako kudeatzaile bati ematen zaizkio.</p>

INGURUMENA	EGOERA
<p><b>PILA ETA METAGAILUEN HONDAKINAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Otsailaren 1eko 106/2008 Errege Dekretua, Pila eta metagailuei, eta horien hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzkoa. (2008/02/12ko 37. zenbakiko BOE).</li> <li>▪ Otsailaren 1eko 106/2008 Errege Dekretua, Pila eta metagailuei, eta horien hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzkoa, aldatzen duen 2010/07/23ko 943/2010 Errege Dekretua. (2010/08/05eko 189. zenbakiko BOE).</li> <li>▪ Otsailaren 1eko 106/2008 Errege Dekretua, Pila eta metagailuei, eta horien hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzkoa, aldatzen duen uztailaren 24ko 710/2015 Errege Dekretua. (2015/07/25eko 177. zenbakiko BOE).</li> <li>▪ 27/2021 Errege Dekretua, urtarrilaren 19koa, pilei eta metagailuei eta horien hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzko otsailaren 1eko 106/2008 Errege Dekretua eta gailu elektriko eta elektronikoen hondakinei buruzko otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretua aldatzen dituena</li> </ul>	<p><b>ARABAKO EGOITZA</b> <b>NAGUSIA:</b> Udal-garbiguneetan entregatzen dira. UPS bateriak baimendutako kudeatzaileari ematen zaizkio.</p> <p><b>BIZKAIKO HHB:</b> Udal-garbiguneetan entregatzen dira.</p> <p><b>GIPUZKOAKO HHB:</b> Udal-garbiguneetan entregatzen dira.</p>
<p><b>BEHE-TENTSIOA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ 1989ko urriaren 29ko Agindua, behe-tentsioko instalazio elektrikoetarako dagokienez, martxan jartzea, zabaltzea, titularitatea aldatzea eta aldizkako azterketetan bete behar diren baldintzak finkatzen dituena. (1989/11/92ko 206. zenbakiko EHAA).</li> <li>▪ Abuztuaren 2ko 842/2002 Errege Dekretua, behe-tentsiorako Erregelamendu Elektroteknikoa onartzen duena. (2002/09/18ko 224. zenbakiko BOE).</li> <li>▪ ITC-BT-04: instalazioen dokumentazioa eta martxan jartzea.</li> <li>▪ ITC-BT-05: ikuskatzeak.</li> <li>▪ ITC-BT-18: lur-konexioen instalazioak.</li> <li>▪ ITC-BT-33: obretarako behin-behineko eta aldi baterako instalazioak.</li> <li>▪ Abenduaren 12ko 1053/2014 Errege Dekretua, zeinaren bidez BT 52 "Helburu berezietako instalazioak. Ibilgailu elektrikoak birkargatzeko azpiegitura" Jarraibide Tekniko Osagarria onartzen baita. (2014/12/31ko 316. zenbakiko BOE).</li> <li>▪ Industriaren eta Enpresa Txiki eta Ertainen Zuzendaritza Nagusiaren 2020ko urtarrilaren 9ko Ebazpena, behe-tentsiorako Erregelamendu Elektroteknikoaren (abuztuaren 2ko 842/2002 Errege Dekretuaren bitartez onetsi zen) ITC-BT-02 jarraibide tekniko osagarria osatzen duten arauen zerrenda eguneratzen duena.</li> <li>▪ 81/2020 Dekretua, Industria Segurtasunari buruzkoa (EHAA, 137. zk., 2020/07/14).</li> <li>▪ BT 52 Ikuskaritza Tekniko Osagarria (ITO) "xede berezietarako instalazioak. Ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegitura".</li> </ul>	<p><b>ARABAKO EGOITZA</b> <b>NAGUSIA:</b> -Martxan jartzea: 2009/01/22 -OCaren azken ikuskatzea: 2019/06/07 -Hurrengo ikuskatzea: 2023/06/07</p> <p><b>BIZKAIKO HHB:</b> -Martxan jartzea: 2019/06/17 -Hurrengo ikuskatzea: 2024/06/10</p> <p><b>GIPUZKOAKO HHB:</b> -Martxan jartzea: 08.04.2013</p>
<p><b>GOI-TENTSIOA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Maiatzaren 9ko 337/2014 Errege Dekretua, goi-tentsioko instalazio elektrikoetako baldintza teknikoetarako eta segurtasun-bermeetarako buruzko erregelamendua eta ITC-RAT 01 eta 23 bitarteko jarraibide tekniko osagarriak onartzen dituena (2014/06/09ko 139. zenbakiko BOE).</li> <li>▪ 337/2014 Errege Dekretuko akatsak zuzentzea (2014/06/09ko 139. zenbakiko BOE).</li> <li>▪ Urtarrilaren 16ko 5/2018 industriako segurtasunaren erregelamenduaren menpeko instalazioetarako eta ekipamenduetarako berrikuspen prozedura ezartzen duena (2018/01/29ko 20. zenbakiko EHAA).</li> <li>▪ 48/2020 DEKRETUA, martxoaren 31koa, zeinaren bidez arautzen baitira energia elektrikoaren ekoizteko, garraiatzeko eta banatzeko instalazioen administrazio-baimenaren prozedurak. (EHAA, 78. zk., 2020/04/24)</li> <li>▪ 81/2020 Dekretua, Industria Segurtasunari buruzkoa (EHAA, 137. zk., 2020/07/14).</li> </ul>	<p><b>ARABAKO EGOITZA</b> <b>NAGUSIA:</b> Transformadore bat dauka. -Martxan jartzea: 2009/01/22 -OCaren azken ikuskatzea: 2019/12/02 -Hurrengo ikuskatzea: 2022/12/02</p> <p><b>BIZKAIKO HHB:</b> ez dagokio</p> <p><b>GIPUZKOAKO HHB:</b> ez dagokio</p>

INGURUMENA	EGOERA
<p><b>EITE</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Uztailaren 20ko 1027/2007 Errege Dekretua, Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamendua onartzen duena (2007ko abuztuaren 29ko BOE).</li> <li>▪ 2008/07/22ko Agindua, Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduari (EITE) lotutako arauak xedatzen dituena (2008/09/23ko 181. zenbakiko EHAA).</li> <li>▪ Azaroaren 27ko 1826/2009 Errege Dekretua, eraikinetako instalazio termikoen erregelamendua aldatzen duena, uztailaren 20ko 1027/2007 Errege Dekretuak onetsi zuena (2009/12/11ko 298. zenbakiko BOE).</li> <li>▪ 2010eko otsailaren 19ko Ebazpena, Eraikinetako Instalazio Termikoen Aldizkako Ikuskapenei buruzko Eskuliburua onesten duena. (2010/05/13ko 88. zenbakiko EHAA).</li> <li>▪ Apirilaren 5eko 238/2013 Errege Dekretua, Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduko zenbait artikulua eta jarraibide tekniko aldatzen dituena, uztailaren 20ko 1027/2007 Errege Dekretuak onetsi zuena (2013/04/13ko 89. zenbakiko BOE).</li> <li>▪ Urtarrilaren 16ko 5/2018 industriako segurtasunaren erregelamenduaren menpeko instalazioetarako eta ekipamenduetarako berrikuspen prozedura ezartzen duena (2018/01/29ko 20. zenbakiko EHAA).</li> <li>▪ 2020/81 Dekretua, Industria Segurtasunari buruzkoa (2020/07/14ko 137. zenbakiko EHAA).</li> <li>▪ 736/2020 Errege Dekretua, abuztuaren 4koa, eraikinen instalazio termikoetako banakako kontsumoen kontabilizazioa arautzen duena. (BOE, 212. zk., 2020ko abuztuaren 6koa).</li> <li>▪ 178/2021 Errege Dekretua, martxoaren 23koa, zeinaren bidez aldatzen den 1027/2007 Errege Dekretua, uztailaren 20koa, Eraikinetako Instalazio Termikoen Araudia onesten duena (EHAA, 71. zk., 2021/03/24).</li> <li>▪ 390/2021 Errege Dekretua, ekainaren 1ekoa, eraikinen eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko oinarrizko prozedura onartzen duena (BOE, 131. zk., 2021/06/02), zeinaren bidez 178/2021 EDaren 31. puntua aldatzen den, 1.2.4.1.2.1. ITan ("Beroa sortzen duten errendimendu energetikoen gutxieneko betekizunak") (BOE, 131. zk., 2021eko ekainaren 2koa).</li> <li>▪ 2022ko urtarrilaren 31ko Ebazpena, Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren zuzendariarena, zeinaren bidez ordeztu eta argitaratzen baita martxan jartzeko eta aldatzeko erantzukizunpeko adierazpenaren eredia.</li> </ul>	<p><b><u>ARABAKO EGOITZA NAGUSIA:</u></b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-Martxan jartzea: 2009/07/28.</li> <li>-OCAren azken ikuskatzea: 2018/12/02</li> <li>- Hiru hilean behingo eta urtean behingo mantentze-lanak.</li> </ul> <p><b><u>BIZKAIKO HHB:</u></b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-Martxan jartzea: 2019/06/13</li> <li>-Hiru hilean behingo eta urtean behingo mantentze-lanak.</li> </ul> <p><b><u>GIPUZKOAKO HHB:</u></b></p> <p>Berotze- eta klimatizazio-sistemak eta ur bero sanitarioa instalatzea (jabekideen erkidegoa)</p>

INGURUMENA	EGOERA
<p><b>BEROTEGI-EFEKTUA ERAGITEN DUTEN GAS FLUORDUNAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2014ko apirilaren 16ko 517/2014 Erregelamendua (EB), berotegi efektuko gas fluordunei buruzkoa eta 842/2006 Erregelamendua (EE) indargabetu duena (2014/05/20ko 150. zenbakiko DOUE)</li> <li>▪ Otsailaren 17ko 115/2017 Errege Dekretua, gas fluordunen eta haietan oinarritutako ekipamenduen merkaturatzea eta manipulazioa eta halakoak erabiltzen dituzten profesionalen egiaztatzea arautzen dituena eta gas fluordunak isurtzea berekin dakarten jarduerak hartzen dituzten instalazioetarako betekizun teknikoak ezartzen dituena. (2017/02/18ko 42. zenbakiko BOE).</li> <li>▪ PRA/905/2017 Agindua, irailaren 21ekoa, otsailaren 17ko 115/2017 Errege Dekretuaren I. eta II. eranskinak aldatzen dituena; errege-dekretu horren bidez, gas fluordunen eta haietan oinarritutako ekipamenduen merkaturatzea eta manipulazioa eta halakoak erabiltzen dituzten profesionalen egiaztatzea arautzen dituena eta gas fluordunak isurtzea berekin dakarten jarduerak hartzen dituzten instalazioetarako betekizun teknikoak ezartzen dituena (2018/05/15eko 116. zenbakiko BOE).</li> <li>▪ 2022ko martxoaren 14ko Ebazpena, Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren zuzendariarena, zeinaren bidez gas fluordunekin kargatutako hozte-, aire girotu- eta bero-ponpak merkaturatzen dituzten agenteek Gas fluordunen eta horietan oinarritutako ekipoen merkaturatzea eta manipulazioa arautzen duen 115/2017 Errege Dekretuaren VI. eranskinaren b zatia igortzeko betebeharra bete ez duten erosleek berri emateko prozedura ezartzen baita (EHAA, 69. zk., 22/04/06).</li> </ul>	<p><b>ARABAKO EGOITZA NAGUSIA:</b></p> <p>-Martxan jartzea: 2009/07/28 -OCAren azken ikuskatzea:2018/12/02 - Hiru hilean behingo eta urtean behingo mantentze-lanak. R-410A hozgarria</p> <p><b>BIZKAIKO HHB:</b> ez dagokio. R-410AR hozgarria</p> <p><b>GIPUZKOAKO HHB:</b> ez dagokio. Jabekideen erkidegoaren instalazioa.</p>

<p><b>SUTEEN AURKAKO BABESA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ 769/1999 Errege Dekretuaren MIE-AP5 jarraibide tekniko osagarria ITC MIE-AP5.</li> <li>▪ Abenduaren 3ko 2267/2004 Errege Dekretua, Industria-establezimenduetan suteen aurkako Segurtasun-erregelamendua onartzen duena (2004/12/17ko 303. zenbakiko BOE).</li> <li>▪ (2267/2004 EDko akatsak zuzentzen ditu, 2005/03/05eko 55. zenbakiko BOE).</li> <li>▪ 07/03/23ko 393/2007 Errege Dekretua, larrialdi-egoerak sor ditzaketen jardueretan dabilzan zentro, establezimendu eta bulegoen autobabesari buruzko oinarritzko araua onartzen duena (2007/03/24ko 72. zenbakiko BOE).</li> <li>▪ Urriaren 31ko 842/2013 Errege Dekretua, eraikuntza produktuak eta eraikuntza elementuak suarekiko erreakzio eta erresistentzia propietateen arabera sailkatzeko araudia onesten duena. (2013/11/23ko 281. zenbakiko BOE).</li> <li>▪ 2014ko uztailaren 30eko Agindua, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baita Industrialak ez diren Eraikinetako Suteen Aurkako Babes Instalazioen Egiaztigiri-eredu (2014/08/25eko 159. zenbakiko EHAA).</li> <li>▪ Maiatzaren 22ko 513/2017 Errege Dekretua, suteen aurkako babes-instalazioen erregelamendua onesten duena. Akatsen zuzenketa, 1994ko maiatzaren 7koa (2017/06/12ko 139. zenbakiko BOE).</li> </ul>	<p><b>ARABAKO EGOITZA NAGUSIA:</b></p> <p>- Suteen aurkako instalazioa: 2013/04/12 - Suteak itzaltzeko sistemaren hiru hileroko eta urteroko mantentze-lanak.</p> <p><b>BIZKAIKO HHB:</b> - Suteen aurkako instalazioa: 2019/07/11 - Suteak itzaltzeko sistemaren hiru hileroko eta urteroko mantentze-lanak.</p> <p><b>GIPUZKOAKO HHB:</b> - Suteen aurkako instalazioa: 12.04.2013. - Suteak itzaltzeko sistemaren hiru hileroko eta urteroko mantentze-lanak.</p>
--	--



INGURUMENA	EGOERA
<p><b>ENERGIA-JASANGARRITASUNA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Otsailaren 21eko 4/2019 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa.</li> <li>▪ Otsailaren 26ko 25/2019 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen eraginkortasun energetikoaren ziurtapenari eta ziurtapenaren kontrol-prozedurari eta erregistroari buruzkoa.</li> <li>▪ 254/2020 DEKRETUA, azaroaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa.</li> <li>▪ Ebazpena, 2020ko abenduaren 16koa, Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendariarena, kontsumoak indibidualizatzeko sistemak instalatzearen eta Administrazioari jakinaraztearen errentagarritasun ekonomikoari buruzko irizpideak ematen dituena (EHAA, 20. zk., 2021/01/28koa).</li> <li>▪ Abenduaren 20ko 732/2019 Errege Dekretua, Eraikuntzaren Kode Teknikoa aldatzen duena (kode hori martxoaren 16ko 314/2006 Errege Dekretuak onetsi zuen); hala, kodea egokitu egiten da eskakizun berrietara, eraikinek prestazio hobekak eskaini ditzaten bai energia-efizientziari dagokionez, bai erabiltzaileen osasunari, erosotasunari eta segurtasunari dagokienez ere.</li> <li>▪ 56/2016 Errege Dekretua, otsailaren 12koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren energia-efizientziari buruzko 2012ko urriaren 25eko 2012/27/EB Zuzentarauaren transposizioa egiten duena, energia-ikuskaritzei, energia-zerbitzuen hornitzaileen eta energia-ikuskatzaileen akreditazioari eta energia-hornikuntzaren efizientzia sustatzeari dagokienez (BOE, 38. zk., 2016ko otsailaren 13koa).</li> <li>▪ 390/2021 Errege Dekretuak egindako aldaketak (auditoretza egiten duten langileen kualifikazioari, komunikazio-ereduei eta abarri buruzkoa). 390/2021 Errege Dekretua, ekainaren 1ekoa, eraikinen eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko oinarritzko prozedura onartzen duena (BOE, 131. zk., 2021/06/02koa).</li> <li>▪ Apirilaren 13ko 265/2021 Errege Dekretua, balio-bizitzaren amaieran dauden ibilgailuei buruzkoa eta abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onartutako Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra aldatzen duena.</li> <li>▪ Abenduaren 9ko 10/2021 Legea, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena (EHAA, 262. zk., 2021/12/31).</li> <li>▪ PCM/466/2022 Agindua, Ministro Kontseiluaren Akordioa argitaratzen duena, zeinaren bidez onartzen baita Estatuko Administrazio Orokorren eta Estatuko erakunde publikoen sektoreko erakundeen energia-aurrezpen eta -efizientziarako neurrien plana (BOE, 125. zk., 22/05/26).</li> <li>▪ 376/2022 Errege Dekretua, Bioerregaien, biolikidoen eta biomasa-erregaien berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko eta jasangarritasuna sustatzeko irizpideak eta gas berriztagarrien jatorri-bermeen sistema arautzen dituena (BOE, 118. zk., 22/05/18).</li> </ul>	<p><b>ARABAKO EGOITZA NAGUSIA:</b> ENERGIA-KALIFIKAZIOA: <b>B</b> 2027/05/25era arte balio du</p> <p><b>BIZKAIKO HHB:</b> ENERGIA-KALIFIKAZIOA: <b>A</b> 2019/07/09ra arte balio du</p> <p><b>GIPUZKOAKO HHB:</b> Bulegoa alokairuan 2019an.</p>

<p><b>URA (ISURIAK)</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Uztailaren 20ko 24/07/01 Legegintzako Errege Dekretua, Uren Legearen testu bategina onesten duena (2001/07/24ko 176. zenbakiko BOE).</li> <li>▪ Ekainaren 23ko 1/2006 Erkidegoko Legea, Urei buruzkoa (2006/07/19ko EHAA)</li> <li>▪ Azaroaren 2ko 229/2021 Dekretua, Uraren Kanonari buruzko Erregelamendua onartzen duena (EHAA; 221. zk., 2021/11/08).</li> <li>▪ Vitoria-Gasteizko Udalaren kolektoretara doazen isuriak arautzen dituen erregelamendua - Etxekoak ez diren isurien udal-ordenantza -1992</li> <li>▪ Bilboko Ur Partzuergoaren isuriak arautzeko erregelamendua (1989ko 63. zenbakiko BAOko erregelamendua)</li> <li>▪ Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoaren saneamendu- eta arazketa-zerbitzuaren prestazioa arautzen duen ordenantza (2016ko urtarilla)</li> <li>▪ Añarbeko Ur Partzuergoaren saneamendu-sarera egiten diren isuriak arautzen dituen erregelamendua (2006ko maiatza).</li> </ul>	<p><b>ARABAKO EGOITZA NAGUSIA:</b> -Zerbitzuaren alta eta onespena AMVISAn: 2009/01/31 eta 2010/02/26.</p> <p><b>BIZKAIKO HHB:</b> -Ur sanitarioen barneko instalazioen ziurtagiria: 2019/07/04</p> <p><b>GIPUZKOAKO HHB:</b> Jabekideen erkidegoa (inplizitua irekitze-lizentzian)</p>
--	---

## **Borondatezko beste betekizun batzuk. Sektoreko Erreferentzia Dokumentuak**

Visesak, gainera, beste betekizun batzuei dagokienez, honako hauek aintzat hartzen ditu:

- Horri dagokionez, **Europako Batzordeak** egindako dokumentu hauek aztertu dira:
  - **“Best Environmental Management Practice for the Public Administration Sector”, 2019.**  
<https://susproc.jrc.ec.europa.eu/activities/emas/documents/PublicAdminBEMP.pdf>
  - **Sektoreko Erreferentzia Dokumentua; dokumentu hori Europako Batzordearen 2018ko abenduaren 19ko 2019/61/EB Erabakiaren bitartez onetsi zen eta erabaki horrek erreferentzia egiten die ingurumen-kudeaketako jardunbide egokiei buruzko sektoreko erreferentzia-dokumentuari, ingurumen-portaerari buruzko sektoreko adierazleei eta Administrazio Publikoaren sektorerako bikaintasunerako alderaketa-parametroei, 1221/2009/EE Erregelamenduaren esparruan (Erregelamendu horrek arautu egiten du erakundeek ingurumen-kudeaketa eta -auditoretza sistema komunitario batean izan dezaketen borondatezko parte-hartzea).**  
[http://ec.europa.eu/environment/emas/emas\\_publications/sectoral\\_reference\\_documents\\_en.htm](http://ec.europa.eu/environment/emas/emas_publications/sectoral_reference_documents_en.htm)
  - **“Best Environmental Management Practice for the Building and Construction Sector” - Final Draft (2012)**  
<https://susproc.jrc.ec.europa.eu/product-bureau/sites/default/files/inline-files/ConstructionSector.pdf>
  - **“Ekonomia zirkularerako ekintza-plan berria, Europa garbiago eta lehiakorrago baten alde” dokumentua, 2020ko martxokoa.**  
[https://ec.europa.eu/commission/presscorner/detail/es/ip\\_20\\_420](https://ec.europa.eu/commission/presscorner/detail/es/ip_20_420)
  - **2022/591(EB) ERABAKIA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2022ko apirilaren 6koa, Batasunaren 2030era arteko Ingurumenaren arloko Ekintza Programa Orokorrari buruzkoa.**  
[EUR-Lex - 32022D0591 - EN - EUR-Lex \(europa.eu\)](https://eur-lex.europa.eu/lexuri/ui.do?uri=CELEX:32022D0591:EN:EUR-Lex)
- Halaber, Trantsizio Ekologikoko Ministerioak (MITECO) jardunbide egokien zenbait dokumentu egin eta argitaratu ditu; guk aztertu egin ditugu:
  - **“Ingurumenari loturiko jardunbide egokien eskuliburua familia hauetarako: administrazioa eta bulegoak”**  
<https://www.miteco.gob.es/es/calidad-y-evaluacion-ambiental/temas/red-de-autoridades-ambientales-raa/sensibilizacion-medioambiental/manuales-de-buenas-practicas/>
  - **“Ingurumenari loturiko jardunbide egokien eskuliburua familia hauetarako: eraikuntza eta obra publikoak”**  
<https://www.miteco.gob.es/es/calidad-y-evaluacion-ambiental/temas/red-de-autoridades-ambientales-raa/sensibilizacion-medioambiental/manuales-de-buenas-practicas/>
  - **“Espainia zirkularra 2030. Ekonomia Zirkularren Espainiako Estrategia”**  
<https://www.miteco.gob.es/es/calidad-y-evaluacion-ambiental/temas/economia-circular/estrategia/>
  - **“Ekonomia Zirkularren I. Ekintza Plana 2021-2023”**  
<https://www.miteco.gob.es/es/prensa/ultimas-noticias/el-gobierno-aprueba-el-i-plan-de-acci%C3%B3n-de-econom%C3%ADa-circular-con-un-presupuesto-de-1.529-millones-de-euros/tcm:30-526709>

- **TED/132/2022 Agindua, otsailaren 21ekoa, 2021-2030 Klima Aldaketara Egokitzeko Plan Nazionalaren Lehenengo Lan Programa ezartzen duena.**  
[BOE.es - BOE-A-2022-3183 Orden TED/132/2022, de 21 de febrero, por la que se adopta el Primer Programa de Trabajo del Plan Nacional de Adaptación al Cambio Climático 2021-2030.](https://www.boe.es/BOE-A-2022-3183)
- Bukatzeko, Eusko Jaurlaritzak honako hauek jarri ditu martxan:
  - **“Euskadiko Ekonomia Zirkularrerako Estrategia 2030”**  
<https://www.ihobe.eus/argitalpenak/euskadiko-ekonomia-zirkularrerako-estrategia-2030-zirriborrea>
  - **“Kontratazio zirkularra. Ekonomia zirkularraren sustapena erosketa eta kontratazio publiko berdearen bitartez”**  
[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/compraverde/es\\_def/adjuntos/cuaderno\\_compra\\_contratacion\\_verde\\_circular\\_cast.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/compraverde/es_def/adjuntos/cuaderno_compra_contratacion_verde_circular_cast.pdf)
  - **“Erosketa Publiko Berdearen eta Bizi-Zikloaren Kostuaren Azterketaren Gidaliburua”**  
<https://www.ihobe.eus/publicaciones/guia-para-compra-publica-verde-y-analisis-costes-ciclo-vida>
  - **“Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen 2020rako Programa”**  
<https://www.ihobe.eus/Publicaciones/ficha.aspx?IdMenu=97801056-cd1f-4503-bafa-f54fa80d9a44&Cod=b34b0641-45b2-4b5a-9870-469079626014&Idioma=eu-ES&Tipo=>
  - **“Kilma-aldaketaren Euskal Estrategia 2050”**  
[Estrategia vasca de cambio climático 2050 - Cambio climático - Euskadi.eus](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/compraverde/es_def/adjuntos/cuaderno_compra_contratacion_verde_circular_cast.pdf)
  - **“Basque Green Deal”**  
[Irekia Eusko Jaurlaritzak - Gobierno Vasco: Basque Green Deal, el modelo vasco para un desarrollo económico justo y sostenible \(euskadi.eus\)](https://www.ihobe.eus/publicaciones/guia-para-compra-publica-verde-y-analisis-costes-ciclo-vida)
  - **c**  
[Transicion-Energetica-y-Cambio-Climatico-WEB.pdf \(euskadi.eus\)](https://www.ihobe.eus/publicaciones/guia-para-compra-publica-verde-y-analisis-costes-ciclo-vida)

Dokumentu horiek aztertu ondoren, hainbat jardunbide egoki eta adierazle identifikatu ditugu, eta txertatu egin ditugu gure ingurumen-kudeaketan. Hain zuzen ere, honako alderdi hauekin daude erlazionatuta:

- Energiaren kontsumoa kudeatu eta murriztea.
- Uraren kontsumoa kudeatu eta murriztea.
- Hondakinen sorrera kudeatu eta murriztea.
- Bulegoko materialaren kontsumoa murriztea.
- Erosketetan ingurumen-irizpideak txertatzea.
- Zerbitzuen kontratazioan ingurumen-irizpideak txertatzea.
- CO<sub>2</sub> igorpenen sorrera murriztea.

Visesak lanean jarraituko du jardunbide-egokiak aplikatzeko eta sektoreko adierazleak definitzeko, ingurumen-kudeaketan aurrerapausoak egiten jarraitu ahal izan dezagun eta, aldi berean, beste talde eta sektore batzuen jarduna hobetzen lagun dezagun.

## 10. 2022KO INGURUMEN-HOBEKUNTZA

Kontuan hartuta alderdi zuzen eta zeharkakoen garrantzia, legeak ezarritako betekizunak, aurreko urteko helburuak eta xedeak eta kudeaketa-sistema osatzen duten gainerako elementuak, 2022ko jarduketatarloen proposamen aurreratua jaso da:

INGURUMEN-ARLOA	JARDUKETA-ILDOAK
<b>Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programa</b>	Euskadiko 2020-2030eko Erosketa eta Kontratazio Berdearen ziklo berriaren parte izatea. Ingurumen-integrazioarekin jarraitzea erosketa eta kontratazioen barne-sistematikan (lizitazioak).
<b>Bulegoei lotutako energia-kontsumoa minimizatzea (Egoitza Nagusia eta hiru HHBak).</b>	Visesaren ibilgailuen flotan gasoliotik sortutako isurketak % 5 murriztea(kgCO2/pertsona). Ibilgailuak elektrikoki kargatzeko puntuak ezartzea. 4/2019 Legea, 25/2019 Dekretua eta 254/2020 Dekretua aplikatzen jarraitzea, eraginkortasun eta jasangarritasun energetikoa hobetzeko, batez ere Euskadiko erakunde publikoena.
<b>Erakundearen parte-hartzea eta sentsibilizazioa maximizatzea ingurumen-aldagaian.</b>	Visesaren ingurumen-estrategiaren koordinazioan lehen pausoak ematea, Ingurumen Batzordearen figuraren bitartez.
<b>Pertsonen parte-hartzea eta sentsibilizazioa maximizatzea ingurumen-aldagaian.</b>	EKO Visesa GREEN proiektuko ekintzak garatzea.
<b>Gure IKS hobetzea.</b>	Ingurumen-adierazleak Balance Intelligence (BI) tresnara eramatea, pertsonak informatu eta sentsibilizatzeko Energia-sistemen aplikazioa erabiltzea gastuak kontsumo-motaren arabera bereizteko.
<b>Beste erakunde eta entitate batzuekin ingurumena hobetzeko ekimenetan bultzatzaile izan eta parte hartzea (Zaintza Teknologikoa).</b>	BIM-SPEED proiektuan aktiboki parte hartzea, birgaitze-kasu erreal batean.
<b>Gure bezeroekin/gizartearekin ingurumena hobetzeko ekimenetan bultzatzaile izan eta parte hartzea (Zaintza Teknologikoa).</b>	Visesaren erantzukizun-arloko Next Generation funtsen programa eta ildoak garatzea.
<b>Gure bezeroekin/gizartearekin ingurumena hobetzeko ekimenetan bultzatzaile izan eta parte hartzea.</b>	CO <sub>2</sub> -rik gabeko hiri adimendunak sortzeko Europako estrategia garatzea (SmartEnCity).
<b>GJHei eta Agenda Euskadi 2030 egitasmoari ekarpena egitea.</b>	Visesaren kudeaketan GJHak eta Agenda 2030 txertatzea, eta korrelazioak ezartzea Visesaren ingurumen-estrategien eta GJHen eta Agenda 2030 egitasmoaren artean.
<b>Energia-efizientziarako mekanismoak ezartzea.</b>	Energia-auditoretzaren gomendioak ezartzea.
<b>Jasangarritasun eta ekonomia zirkularreko gobernu-politikei ekarpena egitea.</b>	Politika horiei dagokionez, ekintza zuzen bat ezartzea gutxienez.

## 11. ELKARRIZKETA IREKIA ALDERDI INTERESDUNEKIN

Visesak adierazten du gizarte-konpromiso sendoa duela bere misiotik bertatik hasita. Konpromiso hori Enpresen Erantzukizun Sozialaren ikuspegitik gorpuzteko, hainbat ekimen lantzen ari da Visesa, kudeaketa arduratsua eta gardena izateko helburuan aurrerapausoak egite aldera. Hona hemen ekimen horietako batzuk:

### GARDENTASUN-ATARIA

Zerbitzuaren ikuspegi bikoitzarekin jaio zen: balio publikoa sortzea eta baliabide publikoen erabileran gardentasunaren kultura eredu hartzea.

Eta hala egiten dugu uste sendoa baitugu gure jarduerari eta gobernu onari buruzko informazio garrantzitsua aldi-aldi eta eguneratuta argitaratzeak (publizitate aktiboa) eta herritarren informazio eskaerak betetzeko prest egoteak (informazio publikoa eskuratzeko eskubideei buruzko eskabideak) zabaldu eta indartu egingo duela herritarrek guregan duten konfiantza. Gainera, herritarren parte-hartze erantzunkidearen kultura sortzea sustatuko du.

Arlo horretan, Visesak Q-epeqrekin (Kudeaketa Aurreratuaren aldeko Euskal Erakunde Publikoak) lankidetzan dihardu, publikizitate aktiboa ebaluatzeko eredu-eredua definitzen, mantentzen eta hobetzen.

2021. urte honetan, Visesan asko egin dugu aurrera informazio guztia euskaraz argitaratzean, eta gure atariko ([www.visesa.euskadi.eus](http://www.visesa.euskadi.eus)) edukiak eguneratuta mantendu ditugu.

### JASANGARRITASUN-MEMORIA

Gure borondatez eskaintzen dugun izaera publikoko txosten bat da, eta ikuspegi sozial, ekonomiko eta ingurumenaren ikuspegitik erakundeak eta bertako jarduerak duten posizioa jasotzen da bertan. Akziodunei, bezeroei, langileei, aliatuei eta gizarteari oro har zuzenduriko proiektu, onura eta ekintza sozialen berri ematen du. Finantza-informazioa eta kudeaketa memoria jasotzen dituen txostenaren osagarria da, eta bi urtean behin argitaratzen da.

Erantzukizun sozialaren komunikazioaren oinarria da, eta ezaugarri dugun gardentasun-printzipioaren adibidea ere bai. Global Reporting Initiative-k (GRI) sustatzen duen eredu nazioartean onarpen handiena duen estandarra da, eta txostena egiteko aukeratu duguna da.

2021. urte honetan, 4. jasangarritasun-memoria argitaratu da. Jasangarritasun-memoria publikoa da eta webgune honetan eskura daiteke: [www.visesa.euskadi.eus](http://www.visesa.euskadi.eus).

### PERTSONEN PARTE-HARTZEA

Urtean zehar hainbat bilera egin dira, bai zuzendaritza-mailan (infobilerak eta Zuzendaritza Batzordea), bai arlo bakoitzeko batzordeen mailan (Berdintasuna, Ingurumena, Estrategia...); Visesak kideak bertan izan dira eta modu aktiboan hartu dute parte. Hona hemen parte hartzeko foro horietako batzuk:

- Berezi Bilera: jardueraren jarraipenerako, koordinaziorako eta antolakuntzarako bilerak. Bilera horietan erakundeko kide guztiek parte hartzen dute, eta arduradun-kolaboratzaile harreman bat ezartzen da. Bilera horiek esparru-gidoi bat dute, eta, bertan, honako bost alderdi hauek landu behar dira: helburuak, portaerak, horizontaltasuna, berrikuntza eta komunikazioa. Bilera horiek hilean behin egin ohi dira.
- Sailen aldizkako bilerak: bilera horietan, interes orokorra duen informazioa ematen zaie arloei; hau da, Visesak arlo bateko kide diren pertsona guztiak biltzen dira.
- Aldizkako bilerak Zuzendaritza Nagusiarekin: urtean 2 eta 4 artean egin ohi dira, eta goi-mailako informazioa jakinaraztea dute xede, hala nola, parte garen Etxebizitza Sailaren politiketatik edo gurekin interakzioan jarduten duten Eusko Jaurlaritzaren beste sail batzuen politiketatik eratorritako informazioa. Horrez gain, estrategia-esparruaren, jarduera berrien, Visesaren helburuen eta zuzendaritzak bultzatzen dituen proiektuen berri ere ematen da bilera hauetan.
- Beste bilera-esparru batzuk ere badaude, erakundeko pertsonen askotariko profiletara egokituta; horietan, Visesaren jarduerak planifikatu, gauzatu, egiaztatu eta findu egiten dira. Hona hemen talde horietako batzuk: Zuzendaritza Batzordea, Berdintasun Batzordea, Segurtasun eta Osasun Batzordea, Euskara Batzordea, Produktu Batzordea eta Ingurumen Batzordea (Erosketa Publiko Berdearen Batzordea).

Visesako kideek parte hartzen duten bilera guztietan bertako kideek *feedbacka* ematen diote elkarri. Gainera, aurreko bileretan sortutako dokumentuen arabera, horren berri ematen zaie erakundeko kide guztiei, intraneteko berrien buletinaren bidez (buletin horretan dokumentazioaren egoera eta erabilgarritasuna ere azaltzen dira).

Bestalde, Visesak beste komunikazio-kanal batzuk ere baditu, aipatutakoez gain (esaterako, iradokizunen postontzia); kanal horiek erakundeak ezarritako ingurumen-komunikazioen mapan daude deskribatuta.

## AINZATESPENAK ETA SARIAK

2021. urtea Visesak gizarteari zerbitzua emateko duen konpromisoa aitortzeko urtea izan da:

1. Etxebizitza eta Lurzoruaren Kudeatzaile Publikoen Espainiako Elkarteak hiru sari eman dizkio Visesari:
  - "SmartEncity Vitoria-Gasteiz. Koroatze auzoa" proiektuarentzako saria, hiri-birgaitze eta -suspertzearen kategorian.
  - 1. accesita "Babes publikoko etxebizitzetako auzokideen erkidegoentzako zerbitzu energetikoak emategatik", zerbitzu publikoen kudeaketa integral onenaren kategorian.
  - Accesita "Muliatego (Hondarribia) 65 BOE"-ren proiektuari, ingurumen-kudeaketa egokiena egin duen enpresaren kategorian.
2. Euskalitek emandako Quality Innovation Day (QIA). Visesa Euskadiko irabazlea izan da sektore publikoaren kategorian. Administrazioak SmartEnCity-Koroatze proiektuan izan duen zeregin berritzailea aitortu da, "eragile ordezkari" baita birgaitzea sustatzeko. Zeregin horretan, birgaitze-lanen diseinu eta exekuzio egokia izapidetu, kontratatu, gainbegiratu eta kudeatzeaz gain, laguntzen kudeaketaz ere arduratzen da onuradunen izenean, eta "giltza eskuan" amaierako produktua entregatzen die. Visesa izango da 2022an Euskadiren ordezkaria nazioarteko fasean.
3. Osalane jardunbide egokien aitortza egin dio Visesari, Visesako telenalaren modalitatean.

## BILTZARRAK/JARDUNALDIAK

Egoera pandemikoak nabarmen markatu du ekitaldi eta jardunaldietan parte hartzea. Gehienak telematikoki izan dira, eta ez aurrez aurre, ohi bezala. 2021ean, jardunaldi edo biltzar hauetan parte hartu da:

- 2021eko irailaren 21a: Carlos Quindósek “Euskal etxebizitza-eredua” mahai-inguruan parte hartu zuen, “Rebuild, erainkigintza eraldatzen” biltzarrean.
- 2021eko irailaren 28a: Sonderborg Climate Conference, SmartEnCity proiektuak Vitoria-Gasteizen izandako zabalkundearen emaitza aurkezteko.
- 2021eko azaroaren 11: Etxebizitza sozialetako Berrikuntzaren eta Jasangarritasunaren I. Biltzarra (ISViS 2021), SmartEnCity proiektuak Vitoria-Gasteizen izandako zabalkundearen emaitza aurkezteko.

## ARGITALPENAK

Artikulu hauek argitaratu dira euskarri eta aldizkari espezializatuetan:

- 2021eko martxoa/apirila: SmartEnCity proiektuari buruzko artikulua. *Edifícios e Energia* aldizkari portugaldarrean argitaratua. <https://edificioseenergia.pt/>
- 2021eko abenduaren 12a: EITBko *Teknopolis* saioan agerraldia: <https://www.eitb.eus/es/television/programas/teknopolis/videos/detalle/8513227/coronacion-barrio-inteligente-en-vitoriagasteiz/>

---

## 12. INGURUMEN-ISTRIPUAK

2021ean ez da ingurumen-larrialdi edo -istripu esanguratsurik hauteman Visesaren jardueren, produktuen eta zerbitzuen esparruan.

Kontratututako eraikuntza-enpresei dagokienez, adierazi da Visesaren sustapenetako obrek ez dutela ingurumen-zehapenik edo isunik jaso zegokien araudia urratzeagatik.

Halaber, Visesak adierazten du ez duela ingurumen-zehapenik jaso.



## 13. BALIOZKOTZE-DATUAK

BUREAU VERITAS IBERIA SL enpresak (ES-V-0003 zenbakiarekin akreditatutako ingurumen-egiaztailea) baliozkotu du adierazpen hau. Helbidea: Valportillo Primera Kalea, 22-24. 28108 – Alcobendas (Madril).

Ingurumen-adierazpen hau 2021eko datuei dagokie eta adierazpen osoaren eredian oinarrituta gauzatu da. Urtean behin ingurumen-adierazpen bat egiten da, herritarrekin eta beste alderdi interesdun batzuekin komunikatzeko eta elkarrizketan aritzeko tresna gisa, Visesaren ingurumen-portaerari dagokionez. Adierazpena webgune honetan dago argitaratuta:

<http://www.visesa.euskadi.eus>

Hurrengo adierazpen baliozkotua 2022. urtekoa izango da eta 2023an aurkeztuko da.

Adierazpen honen edukiari buruzko galderarik izatekotan, jarri gurekin harremanetan [visesa@visesa.eus](mailto:visesa@visesa.eus) helbide elektronikora idatzita.

**Harremanetarako pertsona:** Goretti García

Honek egin du adierazpena:

**Goretti García Arenal**  
Visesako Prozesuen, Kanpoko Komunikazioaren eta Sistemen zuzendaria